

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



Zuzendaritzaren buru: Fr. Luis Villasante

Euskera XXXII (2. aldia)
(1987, 1)

32
BILBO

EUSKALTZAINDIA

Arbieto, 3 - 48008 Bilbo

Maketazio eta orrazketak: R. B. U.
Fotokonposaketa: Rali
Particular de Costa, 12-14
48010 Bilbo

Elkar, E. Koop. grafikagintza
Autonomia, 71 - 48012 Bilbo

©Euskaltzaindia
Ribera, 6 - 48005 Bilbo

ISSN. 0210-1564
Euskera

ISBN. 85479

Legezko Gordailua: BI 211-87

AURKIBIDEA

A. DAMASO INTZA, A. OIEREGI ETA A. DONOSTIAREN MENDEURREN- OSPAKIZUNA

<i>Fr. Luis Villasante, Euskaltzainburua, A. DAMASO INTZA, A. OIEREGI ETA A. DONOSTIAREN MENDEURREN-OSPAKIZUNA</i>	9
<i>Jose M. Satrustegi, AITA DAMASO INTZAKOA (1886-1986) GIZON, ELIZGIZON ETA EUSKALTZALE</i>	13
<i>Patxi Ondarra, OIEREGI-KO BUENAVENTURA AITA (1886-1956) . . .</i>	25
<i>Jose Antonio Arana Martija, AITA DONOSTIA ERBESTEAN</i>	33

PIERRE TOPET-ETXAHUN (1786-1862) BIGARREN MENDEURRENA

<i>Thomas Uthurry, P. T. ETXAHUNEN II. MENDEURRENA</i>	41
<i>Yon Etxaide-Itharte, ETXAHUNEN SORTZEAREN BIGARREN MEN- DEURRENA DELA ETA</i>	45

GAI LABURRAK

<i>Jean-Baptiste Orpustan, LUR-BERRI EGITE ETA TOPONIMIA MEN- DEBALEKO ETA ERDIKO-EUROPAN: FLARANEGO 8GARREN IXTORIO EGUN INTERNAZIONALAK</i>	55
<i>Károly Morvay, DICCIONARIO DE LAS FORMAS IRREGULARES DEL VERBO AUXILIAR VASCO</i>	67

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

Herri-izenei buruzko adierazpenak

Laukiz	83
Arraia-Maeztu	84
Atarrabia, Billaba.	85
(Markin-) Etxebarria	86
BATZAR AGIRIAK	89

BATZAR TXOSTENAK

<i>Karmele Rotaetxe, AZENTUA ETA ENTONAZIOA: HARREMANAK</i>	107
<i>Koldo Mitxelena, OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIAREN INGURUAN</i>	127
<i>Jose Antonio Arana Martija, HAUR ETA GAZTEENTZAKO LIBURUEN ITZULPENAK</i>	131
<i>Seve Calleja-Xabier Monasterio, LAS TRADUCCIONES AL EUSKARA DE LIBROS INFANTILES Y JUVENILES</i>	133
Las revistas literarias, espacio de la cuentística universal.	138
Las traducciones de impronta clerical.	140
Autores clásicos y novelas de aventuras. Las modernas colecciones juveniles e infantiles.	145
Apéndice I: Relación de obras traducidas en colecciones juveniles..	153
Apéndice II: Relación de algunas series de álbumes infantiles traducidas al euskara	158
<i>Andoni Sagarna, LEXIKO-BERRIKUNTZAREN ANTOLAMENDUA ZENBAIT HERRIALDETAN</i>	165
Herrialdez herrialdeko deskribapena	165
Ondorioak	183
<i>Juan San Martin, EGUBERRI CHRISTMEN MEZUAZ.</i>	185

BERRIAK

<i>Jose Luis Lizundia</i> , 1987. URTERAKO EUSKALTZAINDIAREN BATZAR EGUTEGIA	199
<i>Alfonso Irigoien</i> , LANGUE, LANGAGE, PAROL, NOLA EUSKARAZ?	203
<i>Alfonso Irigoien</i> , EUSKAL HIZTEGIAZ EGINIKO ITAUNEN ERANTZUNA.....	205
LIBER 86	209
<i>Fr. Luis Villasante</i> , LEXIKO-BERRIKUNTZAZ GOGOETAK	213
<i>Mikel Zalbide</i> , LEXIKO-BERRIKUNTZAREN INGURUKO ZENBAIT OHAR-AZALPEN.....	217

HILBERRIAK

<i>Jose Antonio Arana Martija</i> , BALENDIN ENBEITA GOIRIA	229
---	-----

A. DAMASO INTZA, A. OIEREGI ETA A. DONOSTIAREN MENDEURREN-OSPAKIZUNA

Larraun-Lekunberrin, Urriak 24, 1986

Fr. L. Villasante

Euskaltzainburuaren agurra

Jaun-Andreak: Ongi etorriak izan zaitezela ospakizun honetara!

Gure asmoa zen Aita Intza maiteari ehun urte betetzen zituenean omenaldi hau egitea; artean bera bizi zelarik, noski. Ez da hala izan. Egun guti falta zirenean joan zaigu. Goian bego. Edozein modutan ere, omenaldia berdin-berdin edo arrazoi gehiagorekin egiten diogu, eta bihotz-bihotzez egin ere. Goitik ikusiko du berak. Omenaldia egiteaz batera eskatu nahi diogu berari lagun diezaiola Akademia honi 66 urtez beronen partaide izan baitzen, eta lagun diezaiola orobat hainbeste maite izan zuen euskarari. Ez naiz hasiko haren bizitzako gorabehera eta lanak aipatzen, zeren Satrustegi jaunak hartu baitu beregain ardura hori.

Mendeurren-ospakizun hau beste birengana ere luzatzen da, hots, Aita Oieregi eta Aita Donostiarengana, eta horiei buruz ere txosten bana entzungo dugu.

Aita Kaputxinoak ziren, noski, gaur omendu nahi ditugun hiruak.

Benetan harrigarri eta aipagarria da Kaputxinoen Ordena honek euskal kulturaren alorrean egin duen lana. Hasteko, geron artean ditugu gaur hemen —eta luzaroko izan ditzagun—, Aita Ondarra eta Aita Yurre. Duela urte guti hil ziren Aita Polikarpo Iraizoz eta Aita Felipe Murieta. 1979an omendu zituen Euskaltzaindiak Aita Arrigarai eta Aita Lezo.

Eta lehenago, 1960an, Bedoña olerkaria, apaiz ordenatu behar zen egunean berean hil zena. Baita Aita Adoaini ere oroigarri bat eskaini zion Euskaltzaindiak euskal predikari izan zen aldetik.

Eta halako omenik gabe joan direnak zenbat eta zenbat! Aita Bera, Aita Elizondo, Aita Ataun, Larrañaga, Ketzo, Soloeta-Dima, Maruri, Ayengizko Iñaki, Goikoetxea “Gaztelu”, etab. Iparraldean ere izan zen beste bat: Aita Blas Mendiondokoa; Hirugarren Ordenako Anaidientzat atera

zuen liburua estimu handitan zuen Lafitte jaunak, eta hala esan zidan berak behin baino gehiagotan.

Gure egunotan hazia ez da ihartu. Hasieran izendatu ditudanez gainera, hor da Zapirain "Ataño", hainbeste libururen egile jator eta joria.

Eta badakit, noski, izen bat baino gehiago, edo beharbada aunitz, utziko ditudala aipatu gabe neure ezjakintasunagatik edo guztiak kontutan hartzea ezina delako. Baina denentzat izan bedi gaur gure esker ona. Gehienak, ez denak, nafarrak dira, gainera, hemengo Kaputxino Ordenako Probintziaren seme.

Bai. Hunkigarria izan da zinez Probintzia honek euskal kulturari ekarri dion emaitza. Honelako uzta, ordea, ez da jasotzen eraintzarik gabe. Non, noiz eta nola izan ote zuen eraintza honek bere sorrera edo hasiera? Bila dezagun, jakingarria baita.

* * *

En atención a los que ignoran el euskara y hoy nos honran aquí con su presencia, voy a decir dos palabras en castellano. Trataba de indagar los orígenes o comienzos de esta impresionante aportación de la Orden Capuchina a la cultura vasca. Se lo oí referir al propio P. Intza (q.e.p.d.) y creo que interesa recordarlo en estos momentos.

Me contó, pues, el P. Inza que cuando él de muchacho se hallaba en el Colegio de los Capuchinos, recibieron un día la visita del P. Provincial. No recuerdo el nombre de éste, aunque seguramente el P. Ondarra lo podría precisar. Entre otras preguntas les hizo ésta: "¿Cuántos hay aquí que saben vascuence?" Empezaron a señalar a algunos. Pero en seguida surgieron entre los mismos chicos los comentarios: "¿Para qué sirve el vascuence, si entre ellos mismos no se entienden? Uno dice *aurrera*, otro *aitzina*, aquél *atzean*, éste *gibelean*, etc. etc."

A lo que el Provincial repuso: "Eso sucede porque no tienen escolarización. Que les compren a estos chicos la Gramática de Campión y la estudien; y que cada día tengan un recreo en que puedan hablar en vasco entre ellos. Necesitamos frailes que posean y cultiven el vasco para hacer el apostolado entre los euskaldunes, atender a la Tercera Orden, etc."

Como decía el P. Inza, aquel día fue la siembra de su vocación euskerista, a la que se mantuvo fiel durante toda su vida, y creo que también la siembra para otros muchos que luego descollarían en este campo.

Pero ¿por qué silenciarlo? Desgraciadamente, las luchas políticas salpican lo que no debieran y a veces lo malogran todo. Aprendamos a no tropezar dos veces en la misma piedra.

La Academia siempre ha pensado que el euskera es un bien de Euskal Herria, un bien y un legado de todo el país, patrimonio común de todos, y que debe estar por lo mismo al margen y por encima de ideologías y opciones políticas. Así queremos que continúe y que nadie lo monopolice ni lo excluya.

Queremos aprovechar la ocasión de este homenaje que la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia tributa a tres Capuchinos beneméritos, dos de los cuales son navarros, queremos aprovechar —decimos— esta ocasión para dirigir un ruego a las autoridades de Navarra y asimismo a la Provincia Capuchina. Un ruego para que la limpia ejecutoria de estos Capuchinos hoy homenajeados tenga una continuidad y para que su obra y su mensaje no sea ni se vea como factor de disgregación sino de unión y de enriquecimiento, como en realidad lo es, si se miran bien las cosas.

La solución de cualquier problema requiere un planteamiento previo correcto del mismo, sin el cual podríamos llegar a un impasse o a dar pasos aberrantes. Si ya desde los tiempos del Imperio Romano una parte considerable de los vascones —el llamado “ager Vasconum”— se romanizó, y, como consecuencia de este hecho, llegó a crear con el tiempo su peculiar romance, y la otra, en cambio —el “saltus Vasconum”— se mantuvo y sigue manteniéndose fiel al idioma ancestral, parece claro que la fórmula a adoptar es la de la convivencia de los dos idiomas sobre la base del respeto mutuo, y no la de que una de las lenguas engulla a la otra. El arbitrar un estatuto legal que asegure esto y haga efectiva esta convivencia pacífica y armónica es ya cosa que atañe a los hombres de gobierno, y la Academia hace votos para que se llegue a la tal fórmula, lo más justa que quepa dentro de las posibilidades reales.

Tampoco podemos olvidar que por una inconsciencia secular, desidia, falta de tradición literaria vasca, promoción unilateral del romance, etc., el euskara, no ya en tiempos del Imperio Romano, sino en siglos mucho más cercanos a nosotros, ha sufrido grandes retrocesos. Pero esto tampoco autorizaría el que ahora se quisiera hacer lo propio, pero en sentido opuesto.

Una visión serena, humanista y realista del problema parece que debe llevarnos a una convivencia en el respeto mutuo, en el intercambio y en el desarrollo armónico de ambas culturas y lenguas, que al fin y al cabo constituyen una riqueza del país, mientras que lo contrario significaría un empobrecimiento del mismo. Este es también el único camino

para superar resentimientos. Y no se olvide que esto de superar los resentimientos es algo esencial para que se dé una auténtica convivencia.

Creemos que ha llegado la hora en que sepamos verlo así todos. Que los hoy homenajeados nos ayuden desde arriba para que sepamos acertar en el camino. Unos y otros. Todos. Así sea.

AITA DAMASO INTZAKOA (1886-1986) GIZON, ELIZGIZON ETA EUSKALTZALE

Larraun-Lekunberrin, 1986-X-24

J.M. Satrustegi

Irailaren 21ean itzali zen Iruñean, azken urteotako babesleku izan duen Errotazaharreko komentuan, Aita Damaso Intzakoa, elizgizon eta euskaltzaina. Ehun urte, ilargialdi bat gutxi, iraun du mundu honetako bere ibilaldiak. Udazkeneko hogeita zortzi egun laburrengatik ez dio lagundu gorputz ahulduak ehun urte mugako helmugara iristen.

Hori dela eta, belarri elkortuen zirritu estutik nolabait zuzenean bere bihotzaren pozgarri eta bizi nahiaren pizgarri adierazi nahi nizkion hitz hauek; ezintasunaren penaz baina izpirituaren zabaltasunean, zoriontsu sumatzen dudana Jainkozaleari eskaintzen dizkiot gure artean.

Irriparre baketsuan ikusiko genuke orain, egoera berrian ikusterik balego, hain maite zuen Aralar mendiaren itzalean euskaltzaleok bera omentzeko batu garela jakinik. Izan ere, hau izan zen bere begien lehen ikuspegia, bide hauetan eman zituen lehen urratsak eta lurralde honetan ikasi zuen xuhur bizitzen. Ongi etorri denok Lekunberrira.

GIZONA

Izan berriak gara Araizko bailaran Migel Olasagarre jaio zen baserria ikusten. Malloa mendien horma bulartsuak hazi egiten dira bertara iristean.

Belardi hezea aurrean duela eta atzez orpoak mendian sarturik, inor gabe, hutsik dago “Kalparregi” baserria. Toki ospelean kokaturik, izotza izango du negu luzean estalki. Harri landuz eginak ditu lau ertzak, atea eta leiho inguruak. Ate buruko leiho gainean badu armarrira.

Zubieta baserriko nagusiak aditzera eman zigunez bidean, gazterik hasi zen Kalparregiko semearentzat gurutzebidea. Maisterrak omen ziren eta nagusiaren anaia bat Ameriketatik itzultzean kalean utzi zituzten etxezainak. Oinez joan omen ziren handik Madotz-a. Intzaren izena oho-rez bete duen herriko semearentzat ez zegoen bertan tokirik.

Horrelako kontraesanez buruturiko bizia izan da berea. Adibidez, bederatzi urte zituenean begietako arazo batengatik eskola utzi behar izan zuen, predikari ospetsu, idazle eta akademilari izango zen gazte-txoak. “Hiruzpalau lerro segidan ezin nituen irakurri”, aitortzen zuen berak.

Ehun urte-buruaren atalaga eskuetan zuela, bertan utzita joan zaigun gizonak osasun gutxi omen zuen gazte denboran. Behar bada horrexegatik egiaztatu da beragan, emakumeengatik esan ohi den hura: atso gaizkiak, betiereko bizia.

Denbora berean, eritasunaren berri duenak hobeki uler ditzake besteren gaitzak. Aita Damaso bezain aipatuak dira pertsona zaharrentzat berak erakutsitako erremedioak; “kalterik egiten ez duten gauzak, sanoak”, aspaldiko bezero hauen esanean. Nik neuk, txikitan etxean entzunez, elkarrekin lotuta daramatzat gizona eta bere ekintza hau. Halako edo beste halako belar eta zenbait bustialdi gomendatu ohi zituen. Inoiz botikarik.

Behin batean elkarriazketa bat ere izan nuen horretaz berarekin. Asko direla berak baliatutako belar erremedioak, erantzun zidan. Chilen, batez ere, ezin kontahalakoak zirela erremedio errazen bidez Jainkoak arindutako gaixotasunak, zioen harrokeriarik gabe. Badakigu, bestalde edozein garaitan joan ohi zitzaizkiola gorputzeko gaitzez jotako jende gaixoak.

Ez da hau, noski, berak aipaturiko gauza harrigarriak errepikatzeko unea eta lekua. Baina esan dezadan, badaezpada, historiaren eta berak zaindutako herriaren aurrean berezko erremedio arrunten bidez lortu zuen esker oneko aipamena.

Gizon apala zen eta ez zen inoiz harrotzen. Patxada baketsua da bere ezaugarri nagusia. Begi nini biziak asaldatzen baziren behin edo beste betazal haien zirritu txikietan, bertan amaituko zen desoreka guzia, haserrikerik ezpagnetara edo mihira ekarri gabe.

Izpirituaren sosegua eta bakea izan dira bere biziko helburu nagusiak. Horregatik zioen bere sinestearen ildo sakonetik, etsaiak ez duela inoiz bakerik.

ELIZGIZONA

Intzako apaizak jaso zuen mutikoaren izpirituko sarats artean asmo berriaren erbia. Seminaria joan behar lukeela, aditzera eman zion belarrira egun batez.

Berak aitortzen zuenez, barre egin zuen hasieran.

—Nola egingo naiz apaiz, ahuntzaia naiz eta? -erantzun omen zion.

Bazen, hala ere, sakonagoko zerbait mutiko koskorren ezezkoan.

Herriko maisuak berak aitari hala gomendaturik utzi behar izan zuen eskola etaazienda zaintzen hasi, begietako arazo hura zela eta.

Nolanahi ere, ez zen azken hitza, harriduraren uste gabeko erantzuna baizik, eta Tuterara eraman zuten Kalparregiko Migel. Etxekoak utzi eta han aurkitu zituen lagunetan, anaia bezala izango zuen adiskide mina, gaur halabeharrez omenaldi berean goratarre egiten diogun aita Oieregi, azpimarra daiteke. Gutun batean aita Damasok dioenez, “apaizgorako ikastaroan biok elkarrekin giñan 1903-garreetik Muskarian hasita, Iruñian Meza emateraño 1910-garreetan. Urrango urtean ere oraindik geren ikastaroak Iruña-ko gure komentuan egin genituan”.

Adiskidantza honek bizi guzian iraungo zuen eta oso eraginkorra gertatu zen aita Damasoren euskal ekintzetan, gero esango dugunez.

Hizlari trebe eta misiolari kartsu agertu zen haste-hastetik, bere izena Euskal Herriko bazter guzietan oso aipatua zelarik elizgiroko esparruan, 36-eko gerrateak etendura sortu arte.

Gertakizun negargarri honetaz berak zioenez, ez zegoen aurrera jarraitzerik; bere adiskideen artean odola isurtzen ikusi zuen, “euskaldun bikainak eta adinik hoberenean hil zizkiguten batzuren batzu”.

Ordu ilunik izan zuen une hartan. Altsasuko komentutik Urbasa mendiko leze tamalgarriaren aurrera eraman zuten gau batez, bertan desagertuko ziren gizonak azken sakramentuak ematera. Lekukotasun beltzaren mezu eskergarriak jaso zuen familia gaixoentzat.

Baina gero eta zailago bihurtzen ari zen euskaltzaleentzat hemengo egoera. Nagusiengandik gaizki ikusiak ziren pozointsutzat baitzeukaten hauen lana, eta erbesteko bidea hartu zuten Euskal Herriko seme hoberenek.

Aita Damaso maister eta arrotz bere herrian, noizbait Kalparregi baserritik oinez atera zenean bezala, Chile-ra bialdu zuten bere nagusiek.

Giza-eragozpen guziak baino haundiagoa da Jainkozaleentzat sinesmenaren indarra eta bigarren aberritzat hartu zuen erbesteak eskaintzen ziona. Denbora berean, aintzakotzat hartu zuten bertakoek misiolariaren lana eta seme kuttun izendatu zuten agintariek.

1956-an egin zuen bidaian ezagutu nuen bere bihotzeko Aralar mendian. Gaztea nintzen baina gogoan ditut bere hitzak pergamu agiri zaharretako aholku sakratuak bezala. Hainbeste aldiz entzuna nuen etxean aita Damasoren izena! Ahorik ireki gabe egon nintzen entzuten. Jasota daukat nonbait orduan elkarrekin ateratako argazkia.

Oporren ondoren bakoitza bere bidean joan eta itsaso zabalaren urruntasun isilak iretsi zituen aita Damasoren berriak.

1986eko udaberrian jakin genuen etorri zela ez berriz itzultzeko eta geroztik ikusi izan dudana bakoitzean Zurbaranen koadroetatik ihes egin-dako pertsonaia iduritzen zitzaidan. Benetan, frantziskotar eredugarri baten izpiritu lotura-gabea zerion argi gutxiko begirada garbiari.

EUSKALTZALEA

Artean inork esan ez zidan zerbait jaso nuen Aralar mendiko elkar-
rizketan lehen erantzuna eman niolarik: aspaldi entzuten ez zuen euska-
ra ederra omen zela nerea.

Zoritxarrez, geure euskararen estimu gutxi nuen nik artean. Ez nuen
inoiz entzuna euskara ederrik bazenik, Tolosakoa ezik. Zigorrak, meha-
txuek eta inguru giro txarrak ongi hustua zidaten, neu konturatu gabe,
euskal gauzenganako gogoia.

Aita Damasok oso ongi zekien, noski, euskaldunon gazte-aroko kri-
sialdien berri. Ikastaroak hastean Tuterara eraman zuen apaiz euskaldun
eta euskaltzaleak, joan aurretik gomendio hau egin zion: “Han zauden
bitartean euskara ez ahaztu”. Kalparregiko semeak ez zuen apaiz jatorra-
ren esanik bete eta zenbait urteren buruan berriz euskaraz hitz egiten
hasteko agindu behar izan zion.

Mintzairarekiko etena mingarriago gertatu zitzaion erdaraz ez zekien
bere amaren aurrean. Zenbait urteren buruan ikustera joan zitzaionean,
Migelek galdua zuen euskara eta ama-semeek ezin zuten inolaz elkar
ulertu. Herritik joandako neskak baten bidez jakin zuten elkarren berri.
Negar malkoetan irten zen amaren nahigabe samina.

Horrela esnatu zen mutiko koskorren euskal kontzientzia eta zinez
erabaki zuen euskara ikastea, ez zekion berriz horrelakorik gerta.

Sortetxean arrotz eta Euskal Herrian bazterturik gelditzea aski ez
zela, euskal sena eta euskara bera galtzerainoko legortea jasan behar izan
zuen bizian. Erraz esaten da.

Barruan ausnartuz joan nintzen ni ere mendi gailurrean entzundako
hitzak, eta denborarekin eragin sakona izan zuten nere bizian.

Oroitzapen pertsonala baino zerbait gehiago dela esango nuke gaur,
nere gazte denborako gertakari xumea. Hazi onaren ereile izan zen aita
Damaso, bere lagunekin, hain gutxi landuta zegoen euskararen arloan.

Ereintza txalogarri honen lehen hazia 1911an jalgi zen kanpora.
Kataluniako kaputxinoek argitaratutako aldizkaritxo bat jaso zuen behin

aita Oieretik eta bihotzeko odola irakiten jarri omen zitzaion, aita Damasok zioenez. Horrelako zerbait Euskal Herrian egiteko nahia agertu zion berehala bere lagun minari.

—“Zaude ixilik” —ihardetsi zion harriturik araztarrak. Gu ez gara gauza holako bat egiteko...”

Aita Buenaventura ez zatekeen bere aburuei arinki uko egiteko euskalduna eta, hain zuzen ere, Katalunia aldean ikastaroak eginak zituen Ziurritzko aita Ildefonso, probintzia honetako buru zenarengana jo zuen berehala. Aurkezpenaren arrazoimendua ezin zen zehatzagoa izan: euskaldun hirugarrendarrek ez zutela orritxo bat ere euren hizkuntzan Frantzisko santuaren nahiz frantziskotar anaidiaren berri jasotzeko. Eskuarteko orri haien antzeko zerbait egin zezaketela berek ere.

Nagusiaren erantzuna, Egiptoko gosetean Joserekin gertatuaren antzeria, erabagikorra izan zen: —“Aita Damasoari esaiozu, bera izan dedillela euskal orri horren zuzendari”.

Txinurri-lana irudi du negu gogorrari begira, zortzi orrialdeko argitalpen xume harenak; baina esku zabalen banaketa itxaropentsua, uzta eder baten algorio bihurtu zen gero. *Irugarrengo Prantziskotarra* (1913-1936) Euskal Herriko sei mila sukaldetara iristen zen azken aldian.

Ereileak ez du sosegurik egindako lanean eta emaitza berrien ametsak bultzatzen du lur berriak lantzerantz. Frantziskotarren anaia txikiak Gaztelanian plazaratzen zuten *Mensajero Seráfico* aldizkaria eredutzat harturik, aita Oieretik datorrio, berriz ere, asmo berriaren mezulari: —“Guk onen antzeko bat, baño au baño ohea, egin bear dugu...”

—“Jainkoaren izenean zoaz emendik”, erantzun zion Intzako semeak, “naiko dugu lengoarekin...”

Bi gizon hauen hika-mika baikorra eten gabeko elkertasunean! “Aita Buenaventura setosoa zen, bere asmo onetan iraunkorra”, zioen bere adiskideagatik 70 urteren buruan. Aita Oieretik gora jo zuen eta berriz ere baimena lortu:

—“Zoaz bada aita Damasorengana”, agindu zion nagusiak, “eta esaiozu nere borondatea dela eta bertatik bera izan dadila aren zuzendari”.

Horrela sortu zen 1919ko urte hasieran *Zeruko Argia* hileroko euskal aldizkaria (1919-1936). Astekari bihurturik eta zerukoaren izena eta kutsua galdurik, bizirik dirau bi euskaltzale ospetsuen nekeetako emaitzak.

Baina baserriko seme jator batek ez du inoiz neguko ereintza beltzatik, udazkeneko bilketa pozgarria baztertzen. Herriz-herri zebilen bitartean *esaera-zaharrak* biltzen zituen. “Lenengo saila Euskaltzaindiaren aldizkarian argitaratzeko ematean, ez nuen uste esaera-zarren belar ontan-

tik dagoen bezin usu zegoanik”, aitortzen du pozez beterik. “Sei ilabete-ren buruko emen natorkizute, beste belar txorta, lengoak baño ere urrin gozatsuagoa duena zuei guzioi eskeintzeko asmotan. Eta esaera-zar auk guziak edo geienak, Naparroa-alde ontan erain ditudan azi bakar batzuek ekarri dituztenak dira, eta apaiz jaunen baratzetan bilduak ala ere”. (*Euskera*, 1927, 141.or.)

Euskera (1927-1928) eta *Zeruko Argian*, batez ere, plazaratzen joan-dako esamesak, ia berrogeita hamar urteren buruan, *Naparroako Euskal-esaera zarrak* izeneko liburuan bildu zituen 1974ean.

Herri xumearen eskola zaharra hartu zuen aita Damasok eredutzat eta bidez-bide ibili zen geroztik ondasun horren bila. “Zertako artzen nituan alako nekeak esaten zidaten askok. Baño pitxirik ederrenak itxa-soaren errailetan izkututzen diran bezala, esanerarik politenak gure errita-rreren ezañetan arkitzen dirala dakigunak, ezeretzat ematen ditugu gure neke guziak, zerpait berri arkitzen dugunean”. (*Euskera*, 1921, II,5.or.)

Aditza izan zen aita Intzak euskararen alorrean aurkitu zuen biga-rren altxorra. Aberatsa bazen ere beretzat esaera zaharren esparrua, aditza zuen denen gainetik estimatzen: “Txorotako artu naute gure erri-tar batzuek. Baño gure erritar auk ez dakite *euskal izkuntza arrigarria ba-da... aditza edo berboa dala bere galdorra ta bere goragarria, aditzean agertzen bai dattu (euskerak) bere aunditasuna ta bere baztar gabeko aber-rastasunak*. Onela zion Intxauspe Apaiz jaunak, eta darraikio: (euskeraz-ko aditza) *bat bakarra da ta au da berezko edergarri aundienetakoa, bere bakartasunean ordea, ain aundia, ain emakoia, ain aberatsa, ain abarra da! Beste izkuntza guzien gañetik dago, gure basoetako aritzak beren adar aundien azpian sortzen diran landaretxoen gañetik dauden bezala*” (Ibid.)

Ez da harritzekoa, beraz, Euskaltzaindiko sarrera-hitzaldia 1921eko urtarilaren 27an gai honetaz egitea. Honela dio bere aurkezpenaren izenburu gogoangarriak:

NAPAÑO'KO ADITZ-LAGUNTZALEA

ZUKETAZKO ESAKERAN

1921'EKO ILBELTZAREN 27'AN. ELIZONDO'KO AUZO-ETXEAN

EUSKALTZAINDIAN SARTZEKO EGUNEAN

INTZA'R DAMASO AN. BURUÑURDUNAK IRAKUÑITAKO LANA

Aditzari buruz egindako bigarren lana, “Burundako euskalkia” azter-tzen duena da. (*Euskera* (1922) III, 3-42.or.) L.L. Bonaparte eta Campio-nek esanaren aurka, Burundako euskalkia ez dela Gipuzkoa aldekoa, “ezta orren aide urbill-urbilla ere” frogatzen du.

Aipaturiko aldizkarietan idatzitako lanez bestalde, honako hauek azpi-marra ditzakegu:

Martin zintzoa. Euskal Esnalea aldizkariak saritutako ipuia. 1913ko urtarreleko zenbakian argitaratua.

Ordikeriaren kalteazkoak. (1916). Lehenik *Euskal Esnalea*-n eta gero I. Lopez Mendizabal-en *Euzkel-Egutegia*-n argitaratua.

Kristau Ikasbidea. Mateo Mujika. Iruñeko gotzaiaren aginduz Astete-ren dotrina Nafarroako haurrentzat itzuli zuen.

Kristau Ikas-bidearen I-ko ta II-garren zatiaren azalpena: (1924) *Xabier-ko Frantzisko santuaren bederatziturrena.*

Giza Biziaz. “Humanae Vitae”, Paulo VI-garren Aita Santuak emandako enziklikaren itzulpena (Iruñea, 1968).

Adoingo Esteban doatsuaren bizia.

Zoritxarrez bere gordailua eskuarteko paperekin Chileko bizitegia kiskali zuen sutean desagertu zen.

Niregana nola etorria den ez dakidala “ARALAR” izeneko antzerki argitaragabea aurkitu dut aita Damasoren gutun bilduman. “Zuazu (Iza-gaondoa)ko Piramuelles’tar Armando apaizak 1928an egiña”, dio azalean. Erdaraz egingo zuen, noski, eta arkatzez hau dio gero: “*Ar’tar A’k euskeraztua*”.

Ezizen honen babesean nor estaltzen den jakiteko, Prahako N. Tauer jaunari idatzitako gutun batera jo dut. Honela zioen, besteak beste, Damaso aitak Altsasutik 1956eko abenduaren 5ean: “*Zeruko Argia*-n, Jesukristoren bizitza ematen asia nauzu, eta beste zenbait sailtxo, emen naizen artean, berortan azalduko dira, *Ar’tar A.*, ta *Irumugarrieta* izenordekoaz”. *Kalparregi*, bere sortetxearen izena ere baliatu izan zuen gerra aurrean izenordekotzat.

Gutun horretan bertan beste idazlan baten berri ematen dio atzerriko adiskideari: “RIEV zalako hartan, bein bakarrik naski. Nafarroan bildutako euskal itz sail polit bat”, ere argitaratu zuela alegia.

Neuk dudan antzerkiaren orijinalera itzuliz, azalean hau dio: “Atzal-buru. *Mikel Deuna ta euskaldunak.* Iru egintzetan azaltzen dan ikuskaia”. Navarro Villoslada-ren *Amaya* nobelan oinarritutako lana da.

Adinak gorputza makaldu bazion ere ez zuen bere izpiritua oso berandu arte moteldu. Hazi onaren ereile jarraitzeko asmoa agertzen du gutunetan. Bere bi amodio nagusiak, sinesmena eta euskara, txandaka doaz itsaso haundiaren alde bietan. Chilera itzultzeko asmoa agertzen du elizgizonen behar gorria ikusten baitu, “eta bein an, sortzen zaigun lanak eztingu betarik ematen gure izkuntzaren alde ezer egiteko, edo oso gutxi beintzat”. Bat-batean, hala ere, gutuna Euskal Herrian idatzia dela konturatzaren gara: “Zure eskutitz au bai ongi eldu zaidala gure euskaldun

alperrei ta alper-izkuntza bezala begiratzan dutenei, beren ez jakin latsa-garria aurpegira botatzeko ta nor edo nor esnarazteko”, erantzun zion 1956an Prahako euskaltzaleari.

EUSKARAREN ADISKIDEAK

Intzako Damaso aita euskararen alde Nafarroan egindako lanaren garrantzia oso murrizt gera daiteke zabalkunde-eragin haundia izan zuen ekintza aipatzan ez badut. Euskaltzaindiaren Jagon sailari dagokion gauza da: Herri mailan euskararen aldeko kezka eta zaletasuna sortzeko “Euskararen adiskideak” izeneko elkargoa sortu zuen 1925ean.

Ez zen gauza erraza. Honela laburtzan du berak une hartako egoera politikoa: “Nafarroan garai artan giro txar-samarra zegoan euskararen-tzat, naiz aipatu dudaz egunariak eta TRADICION NAVARRA egunariak zer edo zer egin. Orduntxe edatzen asi-berria zan Aberzaletasuna. Eta Abertzale ta Karlistak elkar ezin ikusiz zebiltzan eta Naparro geiena orduan Karlista zan. Argatik euskararen alde lan egiten gendunak aberzalekeriz ari ote giñan...

Irudittu ori kentzeko, Karlistak izan arren euskera aintzat artzan zuenak billatu nituan asiera emateko eta kezka gabe lanean asteko. Euskal-jai aietan nor eta nor ziran buru, izlari ta laguntzalle ikustean, pixkanaka giroa ontzan asi zitzaigun eta gero ta arrakasta aundiagoa zuen gure errietan. Aldundian bagenitun gogo guziz eskua luzatzen zigutenak, ume euskaldunei sariak emateko. Bere Aurrezki kutxaren kartillaz ematen genitun diru-sariak”.

Mugimendu berri honen inguruan aita Damasok bereganatu zituen gizonen artean, Inazio Baleztena, diputatua, eta Jenaro Larratxe, Iruñeko alkate ohia, zeuden besteak beste.

Elizaren laguntzarekin kondatu nahi zuen haste-hastetik, eta Iruñeko gotzaia zen on Jose Lopez Mendoza ikustera joan ziran Arturo Campion eta biak, Seminarioan teologo guziei euskarazko eskolak emateko eskatzen. Lortu zuten eta asko lagundu zian horrek Nafarroako apaizen aurrean. Bere inguruan zituen, noski, Miguel Intxaurren, Seminarioko irakaslea, eta Markos Etxarri, Aralarko santutegian zaintzale izana bezala-ko zenbait elizgizon.

Nortasun bereziko profesionalen artean, Fermin Irigaray “Larreko”, eta Bernardino Tirapu, sendagileak, Migel Olibier, Iruñeko Udalean artxi-buko arduraduna, eta abar luzea zegoen.

Aurre-aurrean, noski Arturo Campion, Jose Agerre, Urabayan eta Maria Paz Ziganda, zalantzarik gabeko euskaltzaleak. Azpiegitura zuhurra

eta ondore ezin hobeak izan zituena. Euskal Festetan pertsona haiek ikustean susmo txar guziak haizatzen zirela, aitortu zidan.

Nafarroako Diputazioaren babesean haur euskaldunen sariketak eratu zituzten eta herriz-herri abiatu ziren Aurrezki Kutxako diru sariak banatzen. Ereintza —beti ereiten—, baina etorkizunaren oinarria zen haurtxoen bihotza euskararendako irabazteko asmoz, oraikoan.

Euskarak galtzeko arriskurik haundiena zuen Esteribar, Arakil eta Oroz-Betelu bezalako tokietan agertu ziren lehenik.

Nafarroaren egoera txarrean “Euskeraren adiskideak” bezalako lagun-di bat inolako nekaizkeriarik gabe sortzea, edozein euskaltzale jatorrek beretzat nahiko lukeen merezimendu aintzagarria da. Bego hor denon eredutzat, behar lukeen esker onik ofizialki inoiz jasoko ez badu ere.

EUSKALTZAINDIA

Iruñean 1920an jaso zuen euskaltzain izendapena, eta 1921.eko urtaririlaren 27an irakurri zuen Elizondoko udaletxean bere sarrera hitzaldia. Aita Olabide arabarrak erantzun zion.

Ezin genezake aipatu gabe utzi azken urteotan euskara batua dela eta, berarekin gertatutakoa.

Kezka larriak sortu zizkion arazo honek. Hara, hitzez-hitz, 1968ko urriaren 16an idatzi zidana: “Dakuszunaz ezin asmatu dut Euskaltzaindiaren gaurko idazkeraz egiten. Euzkaltzaindi zaharrak zuan ortografian ordu erdi batez erakusten nien nik edozein ikastoletako aurrei, utsik gabe, idazten eta irakurtzen. Gaurko eran uste dut urte bat beharko dutela neronek artara jarri baño len. Eztiot beste euskaltzain iñori esan; baño zurekin ustu nai dut nere biotza. Min auxe daukat; ainbat gostarik, Euskaltzaindiak lendik zeukan ortografia, ain arin zilipurdika joanik ikustea.

Barkatu, nere adiskide maite, nere lasaialdi hau”.

Horrek ez du esan nahi euskararen batasunaren aurka zegoenik. Haste-hastetik jabetzen zen hizkuntza batu gabe euskarak ez zeukala iraupenik. Euskaltzaindiaren helburu nagusienetakoa, hain zuzen, batasun hori lortzea zen.

Aita Damasok Euskaltzaindiko sarrera hitzaldian esandakoa da honako hau: “Baño nere itzaldi au ez dut bukatu nai, Euskaltzaindiari itz bat eta neri entzutera etofiz ainbesteko omena egin diazuen guziori beste itz bat esan gabe.

Euskaltzain, jaunak; ikusi duguna ikusi ondoan guziori gogoratuko zitzaizuten neri gogoratu zaifena noski; nere lanetik berez jalkintzen den

zifua da-ta. Au da, onenbeste aldaketa ta onenbeste berexotasunekin gure euskerak ez dezake deus irabazi. Irabazi beafean bereixtasun au euskera-
rentzat gauzarik kaltegarrienetakoa da.

Gure berexotasun oiekatik, gure euskera maitagarria pařagari jartzen dugu gure artera datozen erdaldunen begietan, lotsagari elkari ezin adifuz ikusten diran euskaldunentzat eta azkenean gořotagari ta zer esanbide naiko ematen diena, guri ta gure gauzei ařetik gutxi nai digutenentzat. Argatik beařezkoa da euskera batutzea, euskera bizitzekotan.” (Ikus **Eus-
kera** (1922) II, 91.or.).

Hau jakinik, harrigarri gerta daitezke egunkarietan berak egindako zenbait agerpen. Adibidez, behin honela omen zioen: “Batua horrenik ez dago. 1950-eko hamarkadan Ameriketatik itzultzean, Arantzazuko bilera batetara joan eta harriturik entzun nuen lehenengoz nola bi hizlarik euskararen batasuna H letraren bidez egitea proposatzen zuten. Azken 200 urtetan ez dela H-rik gure artean erabili esanez, aditzera eman nuen berehala aurkako nere eritzia”. (*Deia*, 1983. VIII.7)

Bi gauza ikusten ditut nik aita Intzaren erantzun honetan. Chiletik etorri berria zen, alde batetik, une hartan. Bere biziko etendura bat gehiago ikus daiteke batasunaz hasieran berak zuen asmoaren eta ia hogeı urteko erbestez 1956eko Euskal Herrian aurkitu zuen giroaren artean. Bat-bateko aldaketaren gehiegikeria iduritzen zitzaion, beste kaze-
tari bati adierazi zionez: “Bai. Euskaltzaindiak bere sorreratik asmo hori izan zuen; baina arreta haundiarekin eta zentzuz egitekotan”. (DN.19.X.1984)

Urteak, noski, ez dira alferrik igarotzen eta hogeıtaka urte kanpoan egon ondoren beretzat bat-bateko gehiegikeria gerta zaitekeen, egunero-
ko bizian hemen urrats motza, eskasa, ematen zela uste zutenen ondoan.

Nere ustez, irekitasunarekin begiratu behar da hainbeste nahigabe eman zion arazoa, ulergarria baita Euskal Herritik urruti zebilelarik.

H hizkian arazo guzia kokatzea beste hari askorekin lotutako korapi-
loa da. Orduko giroan garrantzi haundia eman zitzaion “letra mutuari” eta alderdi horrek bereganatu zuen gizona.

Erizpide zalantzarriak alde batera utzita, Intzako Damaso aita gizon osoa, fededun zineza eta euskaldun sutřua izan zen bere bizian. Horrek ez du esan nahi bizia bere gustura egin zuenik. Nagusien esanera egon zen beti eta alderdi horretatik arintzen zituen nahigabeak. “Euskal-erritik lenengo aldiz atera nintzenean, nere gogoz ezpařo nere Nagusiak agin-
durik atera nintzan. Orain nere gogoz aruntza itzultzean ango gure Nagu-
sien eskura zegoan gelditzeko esatea behar baninduten”, aitortu zion Tauer euskaltzaleari. (Chile-tik, 1958.IV.23)

Eta nola bizi hala hil. Gogoari uko eginez apaltasunaren bidean ibili
zen gizona, berari zegokion eran joan zaigu. Duela urtebete Euskaltzain-

diak ehun-urteburuan egin nahi zion omenaldiaren berri ematean, ez zela horretara iritsiko, aditzera eman zidan buruari eraginez. Hil zen aurreko astean festaren berri eman nionean, eskuarekin gurutze bat eginez airean, eman zidan, hitzik gabe, azken erantzuna. Eta hala izan da.

Ongi begiratuta, beti egin zuena: ereintza. Jainkoaren aurrean jasoko zuen esker ona eta sari iraunkorra.

LABURPENA

Migel Olasagarre Zubillaga, erlijioan Intzako Damaso aita izango zena, Nafarroako Intza herrian jaio zen, 1986eko urriaren 19an. Bi urte zituela aldatu zen familia Madotz-a.

Ikasketak. 1900an Iruñeko Seminaria joan zen. Bi urteren buruan, Tuterako kaputxinoen komentuan sartu zen, 1902.eko abuztuan. Iruñean apaiztu zen 1910ean.

Idazlanak. Bi aldizkari sortu zituen: *Irujarren Prantziskotarra* (1913), *Zeruko Argia* (1919). *Naparro-ko aditz-laguntzalea zuketako esakeran* (1921), *Burundako Euskalkia* (1922), *Kristau ikasbidearen I-ko ta II-garren zatia*ren azalpena (1924), *Naparroako Euskal-esaera zarrak* (1974), Aldizkarietako idazlan txikiak bestalde.

Itzulpenak. Asteteren *Kristau Ikasbidea*, *Xabierko Frantzisko santuaren bederatziurrena*, *Giza biziaz* (Humanæ vitæ enziklika), *Adoingo Esteban doatsuaren bizia*.

Elkargoak. *Euskararen adiskideak* berak sortutakoa da (1925). *Euskaltzain* izendatua izan zen Iruñean Jose Agerre-ren ordezkari (1920). Sarrera hitzaldia Elizondoko udaletxean eman zuen 1921eko urtarrilaren 27an. 1936an Chileko misiora bidali zuten nagusiek eta bertan jarraitu zuen 1968 arte.

Heriotzea Iruñean gertatu da kaputxinoen Errotazaharreko komentuan, 1986.eko irailaren 21ean. Ehun-urteburua ospatzeko egitekoa zen batzarrea, urriaren 24ean egin du Euskaltzaindiak Lekunberriko Ayestaran hotelean.

OIEREGI-KO BUENAVENTURA AITA (1886-1956)

Larraun-Lekunberri, 1986-X-24

Patxi Ondarra

Aurtengo abenduaren 7. egunean ehun urte direla jaio zen Bertizarana-ko Oieregi herrian Joaquín Eugenio Plácido Senosiáin (1) Ochoteco; gero, kaputxino egin zenean, Oieregiko Buenaventura A. izango zena. Gurasoak kanpotarrak zituen, Aita, Dionisio, bide begiraria (2), Iruñekoa zen, gurasoak Lizarra eta Espartza-koak zirela: José eta Celedonia Yoldi; ama berriz, Jesusa, lesakarra zen eta gurasoak ere bertakoak ziren: José Ignacio eta Carmen Iribarren.

Hamabi urterekin sartu zen Iruñeko apaiz mintegian eta bertan lau urtez (1899-1903) humanitate ikasketak egin zituen, bakantzetan herrira itzultzen zelarik. Humanitateak bukatu ondoren, Zangoza-ra abiatu zen (1903) kaputxino izateko eta hurrengo urtean (1904) kaputxino egin zen. Filosofiako hiru urteak Tuteran ixtudiatu zituen (1904-1907) eta teologia-koak Iruñean (1907-1910), hemen apaizten zela teologia amaitu ondoren (1910), eta predikari titulua 1912. urtean lortzen zuela.

Ikastaldiak bukatu eta gero, honako komentu hauetan bizi eta lan egin zuen: Iruñean (1910-1912), Hondarribian (1912-1915), Altsasun (1915-1918), Iruñean berriz ere (1918-1920), Lizarran (1920-1921), Altsasun (1921-1928), Hondarribian (1928-1933), Altsasun (1933-1934), Hondarribian (1934-1936) eta Lekarozen (1936-1956), hemen hiltzen zela. Gudu hasi baino lehentxeago, hortzak gaizki zituela-ta, Lekarozera joan zen, horretan oso trebea zen Etxalarko Frantzisko Anaiak trata zezan; eta Lekarozen harrapatu zuen guduak.

Horregatik, azkeneko 20 urteak hor egin zituen, predikari bezala. Bi eta hiru mezatan predikatzen zuen igandeetan, euskaraz ongi zekiten gehienak munduko lau aldeetara sakabanatuak izan zirelako.

(1) Deitura ez da Pérez (de) Senosiáin, baizik eta Senosiáin; eta hirugarren izena Plácido da.

(2) Aita ez zuen izan eskola maisu, Damaso Aitak esanda, batek baino gehiagok argitaratu duten bezala. Oieregioko eliza liburuek diotenez, "celador de caminos" zen. 1888. urtean hil zen.

Alaia, onutsa, animen alde langile nekaezina, Elizarekiko atxikimen haundikoa. Bizitza osoa apostoladutzan igaro zuen, parrokuai laguntzen, predikatzen, euskaraz idazten, hirugarrendarrei kasu egiten.

Belarriek entzuten eta haizeak eramaten duen hitzaren ondoan begiek ikusten eta gorde daitekeen hitzaren zale eta langile bilakatu zen. Hasiera hasieratik ekin zion irakurgaiak zabaltzeari eta aldizkariak sortzeari. Predikari titulua lortu eta hurrengo urtean, berak eraginda, jaio zen *Irugarren-go Prantziskotarra*, *Damaso Aita* zuzendari zelarik eta *Oieregik* maiz idazten zuelarik, *Arbelaitz*, *Osinburu* eta *O-tar B.* izenordeak erabiltzen zituela (3).

Sei urte geroago (1919) hasi zen *Zeruko Argia*, hau ere berak eragin-da eta berriz ere *Damaso A.* zela zuzendari. Gudu ondoan, eta hemezortzi urtez isilik egon ondoren, berak berpiztu zuen *Zeruko Argia*, zuzendari ere bera zelarik, eta *Elizalde* izenorde berria erabiltzen zuelarik. *Damaso A.* bitartean *Txilen* zegoen, animen alde lan da lan, eta Euskalerriaz bat ere ahaztu gabe. Baso eta oihanetan egurketan ari ziren mutilez kezkatu-rik, hamabost egunero banatzen zuen azken urteetan (1951-1956) multikopiaz egindako orri bat, *Artzai Deia* izeneko-koa. Ameriketako artzaie-tara ere ailegutzen zen dei hori, herrietako berriekin eta kristau ikasbideekin.

Haurrendako aldizkari baten atzetik ere ibili zen, baina ezin izan zuen gorpuztu, oso garesti zirelako irudiak. Honen berri *Lizartza-ko Andres* Aitak ematen digu, Lekarozen irakasle eta Txinan misiolari izan zenak. Gordetzen da berak euskaraz idatzitako paper multzo bat, eta honela irakurtzen dugu:

“Etorri da Oyeregi”tar Bonabendur A. Aba begizko au (sic) gogor diardu, euskerazko aurren aldizkingia eta euskal idazti onen aldezko Bazkun bat irasteko lanetan” (1923, XI-30).

Damaso A. ere lagun zuen arazo honetan, Lizartzak dioenez: “Gaur etorri da Intza’r Damas Aba eta onek esan digunez, aurren euskal aldizkingia ez da aterako noski, txindi bearragatik. Ateratzeko Italia’ko beste aldizkingi batekin ari ziran artu emanetan, Nunzio jaun agurgarriak ere ortarako bultzatzen zuala edo, baña irudiak oso garesti ematen dituzte eta eziñezkoa bezela edo utziko dute noski” (1924, I-17).

Bi urte ta erdi lehenago aurkitzen dugu euskal idazleen elkarte bat eratze-ko ahaleginetan murgildurik, Lizartzan irakurtzen dugunez: “Nagu-

(3) S. Onaindiak dioenez, *O.* ere erabili zuen izenordetzat. Egia esan, izenorde hori lehenbiziko aldiz 1936. urteko *Irugarren-go Prantziskotarra*-n ageri da: 125, 132, (140) eta 148 or.; eta gero gudu ondoko *Zeruko Argia*-n, 1954 eta 1955 urteetan. Cf. Onaindia. *Euskal Literatura*, IV, 368. Argitaratu gabe dauden idazkietan *Oianegi* eta *Yoldiko Juakin A.* ere agiri dira.

si A'k esan didanez, illabete onen 26'an, gure ikastetxe ontan Euskeldazle batzar bat edo egingo omen da; Oyeregi'tar Bonabendur A'k edo asmatua izango da noski. "Jaungoiko-Zale"ren artezkari Jauna Oyeregi ta Damas AA. eta abar etorriko omen dira" (1921, IV-21). Eta berriz ere: "Artzubiaga'tar Kuiril Jauna Oyeregi'tar Bonabendur eta Intza'r Damas AA.kin beren batzartxoa egitea (sic) edo etorri dira" (1921, IV-25). Eta beste hau: "Irastea asmatu duten batzaren (sic) araudia egiñik utzi dute, eta eldu den illaren 16'an batzar bat Donosti'an egiteko asmotan dabiltz" (1921, IV-27). Eta azkenik: "Oyeregi A'k eta asmatutako batzarra Donosti'an Aldundi-Jauregian, gaur izango zuten noski" (1921, V-18) (4).

Lizartzak jakitera ematen digunez, beste bide bat ere zabaldu zuen Oieregik euskararen faboretan: otoitza. Entzun dezagun: "Abakide mordoxka bat, txandaka illero egun batez, gure Aberriaren eta Euskeraren alde gurutze bidea egingo degula, itz-artu-ta gaude. Oyeregi A'k gaur bialdu digu, zer egunetan egingo duan bakoitzak" (1922, V-16). Beste batean, Oieregiren gutun batetik pasarte hau ematen du: "Berri ona: Donosti'an gurutze-bidea egiten dutenak 600 ta geiagorano iritxi dira: badira oien artean jeltzaleak ta ez-jeltzaleak: beraz gure Donosti'ko batzarrea ezta alperrikakoa izan. Lenago 4'en bat talde ziran ta orain 20 ta geixeago" (1924, V-25).

Haurren aldizkaria ez, aipatu ditugun beste asmo guziak gorpuztu zituen. Beste amets bat ere izan zuen, amets hutsetan gelditu zena: euskal eguneroko bat argitaratzekoa. "Euskal-Esnalea" aldizkarian astintzen du gai hori. Bertan dioenez, "egunerokoak euskerari indar aundia emango lioke, ta batasunerako bideak gertu edo prestatuko ditu" (1917, 73s. or.). Nork idatzi? Denak: jakintsuak eta jakinezak. Zer eta zertaz idatzi? Ipuiak, izkirimiriak, neurtitzak; nekazaritzaz, langileen eginbeharez, arrantzaleen gauzez, erlijioaz, salerosteaz, edestiaz edo kondairaz, abereak hazitzeko eraz, eguneroko gertaerez, haurren hazieraz etab. Politika ez du aipatzen gaien zerrendan.

Gero (Ib., 1917, 113s.) berri biltzaleen beharra ikusten du, eta besteak beste, hau dio: "Amerika'n, Ozeania'n, Asia'n ta Afrika'n izango lituzke euskerazko albistariak, misiolari euskaldunak alde guzietan barreaturik daude-ta. Ontan erderazko albistari guziak atzean utziko lituzkela uste det".

Hartzaileen arazoa ere tratatzen du eta oso baikor ageri da, honela bait dio: "Egunaria atera baño len labea nola dagoan ikusi bear da ta ni ikusi naiez nabill; itxuraz berotxo dago. Ara zergatik diodan. Dagoaneko

(4) Cf. B'tar P. (Federico Belausteguioitia). *La unificación del euskera*. Bilbao (1916). Liburuxka hau irakurri ondoan idazten du Oieregik bere artikulua.

badira 530 arpide *iya egiñak* (kurtsibaz orijinalean), argitaratzea nai degun egunariarentzat” (Ib., 1918, 88).

Euskararen batasunak ere kezkatzen du eta hau dio: “Euskerazko idaztiaz gertatzen dana oso latza da gero; bizkaieraz idatzi ta Bizkai’an bakarrik irakurri; laburdieraz ta zuberoraz, ta berdintsu. Ta, oraindaño-ko bideari jarraitzen ba gatzazkio, inoiz izango ditugu eguneroko albistari aundi ederrak? Nik uste inoiz ere ez” (Ib., 1916, 245s.). Bat dator Federiko Belaustegigoitiarekin bai batasun asmoz eta bai idazkeraz ta hitz berriez dioen guztian. Eta eransten du: “Gogoak ematen dit ainbeste itz berri asmatzea ta ain euskera zallaz idaztea, gure idaztiak ta iztegiak gutxi erabiltzetik datorrela”. Gipuzkoera proposatzen du euskararen batasunerako, bera naparra izanik, “*bortz, ortzegun ta erran* esaten diran errikoa” (Ib., 1916, 245s.).

Gai honetaz berriz ere **Euskera** aldizkarian hitz egiten du. Galdetzen du: “Euskera batu bearrik bai al dago?”. Eta erantzuten du: “Irakurgaiak indar aundia artzekotan bearrezkoa da; bearrezkoa da izkelgi bat Euskalerri guzian edo geienean aditzea... Egunaria bear dugu, egunari aundia ordea ta gaurko egunean zailla dana, izkelgi bat autatu ezkerro erraztu egingo litzeke”. Zein hautatu? Berak ez du dudarik egiten gipuzkoera hautatu behar dela, bada “Bizkaian izkuntza ontan egindako itzaldiak aditzen dituzte, Naparruan ere bai, Lapurdi’n ere berdintsu izan bear du, auzoan dago ta”, dio (**Euskera**, 1922, 101s.). Egia esan, Oieregik gipuzkoeraz idatzi ohi du.

Batasun bide konkretu bat azaltzen du beste bi lanetan (Euskal-Esnalea, 1924, 141-146, 165-169). Beste bi lan ere ageri dira aldizkari horretan arazo honetaz, eta horietako lehenengoan dio: “Euskalkien batasuna egiñik al dago? Erdi-egiñik beintzat bai. Ta aditza edo berboa kendu ezkerro, iya oso egiña dagoala esan ditekete, nere ustean, okerrik egin gabe”. Bere baikortasun hori hiztegian edo lexikoan oinarritzen du, eta baikortasun horrek eta batasunaren ardurak bultzatuta hiztegi bat argitaratuko du 1929. urtean (Ib., 1925, 141ss.; 1926, 181s.).

Euskararen batasunaren premiak ez du ordea itsutzen, eta konkretuki bizkaieraz edo Bizkai-ko euskaldunaz ez da ahazten. Horregatik, argitaratu gabe gelditu diren beraren paperetan jorratzen du alor hau teorikoki eta praktikoki. Izan ere, argitaratzeko prest zeukan lan batean, bizkaieraz eta gipuzkoeraz edizio (5) bereziak egiteko seinaleak ipintzen ditu.

* * *

(5) Cf. gure lan honen bukaeran. “II. Oieregiren lan argitaragabeak” sailean, 19. zenbakia.

Oieregiren idazkietara gatzela, esan dezakegu hirurehun bat lan argitaratu zituela honako aldizkari hauetan: *Irugarrengo Prantziskotarra*, *Zeruko Argia*, *Euskal-Esnalea*, **Euskera** eta Donostiako *La Cruz* izenekoan. *Zeruko Argia*-n agertu zen multzo luzetxo bat *Quadragesimo Anno* entziklikaren itzulpena da.

Liburuak eta liburuxkak bederatzi dira, gehienetan erlijioarekiko gaiak osatzen dituztela: Jesukristoren Bizitza, herriarendako liturgia eta euskal-erdal, erdal-euskal hiztegia. Iruñean, *Archivo Provincial de Capuchinos* delakoan gordetzen diren lanak, argitaratu gabeak, ez dira gutxi. Horietan ere erlijioa eta euskara dira gaiak. Erlijioaren arloan hauek dira nagusi: kristau ikasbidea, apologetika, sinismena eta katoliko ekintza. Euskararen arloan: euskal irakurgaiak nola erraztu eta batasunera eramán, bizkaiera eta gipuzkoeraren arteko desberdintasunak nola gutxitu, erdaratik euskararako itzulpenak nola egin, erdal-euskal hiztegi erlijio eta gizarteko lexikoa dakartenak moldatu, etab.

Esan dugun guztia entzun ondoren ez da inor harrituko Euskaltzaindiak hasiera-hasieratik bere urgazle egin zuela jakiteaz. Lizartzak ematen digu honen berri, honela (6): “Atzoko izparringitan irakurri det “Euskal-Zaindia”k Oyeregi’tar Bonabendur A. bere laguntzaletzat edo autatu dula (Académico correspondiente)”. 1921. urteko martxoaren 4. egunean idazten du hori.

I. OIEREGIREN LAN ARGITARATUAK

1. Jesukristo gure Jaunaren Bizitza. EGILLEA Mataro’tar Pelegrin O.M. Cap. ITZULTZALEA *Arbelaitz O. M. Cap.* Iruña’ko Kaputxino’en Irarkolan (1921), 1-87 or.

2. Gaurko Izkillu edo Arma. (IRAKURGAIK). *Arbelaitz kaputxinoak* itzulia. NOTA. Aita Samuele Cultrera Kaputxinoa (da egilea). DONOSTIA, 1922, 1-102.

3. PENTEKOSTE. *Arbelaitz A. O. M. Cap.* Erriarentzako Liturgia. IRUÑA, 1930, 41-52.

4. Pentekostes-ondorea. *Arbelaitz O. M. Cap.* Erriarentzako Liturgia. IRUÑA, 1930, 53-62.

5. Billebaiketa edo Zirkunzizio-Jaia. ARBELAITZ O. M. Cap. Erriarentzako Liturgia. IRUÑA, 1931, 1-11.

(6) *Euzkadi* edo *La Gaceta* egunkarietan izan daiteke honen berri.

6. Erramu Igandea. Arbelaiz O. M. Cap. Erriarentzako Liturgia. IRUÑA, 1931, 27-38.

7. Bezperak. ARBELAITZ O. M. Cap. Erriarentzako Liturgia. IRUÑA, 1932, 1-64.

8. Diccionario Castellano-Vasco y Vasco-Castellano de voces comunes a dos o más dialectos. Bilbao, 1929, 1-357 eta I-X or. NOTA. Gehigarri bezala liburuaren bukaeran hau dakar: "Observaciones para evitar, en cuanto posible, las diferencias verbales de los dialectos bizkaino y guipuzkoano". Gudu ondoan bi aldiz argitaratua.

II. Oieregiren lan argitaragabeak

Archivo Provincial de Capuchinos izenekoa, Iruñe-ko Errotazar kalean dagoenean, gordetzen dira Oieregiren paperak.

1. Belarmino - Oianegi, O. F. M. Cap. KRISTAU IKASBIDEA AZALDUA ETA AUSNARTUA Ikasbideakin eta Gogarte edo Meditazioekin, 253 or. NOTA. Lan guztiak makinaz daude, tarte bikoitza, folio erdikoak.

2. CLAUDIO FLEURY. EDESTI - KRIST(IN)AU - IKASBIDEA, I, 46-172 or.; II. 173-392. NOTA. Gipuzkoera eta bizkaiera nahasturik.

3. Ataungo Ilario A., O. F. M. Cap. KRISTAU IKASBIDEAREN ERAKUSLEA. Itzultzalea: Oianegi, O. F. M. Cap. I - ZER SINISTU. I-X, I-XXVIII, 370; II - ZER ESKATU. 370 (sic) - 691. NOTA. Honen ondoan eta berarekin erlazonaturik, beste 1-96 or.

4. Oianegi, O. F. M. Cap. VOCABULARIO RELIGIOSO-SOCIAL por Orden de Materias. I. FUNDAMENTOS DE LA RELIGION, 1-72; II, DOGMA Y MORAL, 1-130; II. VOCABULARIO SOCIAL, 1-69.

5. Vocabulario Social, 1-20.

6. Vocabulario Social CASTELLANO-VASCO (Llovera). 1-20.

7. VOCABULARIO SOCIAL. 1-16. NOTA. *Rutten* Aitaren "La Doctrina Social de la Iglesia"tik hartua.

8. VOCABULARIO DE ACCION SOCIAL CATOLICA. 1-22. NOTA. *Guerry-Peiró*-renetik hartua edo bildua: "Código de Acción Católica". 1932.

9. VOCABULARIO RELIGIOSO-SOCIAL IDEOLOGICO CASTELLANO-VASCO. 1-15.

10. Vocabulario popular religioso-social. II. VOCABULARIO POPULAR RELIGIOSO. 1-12.

11. (*Estalkian*) *ADITZA ERRAZTU TA BATUARENTZAKO AGIRIAK* (1. orrialdean) *AGIRIAK* - Documentación. Aditza laguntzalea uztea - Supresión del verbo auxiliar. 1-7.

12. *OIAN-EGI. TRADUCCION DEL CASTELLANO A LA LENGUA VASCA. ENSAYO DE NORMAS PRACTICAS. 1-9. NOTA.* Izen honekin hamar bat paper multzo eta horietako batean: "8.^a red(acción)".

13. *DOCUMENTACION REFERENTE A TRADUCCION DEL CASTELLANO A LA LENGUA VASCA. NORMAS PRACTICAS. 1-21.*

14. *OYAN-EGI, O.M.C. PROCEDIMIENTOS EMPLEADOS EN LA VERSION AL EUSKERA DEL CODIGO DE ACCION CATOLICA DE GUERRY-PEIRÓ. 1-15.*

15. *ASZETIKA GAIAK. 1-11. NOTA.* Erdaraz dago, eta gai zerrenda bat da.

16. Diario perteneciente a "Artzai-Deia". PP. Capuchinos-Lecároz. *NOTA.* "Artzai-Deia"ri dagozkion diru kontuak, 1950. urtean hasi eta 1955. urtea, abenduak 14, arte. Aldizkari horri dagozkion beste gai asko ere badira karpeta horretan.

17. *IDAZLE MALTZURRAREN GRAMATIKA NABARRA. 1-13. NOTA.* Bizkaiera eta gipuzkoeraren desberdintasunak gutxitzeko aditzaren inguruan.

18. *NOTA.* Sermoiak dira, 17 bat prediku (7). Zaharrena Irañeta eta Bakaiku-n 1922. urtean predikatua; berriena 1952. urtean, Irurita eta Lekaroz-en.

19. Zergatik sinistu? Arbelaiz, O. M. Cap. 1-8, 1-71, 1-81, 1-3 (Billabidea), 1-18. *NOTA.* Inprentarako prest dagoela ematen du, eta gipuzkoeraz eta bizkaieraz edizio bereziak egiteko idatzia dago.

20. *OIAN-EGI, O. F. M. Cap. VOCABULARIO POPULAR RELIGIOSO-SOCIAL, 1-4, 1-212, 1-10 (Apéndice). NOTA.* Sarrera oso interesgarria autorearen pentsamoldea eta lexikoarekiko irizpideak ezagutzeko (8).

(7) Badira beste 4 bat sermoi han eta hemen sakabanatuak.

(8) Hitzaurrean, besteak beste, hau irakurtzen dugu: "(Para ser) popular he huido del excesivo purismo... he dado cabida a algunos (neologismos) que no agradan del todo a un gran vascófilo de los que conocen mejor nuestra lengua, escritor, traductor, predicador que conoce el lenguaje popular como pocos".

Gero eransten du: "yo estoy arrepentido de los errores de mi primera juventud; que los jóvenes que me lean no tengan el día de mañana necesidad de arrepentirse como yo".

Goián aipatu duen euskal idazle, itzultzaile eta predikari hori *Iraizoz-ko Polikarpo A.* izan daiteke, gure ustez.

21. Guerry-Peiró. KATOLIKO-EKINTZARAKO ZUZENBIDEAK. (I), I-VII, 1-197. NOTA. Oieretik hiru gehigarri erantsi ditu: 1926. urtetik aurrera atera ziren Aita Santuen ageri hauek, hots, 1. Gazteriaren Haziera Kristaua, 2. Ezkontza Kristaua, 3. Gizarte-Era edo Ordenaren Berritzea izeneko Enziklikak.

22. (Pakete batean gauza asko): 1. Meza Alkarrizketan; 2. Zergatik sinistu?; 3. Erlijioaren Edesti (Istori) Laburra; 4. Nere Erlijioa. Bi Itz; 5. III Zatia. Erlijioa. Goieneko Malla; 6. Duplessy. Uzkuztza edo Erlijioa pitinka. Sinistu Bear Dana; 7. (Lenengo Irakaskintzarako) Jakinduriak Uzkuztzaren Inguruan; 8. IV Kristau Ikasbidearen Banatzea ("distribución"); 9. Eliza Katolikoa; 10. Ekintza Katolikoa; 11. Kristau-Ikasbidea eta Meza-Liburua; 12. Ebanjelioak eta Kristau Ikasbide Gaiak; 13. Igan-deko Ebanjelioa eta Kristau Ikasbidea; 14. Astarloa-Oianegi. Urteko Igan-de Guztietarako Kristau-Ikasbide Itzaldiak, 1-27 or.; 15. Euskal Idazti eta Antzerki Izendegia. NOTA. Estornés Lasa-ren "Historia del País Basko-tik hartua; 16. Idazti Donea (Schmitt), 10 or.; 17. Liturjiaren Zimendu Egiak; 18. Sinismenaren Zergati edo Arrazoiak; 19. Kristau-Ikasbidea Jesukristo gure Jaunaren Eskolan; 20. Zergatik Katolikuak izan; 21. Katolikuak Izan Bear Degu; etab.

23. ARGIA, BIDEA, BIZIA, KRISTAU IKASBIDEA LABUR AGERTUA. Egillea: Yoldiko Juakin A. O. F. M. Cap. 1-648. NOTA. Prentsarako prest zegoen, *Nihil obstat* eta *Imprimi potest* eta guzti: 1950. urtean.

24. *Carpeta Personal* delakoan: 1. Oieregiren "Curriculum Vitae"; 2. Ataungo Ilario-rekin gutun eta zuzenketa Kristau-Ikasbidea zela-ta; 3. Apaizen eta parrokuen gutunak *Artzai-Deia* zela-ta; 4. Ordenako nagusiei gutunak gai horretaz; 5. *Guía del Catequista*-ren itzulpena argitaratzeko hartu-emanak.

AITA DONOSTIA ERBESTEAN

Lekunberri, 1986-X-24

Jose Antonio Arana Martija

Euskaltzaindiak Aita Donostiari zor dion omenaldia ospatzera goaz euskaltzain urgazle honen jaiotzako mendeurrenean eta heriotzatik hogei-tamar urte betetzen direnean. Donostiako Jose Antonio zenaren biogra-fiaz saiaturan, musika ikuspegitik aritu izan dira gehien bat biografoak eta mendeurreneko urtean zehar musikua nortasuna baizik ez da aztertu; egia esan, musikegile trebea izan genuen Aita Donostia eta musikaz ikerle eta hizlari fina. Baina musikegile gisa eman bazituen bere lehen urratsak —eta luzeenak, behar bada— ez dugu ahaztu behar euskal folkloreak eman ziola bere biziaren zati eder bat, 1916an hasita. Eta folklorea, hots, herri jakituria aztertzerakoan, hizkuntzari, euskarari eman zizkion gau eta egunetako orduak. Mendirik mendi, baserriz baserri biltzen zituen kantuen testuak, euskarazko hitzak, hain zuzen, izan zituen aztergai. Horregatik, euskararen alde egindako lanegatik, Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen, eta horregatik, orain, gogoramen bat zor dio. Sarrera hitzaldia 1955.eko Abenduaren 31n bukatu zuen Lekarotzen eta 1956.eko Urtarrilaren 26an, Euskaltzaindiaren hileroko bileran, irakurri zuen Donostian (1).

Jose Gonzalo Zulaika Arregi —hau zen bere munduko izena— Donos-tian jaio zen 1886.eko Urtarrilaren 10ean. Lekarotzeko Kaputxinoen komen-tuan Batxillergoa bukatu ondoren nobiziagoan sartu zenean aitaren eta jaioterriaren izenekin osatu zuen bere bizi guztirako praila izena: Jose Antonio Donostia. Esan dezagun hemen, aurrera jo orduko, gerra den-boran eta geroago, orduko ahalmen handiko burutxikien erruz, jaioterri-ko euskarazko izena aldatu egin behar izan zuela eta garai hartako musikalan batzuetan, inprimatuetan noski, Jose Antonio de San Sebas-tian azaltzen zaigula. Garai berean, ixilpean ibili behar zuenean, “A. Zabala” izen ezkutuarekin sinatzen zituen orduko musikalanak.

(1) *Egan*, 1956-2, 34-52 orr. - O.C. V, 1985, 351-371 orr.

Hirurogeitamar urte bete zituelarik hil zitzaigun Aita Donostia Lekarotzen 1956.eko Abuztuaren 30ean, orain hogeitamar urte duelarik. Ekin-teez bete zuen bere bizitza luzea; hain ezaguna eta adiskide izan zuen Querol-ek esaten zuenez, hiru motore bultzegile izan zituen: Euskal Herria, Erlijioa eta Musika. Abertzale fina, garbia eta oso-oso izan zen gure prailea. Eta izaera honek ekarri zion ondorea da gero ikusiko duguna. Baina munduan zehar ibili arren, —Argentinara ere heldu zen erlijiozko mezu batekin—, ez zuen bere erlijiozko nortasuna ahanzten: “el frailecito andariego con el claustro a cuestras” definizioa eman zion andere idazle batek. Eta bere nortasunaren hirugarren zutabea musika izan zen zalantzarik gabe. Beraz **Euskaldun praile musikua** izan daiteke Aita Donostiaren definizioa.

1908an Lekarotzen apaiztu zenetik hamar urtetan zehar bertako ikas-tetxean irakasle izan zen, 1918 arte. Sasoi hartan gregoriano ikasketak bete zituen Silos, Besalu eta Solesmesen, eta bere musikalanetatik ederreren bat burutu zuen, **Euskal Preludioak**, pianorako eginak, baina orkestraz ere jotzen direnak. Eta Lekarotzeko hamar urteko epe horretan burutu zuen inguruetako kantu bilduma ere, **Euskal Eres Sorta** izenarekin 1922an argitara eman zuena.

Norberto Almandoz-ekin doa gure Aita Donostia lehendabiziz Parisera 1920an, Vincent D'Indy-ren Schola Cantorumera. Eta hurrengo urtearen hasieran, 1921.eko Urtarrilaren 23an, bere musikalan luze bat aurkeztzen digu Parisen: Henri Gheon idazlearen testuei jarritako musika, **Les trois miracles de Ste. Cécile**. Maurice Ravel ezagutzen du orduan eta honen gomendioz Eugene Cools hartzen du irakasletzat. Lehen aipatu dugun Argentinarako bidaia burutzen du 1924an, eta berriz Parisera etorrita, 1926.eko Azaroaren 1 eta 6an, Champs Elisées antzokian, **La Vie profonde de Saint François d'Assise** estreinatzen du. Henri Gheon idazlearen testuekin hirugarren musikalan bat ere burutzen du, **Le Noël de Greccio**, hau ere Parisen 1936.eko Otsailaren 9an aurkeztua. Laugarren testu bat ere musikatuko dio idazle honi 1938an, hots, **La Quête heroïque du Graal**. Baina azken hau erbestean bizi delarik, alegia.

Momentu honetara iritsi nahi nuen —eta heldu behar ere bai— hau baita nere gaurko hitzalditxo honen gaia. Eta Aita Donostiaz hitz egitera-koan, haxe zela —uste nuen— gairik interesgarriena, bera bait da gutien ezagutzen den bere bizitzaren pasartea. Nik dakidanez, ez du inork Aita Donostiaren erbesteaz ezer idatzi, eta bazen garaia zeezer patxadaz esateko, esan eta idatzi direnak, gehienetan oker daude eta. Erbestearen kronologia emateko erbesteratua bera izango dugu iturri, eguneroko gertakizunak Lekarotzeko Artxiboan Aita Riezuk gordetzen dituen koadernoetan idatzita utzi zizkigun eta.

Hiru aldi bete zituen Donostiako Jose Antoniok erbestean, 1936-1943 urteen bitartean:

1936-XI-03 / 1939-XI-26 Toulousen
 1939-XI-26 / 1940-VI-11 Parisen
 1940-VI-11 / 1941-V-14 Mont-de-Marsan-en
 1941-V-14 / 1943-IV-1 Baionan

Azken aldi hau, nahiz eta Euskal Herriko Baionan igaro, erbestera gisa eman zuen Aita Donostiak, Hego Euskal Herrira itzuli ezinik aurkitzen zen eta. Beraz Baionan amaitu zuen desterrua. Irakurria dut Baionan hasi zuela erbestea 1936.eko Uztailaren 18an; eta ez da egia. Egun horretan, Espainiako gerra hasi zen egun berean, Donostiatik Baionara joan zen Aita Donostia, baina ez erbestera. Irungo muga zabalik zegoen eta La Argentina dantzariarekin joan zen gure prailea Baionara, goizean Donostian euskal dantzen saio bat Antonia Mercé horri aurkeztu ondoren. Gau hartan bat batean hil zen dantzari hori Baionako Miraflores Enean, Aita Donostiak komentutik goizaldean hurbilduta azken sakramentuak eman zizkiolarik. Hurrengo egunetan Baionatik Sarara bitartean ibili zen Aita Donostia, Lerenboure eta Intxaustirekin errefuxiatuentzat etxeak biltzen, asko bait ziren Nafarroatik zetozenak. Baina Abuztuaren lehen egunetan berriz zegoen Lekarotzen gure prailea. Egun haietan, hurrengo urtean ospatu beharko zen omenaldi bat antolatzen zebilen Aita Donostia, Jean-Dominique-Julien Sallaberry-rena. Maulen 1837an jaioa zen eta laster beteko zen mendeurrena. Eusko Ikaskuntzako Musika Sailaren Burua zenez, berari zegokion omenaldi hori antolatzea, eta horretan zebilen gerra sortu zenean.

Aita Donostiako Jose Antonioren desterrua Azaroaren 3an hasten da. Arratsaldeko 6retan, Aita Riezu Iruñera doa, Argentinarako bideetan, eta Aita Donostia, ordu berean, Dantxarineako mugarantz Frantziako Toulouserara iristeko asmoetan. Azaroaren 6an heldu zen hiri horretara, Ataungo Aita Bonifazio bertan aurkitu zuelarik. Hiru urte beteko ditu Toulousen, Parisera, Bordelera eta Baionara noiz behinean bidaiak burutuz. 1937.eko Otsailaren 11an Azkainera doa Urreta jaunarekin ezkondua den arreba Maria ikustera, lau edo bost egun bertan familiarekin egonez. Otsailaren 18an berriz dago Toulouseko komentuan. Konposaketari ekiten dio eta hitzaldiak prestatzeari. Musikalanean artean aipatu beharko genuke Otsailaren 24tik Apirilaren 8 arte, hau da, hile terdian, **Pasioaren Poema** amaitu zuela. Beste lan batzu ere burutu ditu egun hauetan: **Qué seria yo sin ti**, Amabirjinari Kantiga, **A la fontaine de Beleria**, **Envoi**, kantu eta pianorako, **Chansons Landaises**, **Enfantines II**, **Betharram jeu scénique du Centenaire**, eta abar. Idazlanen artean burutzen dituenak hauek dira: **La chanson basque et son harmonisation**, **A propos du cantique "Jesus gurutzerà"** eta **Quelques observations sur la manière de recueillir des chansons populaires**. Azken lan hau irakurtzeko Abuztuaren 19an Parisera joan zen, bertan 23tik 28ra II Nazioarteko Folklore Biltzarrean parte hartuz. Irailaren 15rako berriz zegoen Toulouseko komentuan.

Hurrengo urtean, 1938an, Toulouseko Komentuan oraindik zegoelarik, beste osteratu bat egingo du Parisera, Maiatzaren 4tik Ekainaren 27rarte. Rue Boissonadeko 26. zenbakian dagoen Kaputxinoen komentuan ostatu zen oraingo honetan. Opor alditxo bat hartu zuen Abuztuaren Bordeleko Komentuan ostaturik. Eta Irailaren 14an Clermont Ferrand-en antolatutako Hirugarren Ordenako Batzarrera joan zen, berriz Toulouse-ra itzuliz. Hemen burutuko du, urtea amaitu orduko, **La Quête heroïque du Graal**, Henri Gheon idazlearen testu bat musikaturik.

Ia beste urtebete iraungo du Aita Donostiak Toulousen, 1939.eko Azaroaren 26rarte. Otsailaren 4an osteratu bat egin zuen Carcassone-ra eta luzeago bat Parisera Martxoaren 15etik Ekainaren 3rarte. Pariseko osteratu guztietan, baita oraingoan ere, Biblioteka Nazionala eta Operako Biblioteka ziren Aita Donostiaren helburu interesgarrienak. Ikerketak ziren, ikusten denez, hiriburu hartara joateko aitzakiak. Baina konposaketarako ere ematen zituen orduak, eta, esaterako, Apirilaren 9an, Aberri Egunean, lau ahotsetarako **O Sacrum Convivium** burutu zuen. Aste bete Baionan igaro ondoren, Toulousen zegoen berriz Ekainaren 10erako. Urte horretan ere hamabost eguneko opor alditxo bat hartu zuen Toulousetik hurbil, Madame Mathilde Pomèl-en etxean atsedenezko egunak Abuztuaren bigarren hamabostaldian burutuz.

Ordurako Espainiako gerra bukatua zen eta mugaz handik zetozen errefuxiatuek babesa behar zuten Iparraldean. Arazo honetan arduratu zen gure Aita Donostia 1939.eko udazkenean. Urriaren 26an Donibane Lohitzunera joan zen Pepe Boyeren etxean ostaturik, eta larunbatez, urriaren 28an Sarara joan zen Madame Rigal, Garipuy, Elozegi, Goietxe eta Delpech jaun-andreak agurtuz. Azaroaren 3an, bere egunkarian dioenez, Viñesen etxean ahots ederreko Lide Ibarrondok kontzertutxo bat eskaini zien bertan bildutakoei, hots, Ramiro Arrue, Juan Muñoa, Alejandro Valdes, Pepe Boyer eta abar. Azaroaren 6an Toulouseratu itzuli zen berriz. Han zeuden Iñaki Azpiaz, Asteinza, Urrutia eta beste, horiek ere errefuxiatuekin arduraz beterik; azaroaren 15ean Toulouseko Apezpikuarengana jo zuten euskaldun langile errefuxiatuentzat etxebizitzak biltzekotan. Hurrengo egunean geltokira joan zen Aita Donostia 83 langileei harrera egitera. Halako beste ekintza batzuek burutu ondoren, Pariseko bidea hartu zuen, Toulouseko aldia bukatuz, Azaroaren 26an.

Bost hilebete terdi beteko ditu Aita Donostiak Parisen. Lehenetariko ekintza izango da Abenduaren 13an burutzen duena: Kanposantura joan eta Debussy-ren hilibian erresponso bat eskaintzen dio musikuari. Egunotan Trocaderon dagoen Folklorearen Museora doa, baita ere Kontserbatorioko Bibliotekara. Tours-era osteratu bat egin ondoren Gabonetarako Parisen dago. Maiatzaren lehen hamabostaldian Donibanera osteratu bat egingo du, baita beste denboraldi osoa Parisen beteko du. Urtarrilaren 25ean Trocaderoko Gizonaren Museoa hitzaldi bat eman zuen gai

honetaz: **Laneko kantuak Euskal Herrian**. Eta hitzaldi honen ardura kenduta, Polifoniaren Historia prestatzen hasi zen. Otsailaren 2an, Nazioarteko Dantzen Artxiboan kontzertu bat eman zuen, bere euskal lanak azalduz, goizeko hamaiketean. Pariseko zereginak amaitu ondoren, berriz itzuli zen Toulouserako Ekainaren 11an. Baina komentua errefuxiatuz betarik omen zen eta Probintzi buruaren gomendioz Mont-de-Marsan-eko Komentura joan beharrean aurkitu zen, erbestearen hirugarren aldiari hasera emanez.

Euskal Herritik gero eta hurbilago zegoen Aita Donostia Landetako hiriburu honetan eta hemen beteko zuen urte betean sarriago etorriko zen Iparraldeko bere herrirantz. 1940.eko Ekainaren 17an ostatu zen Mont-de-Marsan-eko Kaputxinoen Komentuan eta hiru egun barru, Ekainaren 20an, Baiona, Donibane eta Azkainerako bidea hartu zuen, senideekin egotalditxo bat eginez. Uztailaren 12an berriz zegoen Mont-de-Marsan-en, baina 15 egun komentuan egin ondoren berriz itzuli zen Azkainera Uztailaren 29an. Esan dezakeguna da garai honetan, nahiz eta bere egoitza ofiziala Mont-de-Marsan izan, denbora gehiago bota zuela Euskal Herrian. Parisera 1940.eko Abuztuaren azken egunetan egindako bidaiatik aparte, beste guztiak bere herrirantz egin zituen, azkenean, 1941.eko maiatzaren 14an Baionara bere egoitza aldatu arte.

Ia urte bi bete zituen Baionan, erbestetik Lekarotzera 1943.eko Apirilaren lehen itzuli arte. Laugarren egotaldi honetan ama hil zitzaion Donostian 1942ko San Jose egunean, martxoaren 19an hain zuzen. Zaila zen benetan erbestetuarentzat mugaz honutz etortzeko baimena lortzea eta Aita Donostiak ezin izan zuen baimen hori lortu hurrengo egunerarte; baina ama bizirik ez bazuen ikusi ere, hiletetarako heldu zitzaion semea. Baionan bizi zelarik, Miarritzeko Saint-Charles elizan organularia izan zen eta musikarako eman zituen bere ordurik onenak. Gelasio Aranburu adiskidearekin batera **Sine Nomine Korala** sortu zuen eta konposaketari ere eman zion astia.

Berrogeita hamazazpi urte zituelarik bukatu zuen Aita Donostiak zazpi urteko desterrua. 1943.eko Apirilaren lehen egunean iritsi zen Lekarotzeko komentura. Heldu berria zen eta laister bidali zuten Barcelonara, berak hain maite zituen musikazko ikerketetara, Musikologiazko Institutu sortu berrira hain zuzen. Erbestetik etorrira, lan eder bat burutzea iruditu zitzaion, eta bere biziaren amaiera hurbil zegoelako edo, **Missa pro Defunctis** lau ahots eta organurako bukatu zuen 1945ean. Ez zen ez geldi egotekoa Aita Donostia. Eta aholku bat ematekotan, hara zer idatzi zion Aita Jose Domingori, Carmonako espetxetik etorri berriari: “Ekin, ekin; hitz gutxi eta lan gogor; hori da zuzena”. Izatez hau izan zen praile ibiltari honen lema edo ikurra, Euskaltzaindiarena hain zuzen: Ekin eta jarrai.

PIERRE TOPET-ETXAHUN (1786-1862)

BIGARREN MENDEURRENA

P. T. ETXAHUNEN II. MENDEURRENA

Barkoxe, 1986-VII-26/27

Thomas Uthurry

MEZA SAINTIA

Sartzian:

Egûn Hun eta Hunki Jin, heben algargana bildû zidiener: pastoral-kaiak eta pastoralzaliak, üskalzaiñ jaunak, herritar maitiak.

Agur eta Hunki Jin zier oroer, “Xiberako botza” irratia bidez gure ürhotsari jüntatzen zidiener.

Egün Barkoxen, besta handia dügü, Pierra Topet-Etxahun koblakariaren uhuretan. Sortü zen, orain dila berrehün urthe, herri huntan, Maria Maidalenako bide onduan... eta bere kantoriak ützi deizkü, bere bihotz goguen berri emaile, bethi gure bihotzaren hunkigarri, alagerazle. Segür, herriak ez dütü galtzera ützi!

Besta hau hasten dügü Elizan: “Eliza, Herriaren bihotza”! Uste dü, Etxahunen bihotza zela ere: sinheste handiko gizona izan da, haren kantorer behatzen bagira, ikustera emaiten deikü nula, bere bizitze malesusian, jakin izan dian Jinko Jaunaren othoizten... Saintü? Orhit gitian, saintütarzüna eztela gure indarren eta berthüten helbüria edo saria, bena bai gure Aitaren miseriardiaren dohaina...

Pheredikia:

“Minez, maitez, errabiaz” pertsutan ari zen Etxahun, dio Aita Iratzeder-ek.

Üdüritzen zait, othoiztian ere hala hala ari zela gure Etxahun famatia: Testamentü Zaharreko Psalmistak bezala, “minez, maitez, errabiaz...” eta beharrez “oihüka Zelüko Jinko Jaunari: Aitari pharkamentü galthatzzen, kürütxen gainen itzatürrik den Semiari bermatzen, bethi prauben eta jente xehiaren althe agertü beitzen, Izipiritü Santiaren indarra eta sügarra deitzen.

Gure Aita zelietan zirena...

Aita, zütan düzü bazterrik gabe-ko züzentarzüna, behin ere agortzen ez den ütürria, zütarik zizkützü sortzen amodiua, bizia eta zorihuna...

Gure Aita, guria zira, zure Seme Jesu-Kristoren medioz... Guri beha, entzüten dütützü gure deiak, baitezpadako errespetiarekin gure libertatia uhuratzen düzülarik. Bethi emaille, emaiten deiküzü, emaiten zira zihaur, thai gabe pharkazale!

Zük gütüzü egiten aurhide, anaie, güziak zure seme, algar maithatüz, algarrekin Bizitüz, ber boztariuan pharte liant izan gitian.

Zelietan zira... eta gurekilian... Mündüko eremü güziak zure eskü-pian dütüzülarik, hor zira, heben zira, gure ondotik zabiltza gure ürhots eta gogoeta güzietan gure lagüntzale!

Saintu egin bedi zure izena...

Zure Semia igorri deiküzü, zure Hitza, zure Promesa. Mezü eta Berri Hun hori eztadin desertü zabalían gal eta zabal ditian gizonen beharri-bihotzak, amorekatik eta ikas ezen gure Aita zirela, fededün bilhakatürik nahi zütügü laidatü, ospatü; beldürrik gabe, basa-ahalkerik gabe, berme eta libro zinezko zure seme-alhabe bürhagertü; bake-egile gure anaigua ükhatü edo ezeztatü gabe. Bake-mezülariak eta bake-egiliak beitira zure erakusle eta jakiliak mündü huntan.

Ethor bedi zure erreinua... (zure Erresuma)

Horra zaikü eta hor dügü...

Jin ditian arren egünak, zuiñetan ere gizonak gero eta gehiago gizon agertüko beitira, ohartuz —praube ala aberats, azkar ala flakü, handi ala xehe— oro ber Aitaren semiak direla (desbardin izanak gatik, üdüriz bederen), baketürik berekılan eta bestekılan. Agert eta heda ditian egünak, zuiñetan ere photeredünak besten, txipien zerbüttxari eta lagüntzale eginik beitirateke... Üken dienek beren ükhenak behardünantekin phartekatuko beitätie...

Egin bedi zure nahia zelian bezala lürrian ere...

Egünetik egünila, ixil ixila, harabots handirik gabe, bere bideia egiten dizü zure nahiak. Lagünt gitzatzü züzenaren, jüztziaren, anaitarzüharen

alde bethi jokutzen. Zure hatsak, zure Izpiritiak etxek gitzala bethi iratzaririk, txütik, goaita... etsai eta herioaziak ihes igor ditzagün. Halaz, Izpirtü saintiaren indarrari esker, mündü huntan has dadin sortzen betiereko irustarzün edo zoriona.

Emagüzü gaur egün hontako ogia...

Lürrak sortzen deikün ogi hori, gure anaie gizonak emaiten deikien ogia... Eztügü sobera metatü edo athetü behar biharko, egün, gosian gure anaie behardünen üztia irriskatzen balinbadügü.

Emagüzü ere Ogi Bizia, Ogi saintia, zelütik jaitxia, egiazko anaitarzünaren hazle edo harkürria, zelükuaren promesa eta azia!

Parkatü gure zorrak, gük ere zordüner parkatzen diegünaz geroz...

Bethi pharkazale, seküla etsitü gabe ürrikalkor, zure Semiak Kürütxian itzatürrik eman diküzü zure bihotzaren eta nahiaren berri: gük ere behar dügüla jakin izan bester pharkatzen, gihaur nahi bagira pharkatürrik izan! Zure izenaz baliatzen direnek, zure Elizan algarganatzen direnek, behar die seiñale hori etxenplü hori eman, zure amoriuaren lekhüko agertüz, egiazki zure dizipülü...

Eta ez gü tentaldirat eraman...

Ez gitzatzüla üt zerra-bidetan galtzera. Badakizügü gurekılan zirela, gure zorigaitzetan, malürretan, nahigabetan eta herüstüretan... Emagüzü gure min eta phenen garhaitzeko indarra. Emagüzü koraje eta pazentzia: lotsarik gabe nahigabezko gerthakarietan gainia har dezagün. Zeren zü beitzira gure in-darra, gure harroka. Zütan gütüzü bermatzen, eta ez gure huntarzün edo borroketan.

Bena athera gitzatzu gaitzetik...

Zure Izpiritiak argi eta finka ditzala gure erabaki, xede eta deliberamentiak...

Algar-gana bil gitzala, denak batian latzdüra, lotseria, etsitze güzier bühür gítian.

Handikeriak, lazakeriak, üzkürdürak gure bidetik baztertürrik eta ohiltürrik, ez ditzagün üt sos-gosia eta berekoitarzüna gure bihotzaren gogortzera eta galtzera.

Agert gitian, eta joka, gosiak eta gizonaren gaixtokeriak zapaltûrik, matatûrik, ezeztatûrik, süntsitûrik etxekitzen dütien gizon eta gizalden althe..., zûzen-kuntrezko edo zûzen-gabeko gisa orotako egitatiak salha ditzagün, eta ahalaz egoitx...

Izan ditian azkenekoz, gizon bakotxarentako zük Aita Zelükua, nahi dütützün huntarzünak: ogia, bakia, libertatia, anaitarzüna!

Amen

Pierre Topet-Etxahun (1786-1862)

ETXAHUNEN SORTZEAREN BIGARREN MENDEURRENA DELA ETA...

Donostian, Agorrilaren 22-an, 1986

Yon Etxaide Itharte

Euskaltzaindiak lerro batzuk eskatu dizkit Barkoxtar koblakari hotsaundikoaz. Alegia, ni omen naiz, Etxahunez egin dudan lanagatik —Haritxelhar Maisu haundia aparte utzirik, noski— gai honetaz zerbait esatera behartuena. Baina, oren laurden bateko epea dut nik esanbeharrak adiarazteko, eta oren laurden batean ez dugu gauza haundirik esaterik. Gainera, tenorez jakinarazi bazidaten ere, ni lo egon naiz azkeneko uneraino, lan hau beti geroko utziz Axular haundiaren gomendioaren kontra eta Uztaila etorrita hilabetezko bakantzak lasai hartu ditut, hemeretzi egun Pirenetako Aran ibarreko mendi zokoak bisitatuz —ederrak zinez, *baina bihotzak dio: zoaz Euskalerrira*— eta etxerako itzulian hamabi egun Zube-roan pasatuz “Elizانبürü” (1730-ean eraikia) deritzan “etxalte-kanping” zoragarrian kokaturik, Altzürükü-Züharan, Etxahun gureak hain ezagunak zituèn mendiak, bazterrak eta “olhak” bisitatuz, hala nola Maidalena, Süstarri, Erretzü, Ahargo, Kanbillu, Gaztalondo, Malta (Etxahuniako hondakinetan, bere oroitarran otoitz bat eginaz), Abakia, Igelu, Ezkonditze, Otsogorrigaño, Phixtako olha eta Phixtako Turrusta, San Josefen ermita, Idorroki olha, Nabolegi eta Olhatazazarre olak, Naphaletik Etxekortiako olhara, Organbidexka-olha (Belhaudiko bortian), Holtzartetik Larrañera, Ahüzko iturria, Aphanizeko zelaiak, Behorlegiko gandra, Biduze ibaiaren sortze-lekua, Ahüzki eta Donaisti artean, Kakuetak eta Ehüjarreko meharguneak eta Eraintzeko olhak, beren iturri fresko zoragarriarekin, Etxahunen Barkoxeko hilobia eta abar luze bat aurtengoak eta aitzin urtetakoak kontatuz. Halaber bisita leku izan ohi dugu ere “Itharte” etxaltea, Hamalauko gerlatik hustua eta orain “Prat” etxaldeko borda bilakatua, Xarrako udal-barrutian. Ene amaren arbasoak hemendik pasa ziren, noski, Erronkariko Bidankoze herrira. Zer esanik ez Etxahun Irurikoren “Etxahun koblakari” pastoralara (pastuala) ikusten izan ginela emaztea eta biok eta alaba ere bere lagunekin Barkoxen, Uztailaren 27-an.

Etxahunez mintzatuz orenak eta orenak egon gaitezke, libururik mardulena (lodiena) mamitu ere. Beraz, oren laurden bat oso denbora urria da Etxahunen bizitzan eta lanetan murgiltzeko. Haren bizia sakonki eta xeheki aztertu dute lehenik Larrasketek eta Lhandek, eta gero, bereizi-bereiziki, Haritxelharrek. Beraz, nik esango dudan gauza bakarra hitzaldi labur honetan zera da: nola ezagutu nuen Etxahun Barkoxtarra eta zer lan egin dudan gure koblakariaz.

Etxahunen ezagutza Aita Lhanderi zor diot. Frankismoaren urterik beltzenetan eta gordinenetan, euskal-libururik inon aurkitzen ez zenean, aukera bat, okasione bat, sortu zitzaidan “Gure Herria” aldizkariaren zenbait ale erosteko, alegia, 1921, 1922, 1923, 1924, 1925, 1926 eta 1927, txukun eta egoki enkuadernaturik (relieturik) eta merke gainera, zeren euskal-liburua ez baitzen kotizatzen garai (denbora) triste haietan. Sal-tzaileak, zituèn euskal liburu guztiak gainetik kendu nahi zituen, zeren berari ez baitzitzaizkion interesatzen eta aldi hartan euskal-liburuak edukitzea beldurgarri baitzen. Denok beldurrez bizi ginen, poliziak rejistru-ren bat eginda zer gerta ere... Eta horra non, “Gure Herria”ren 1923-garren urtean, gure Aita Lhande-Basagaitz ahortzi ezina mintzatu zen zabalki Etxahunez titulu honekintxe: “Le barde Etchahoun (1786-1862)”. Hiru sailetan bereizi zuen bere lana. Lehendabiziko sailean, solas-aitzin baten ondoren eta “La vie du poète” titulu nagusiaz, lehenbiziko atala ematen du “La triste enfance” titulupean (420-430 paiak). Bigarren zatia “Le Foyer malheureux” titulatzan du (492-496 pp.), eta hirugarrena (suite et fin) “La vie errante” (534-542 pp.). Aita Lhanderen lan honetan irakurri nuen lehenbiziko aldiz “Mündian malerusik” poemaren izena eta ondoren agertzen dituen bi hitz-neurtu hauek zartada izigarria egin zuten ene bihotzean:

*Hogei eta bi urthe bethe egünin
Emazte bat hartü nin ene zorigaitzin.*

Irazlan honetan ikasi nuen, beraz, Graxi Pelento Etxahunen emaztearen berri, eta nor zituèn bere gurasoak “Bi berset dolorusik” poeman agertzen den ahapaldi dardargarri honen bitartez:

*Ene persegirazle lehen hatsarria (1) zer zen
Eskapulareki (2) deiziet erranen:
Aita batek zian taka (3) hori bere haurraren (4):
Haren Filosomiako (5) amak enündila (6) sorthü ükhen.*

Halaber mintzo zaigu Lhande-Basagaitz Etxahunen lehen amodioaz, nahiz-eta neskatilaren izenik ez jakin (*Zazpi urte badizüt, ene khariua, /*

(1) Hasera, hasiera. (2) Eskrupuluarekin, eskrupulotsuki. (3) Defektu, akats. (4) Haurrantzat, haurranganako. (5) Fisionomía (antza, eitea). *Filosomiako*, testuan “F” maiuskularekin. (6) Testuan, hutsegitez: enünodila.

Zütan ezarri niala ene amoriua) eta baita aitak eta “egüzaitak” (aita pontekoak) ezarri zizkioten eragozpenak berak maite zuenarekin ezkon zedin, pobrea zelako, Etxahuniaren oinordekotza (primantza, primugoa) kentzea mehatxu eginez.

Halaber aipatzen digu Lhandek Graxi Pelentorekin, hots, Dominika Haritxabalet, Santa-Graziko erretor(e) ospatsuaren iloba aberatsarekin egin zuen ezkontza bortxatua eta beronek erakarri zion bizitza zoritxarrekoa, eta gure koblariaren neurtitz unkigarriok aipatzen ditu:

*Jakin nianian zer nian erosi
Nahi ükhen nian bortxaz kunbertirazi.*

Etxahunek, bortxaz, indarrez, gogorkeriaz, tratu txarrez alegia, nahi izan zuen “kunbertirazi” bere emaztea, baina honek salatu zuen bere senarra justiziaren aitzinean eta Agengo presondegian bi hilabetez preso sartzea ardietsi zuen.

Graxik, bestalde, ez zion leialtasunik gorde bere senarrari, Pierrari alegia, eta gordeka edo agirian Hegiaphalekin ibiltzen hasi zen eta “Mündian malerusik” poeman honela dio Musde Haritxabaleti zuzenduz, hots, Graxi Pelentoren osaba apezari:

*Musde Haritxabalet, jaun erretora,
Etzünin idükiten ogendant (1) illoba;
Orai sogin ezazü: hor düzüla proba...*

Berehala, “lehen auzoko” amorantea, hots, Hegiaphaliakoa hiltzea pentsatzen du, baina gauzez bidera ateratzen zaiolarik, nahasmenez, konfusioz, Etxegoiheniako mutila hiltzen du eta hutsegite honek esanarazten dio minaren minez:

*Bestek eraman dik hik behar kolpia,
Bena küpera diok orano hartzia (2).*

Beste abagune batez —dio Lhande-Basagaitzek—, etsai gorrotagarria tirokatzeko aukera, okasionea izan zuen, baina tiroak hutsegin zion. Preso harturik, Etxahunek ez zuen ukatu bere asmoa (xedea). “Hil nahi zenuen, beraz?”, galdetzen dio jujeak (juezak) frantsesez. Eta koblakariak honela erantzun zion euskaraz: “Bai, etzükezün bekhatü” (Bai, ez zen bekatu izango).

Epaimahaiak (juré), ordea, ez zion berdin iritzi eta, beti Lhanderen arabera, orduan egin behar izan zituen “bi urte presondegian” Ajenan (Agen-en) edo “hamar urte galeratan”, bere poemetan dioen bezala.

(1) Errudun, kulpadun. (2) Baina kobra dezakek oraindik hartzekoa, hots, hire merezia. Lhande-Basagaitzen testuan “küpero” ageri da, baina badirudi hutsegitea dela.

Tradizioa ere bada herritarren artean, Agengo gartzelatik (presondegitik) ihes egitea ardietsi (lortu) zuela. Barkoxetik hurbil iratzebaileak topatu zituen eta Etxahunek aditzera eman zien Hegiaphalia erretzeko xedea (asmoa) zuela. Hegiaphaltarrak, hau jakinik salatarien bidez, erne egon ziren eta ez zen, mementuz, deus ere gertatu. Baina, denbora luzerik gabe, gau batez, Hegiaphalia suak hartu zuen eta ogena (errua, kulpa) Etxahuni egin zioten. Baina, aldi hartan, Etxahun Santa-Graziko mendietan edo, Xiberutarrek esan ohi dutenez “bortietan” zegoen artzain eta berarekin zeuden lagunak lekukotzak salbatu zuen Etxahun, zeren hauek deklaratu baitzuten arrats hartan, gauean eta hurrengo goizean bere “olha”tik ez zela mugitu Etxahuniako Pierra Topet.

Hirugarren partean Etxahunen bizitza erratua aditzera ematen du Aita Lhandek. Lehenik Jundane Jakara joan zen, etxekoek ez baitzuten on-artu nahi bere egoitzan presondegitik atera ondoren, “eta bi urtetan miserian bizi izan zen Espainian”. Jundane Jakatik jinda (etorrita), berriz ere saiatu (entseatu) zen etxan onartzen ote zuten. Dena alferrik, berriz ere ateak hertsia (zerratia) aurkitu baitzituen. Soilki bere emazteak, urrikaldurik, “bi athorra xiloeki” eman zizkion. Zuberoako egonaldi hartan gaiak (gauak) “sabaletan hotzez ikhara” iragan ondoren, Erromaruntz abiatzen da pelegri jantzirik. Bere pelegri ibil-aldiez erraiten digu salakor:

*Izan nüzü Loretan,
Jakan eta Erruman,
Aita Saintiren meza entzün kardinalen kunpañan:
Arropak txar nütian eta ihurk etzeitan deüs erran.*

Berriz ere Xiberurat itzuli eta etxeko ateak hertsirik (zerratürük) topatuz, eskean hasi behar izan zuen hotzak eta miseriak pasatuz. Gero, artzaingoan (artzantzan) hasten da Zuberoako “olhetan” eta hor kurritzen ditu Idorroki, Igelu, Unhürritze eta abar. Zahartu zelarik, haurrei irakurtzen eta Khiristi (kristau, giristino) dotrina erakusten aritzen zen eta tabernetan, ezteietan eta festetan bertso kantatzen. Honela ateratzen zituen sos batzuk bizi ahal izateko.

“Ez dakigu —dio Lhande-Basagaitz Aita jesuitak— noiz sartu ahal izan zen Etxahun bere etxean. Dakiguna hauxe da: bere bizitza dohakabearen azkenetan, Etxahuniara itzuli ahal izan zela. 1862-ko Urtarrilaren 17-an hil zen, goizeko zortziretan, *züzülü*-an (zizailuan) etzanik, hots, oraindik ikus daitekeen zurezko banku luzean. Bere hilobia Barkoxeko hilerrian datza, sarreratik (sartetik) hamabost urratsetara, ezker (ezkerretara), zuhain-nigarregile bakartiaren ondoan. Harritzko gurutzeak iskribapen hau darama harxilatuan, erliebean alegia: “Ci git Pre. Topet Etchehon decedé le 17 Janvier 1862 âgé de 76 ans” (Hemen datza Pierre Topet Etxehon, 1862-ko Urtarrilaren 17-an hila, 76 urtez).

Hona, laburturik, Aita Lhanderen kontakizuna. Esan behar ote da zer nolako zarrasta eta bihotz-ukitua egin zidan Etxahunen istorio honek neure hogeï urtetsutan? Berehalaxe pentsatu nuen elaberri bat (roman bat, nobela bat) egiteko oinarri zoragarria zela eta zerbait egiteko ere gogoia jarri zitzaidan barruan, baina zerbait egiteko, pertsonaia eta bere ingurua hobeki ezagutu beharra zegoen, eta nik aldi hartan ez nuen fitxik ezagutzen ez Xiberua eta ez beronen mintzaira ezti eta ederra. Halaber ez nizun ezagutzen Etxahun poeta bezala. Soil-soilki Lhande-Basagaitzek aipatzen zituen ahapaldi edo bertso lerro batzuk. Guztihau 1940 urte inguruan zen. Beraz, nola ikas Etxahunen berri gehiago, deus ez baze- goen publikaturik? Baina, bospasei urte geroago “Le poète Pierre Topet dit Etchahun (1786-1862) et ses oeuvres” liburua atera zen, Pierre Lhan- dek eta Jean Larrasquetek eginik eta “Eskualzaleen Biltzarrak” argitaratu- rik, 1946-garren urtean. Nire frantses eta ziberutar mintzo eskasarekin, liburua irentsi nuen. Azkenik, banekien zerbait gehiago Etxahun misteriu- tsu hartaz eta bere obrak. Behin eta berriz irakurriz haren bizitza eta lanak, hiztegia eskuartetik utzi gabe, Etxahunen berri ongixko (ongi xamar) ikasi nuen. Baina, hala ere, zenbat hutsune eta esaldi ulerkaitz (konprendigaitz) gure koblakariaren bertsotan! Zorigaitzez, ordea, egileek ez zuten frantseserat itzuli Etxahunen bertso-lana —hauxe da Lhande- Larrasketen liburuaren hutsegite izugarria xiberutar ez direnek ongi uler (konprendi) dezaten— eta honek ateak isten (zerratzen) zizkidan bertsoen esanguraren (erran-nahiaren) barne-muinetara sartzeko.

Nola moldatu, beraz, Etxahunen bertsoen barne ezkutu eta misteriu- tsuen berri jakiteko? Gramatikak, hiztegiak eta aditz liburuak ez zitzaizki- dan aski Etxahunen bertso ilunak ulertu ahal izateko. Bat-batean, ezagu- tu berri nituen bi adiskide gogoratu zitzaizkidan: Johaño edo Jon (1) Mirande-Aiphasorho eta Txomin edo Dominique Peillen, Parisko Zube-

(1) Niri egindako lehendabiziko urtetako gutunetan beti “Jon Mirande” sinatzen zuen, gure arteko abertzale-jelkideen ohiturari jarraiki, “Jon” Sabindiar izena onartuz, baina gerora, Sabindiartasun kutsadura hoztu zitzaizlarik, nahiz “Johaño” xiberutar izenez, nahiz Jean etxeko frantses izenez sinatzen zituen bere gutunak. Albaina, literatura alorrean “Jon Mirande” izenaz ezagutua da eta horrela errespetatuko dugu, berari azken urtetan “Joha- ñe” edo “Jean” atseginago bazitzaion ere. Niri ere halatsu gertatu zitzaidan ene bizian zehar, zeren gaztezarroan (gaztetan) Sabindiar dotrinez kutsatu bainintzen asko edo gutxi eta berehalaxe “Yon” erabiltzen hasi nintzen “Juan” izenez bataiatua izanarren eta orok (denek) Sabindiar izenaz deitzea nahi nuen. Ezkondu aitzin (aurretik), lagunartean, horrela deitzen ninduten gehienek (nahiz eta neure etxeko izena “Juan” izan beti) eta ezkondu nintzelarik, andrearen familian “Yon” izenez sartu nintzen eta ene emazteak beti horrela deitu izan nau. Gerora, tentaldi gogorak izan nituen “Yon” utzi eta ezagutuberri nuen “Joane” euskal-izen zahar eta jatorra onartzeko. Baina berandu zela iritzi nion eta ez nintzen ausartu. Izan ere, bazter orotan eta baitipat literatura alorrean “Yon” izenez ezagutua bainintzen. Gainera, *Joane*, *Johaño*, *Joanes*, *Yon*, *Juan* edo *Jean*, deitu nahi diozuen bezala saildu izen honi, ez da sekula neure gogoko izan. Nik bataioan aukeraterik izan banu, gaurko pentsamoldearen arabera, Antxiko Xabier hautatuko nuke.

rotar euskaltzale famatuak. Biek lagundu zidaten aunitz (hanitx), baina batez ere Jon Mirandek. Honek, eskutitz (gutun) bakoitzean esaten zidan galdetzeko nahi nuen guztia, poz-pozik lagunduko ninduela-eta. Horrela joan nintzaion galderak eginaz eta berak izagarritzko egonarriz eta xehetasunez erantzuten zidan, gai bakoitza oparotsu garatuz. Orduan pentsatu nuen hainbeste aberastasun Mirande eta bion artean gelditzea penagarri zela eta ideia ausarta bat izan nuen: Etxahunen bertsioak gipuzkerara itzultzea hitz-neurtuetan, Miranderen eta Peillenen erakuspen ederrak gal ez zitezen eta Etxahunen ahapaldi ulerkaitzak euskaldun guztiok konprendi, dasta eta kanta ahal zitzen.

Horrela hasi nintzen gipuzkeraz edo gipuzkera osotu batean jartzen Etxahunen bertsioak, baina, behin eginez gero, argitara eman behar zen jendearen ezaugarri, eta horrela gutun bat egin nion Zornotzako (Amorebietako) Aita Onaindia Karmeldarrari beren "Olerti" izeneko euskal-poesiaren aldizkarian argitaratuko ote zizkidan Etxahunen koblak zuberotarrez eta gipuzkeraz. Harek baietz, eta igortzeko nahi nuenean. Horrela igorri nizkion Lhande-Larrasketen liburutik aldatutako honako hauek: Ofizialenak (1961); Elhartzü eta Biñau (1962); Gaztalondoko neskatalen (1962); Sarrantzeko sentoralak (1963); Oraiko neskatalak (1963); Gaztalondoko handian (1963); Barkoxeko eliza (1963); Musde Tiraz (1963); Bi ama-alhaba (1964); Bi ahizpak (1964); Idarroki olha (1964); Belhaudi bortietan (1964); Ahargo eta Kanbillu (1964); Montebideorat juailiak (1964); Bi berset horiez (1964); Ahaide delezius huntan (1964); Bi berset dolorusik (1964); Hauzen bada laborari (1964); Maria Solt eta Kastero (1964); Mündian malerusik (1965); Gaztalondoko prima (1965); Defis (1965); Bi berseten huntzera (1965); Khantoren khantatzeko (1965); Urz'aphal bat (1966); Filipeñekuak (1966); Amodiogati (1966); Hiltzerako khantoria (1966); Etxahun eta Otxalde (1966); Musde Hegobe (1966); Sohütako eztieta (1966); Gaztalondoko prima (eraskina) (1966); Ahargo eta Kanbillu (eras-

Eta "Joane" edo "Johañe" euskal-izenaz ari garenez gero, aditzera eman gura dut "Euskera" aldizkarian (XXX, 1985, 2), *Euskal-pontizen zahar batzuk aztarrikatuz* tituluz argitaratu nuen lan batean, "Joane" izenari dagokionean, Aita Larramendiren pasarte zoragarri bat aherentzi zitzaidala ematen. Hona zer dioen Andoaingo Jesuita ospatsuak bere "Corografía de Guipúzcoa" liburu zoragarrian 1754-garren urtean. Berak diotsagunez, Muriillo Velarde historialariak bere "Geografía Histórica" delako liburuan, *De las provincias de Vizcaya, Guipúzcoa y Alava* kapituluak dakartzan hutsegite frankoren artean, guri dagozkigun hauek aipatzen ditu: "Dice de San Sebastián que los naturales la llaman *Dombastia*, y no le llaman sino *Donostia*, que quiere decir San Sebastián, como *done Joane*, San Juan; *Donestebe*, San Esteban. *Bastia* y *Bastian* dice el vascoence por Sebastián, *Donebastia* o *Bastián* por San Sebastián, y sincopado *Donostia*". Hona hemen, beraz, beste lekuko baliotsu bat "Joane" euskal-izen zaharraren alde eta halaber "Donostia"ren faboretan, zeren oraindik ere baibaitago egoskorrik franko "Donosti" sasi-izena erabiltzen setatzen direnak. (Ikus "Corografía de Guipúzcoa", Editorial Vasca "Ekin", 12-gn. paia, Buenos Aires, 1950).

kina) (1966); Oraiko neskatilak (eraskina) (1966). Denak ote daude? Baietz uste. Ezezkoan, barka.

Baina edizio honetan inprimeriko hutsegite ikaragarriak atera ziren. Frogak ez nituen nik zuzentzen, "Olerti"ko froga-zuzentzaileak baizik eta segurki behin bakarrik zuzenduta ontzat ematen zuten.

Beraz, Etxahunen bertso-lana argitaraturik, neure sufrimendua haundiagotu zen eta ez zitzaidan beste erremediorik gelditu liburu bezala atera baizik. Beste problema: ez nuen editorerik aurkitu. Gogoan har 1966-1969 urtetan ginela, denbora txarrak eta zailak oraindik euskal-liburuak ateratzeko, baitipat estudio-liburuak, eta nirea hala izaki. Gaur bertan horrelako liburu batek irakurlego txit mugatua dizu. Banekien biziki zaila zela neure liburua aitzina ateratzen, baina barruan neraman minaren-minez, ez nuen beste erremediorik izan nik dirua jarri eta neure kontura atera baizik. Salketa eta zabalketa ere nire kontura. Ez nekien ondotoxo (huntsa) zer zama leporatu nuen ene gain. Honelaxe atera zen "Etxahunen bertsoak gipuzkeraz" liburua Jon Miranderen lankidetasunez, Zarautzeko "Itxaropena" inprimategian, 1969-garren urtean. Urte berean Jean Haritxelharrek, Etxahunen bizia zeharo eraberriturik atera zuen berak egindako aurkikuntza berriez baliaturik. Denok dakizue Etxahunen bizia irauli zuen liburua izena: "Le poète souletin Pierre Topet Etchahun (1786-1862)". Etxahunen kobla berriak ere aurkitu zituen Haritxelharrek, Lhande-Larrasketen liburuan ageri ez direnak alegia eta, horrela, geroxeago, 1969-1970-ean "L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun" atera zuen. Neure bi liburu hauekin, hainbeste izerdiz ateratako liburua —etxez-etxe saltzen ibili behar izan bainuen Gipuzkoa guztian dirurik ez galtzeko— zeharo gibeleratua gelditu zen. Jakin izan banu Haritxelhar zer ari zen prestatzen, segurki ez nuen argitaratuko "Etxahunen bertsoak gipuzkeraz". Dena den, gaur ez naiz damu argitaratuaz, zeren-eta "Olerti"ren argitalpenarekin sarturik nuen arantzea atera baitut, eta hainbeste nekeren frutu baita!

Baina, jakina, Haritxelharren bi liburu lodi-mardulak ezagutuz geroztik, Etxahunen biziaz eta lanez hainbeste gauza berri jakinaraziz, ene baitako atsedena, deskantsua, galdurik nuen berriro. Harez geroz beharrekoa zen Etxahunen koblak Haritxelharren arabera ematea, eta orduan pentsatu nuen testua, alegia, azalpen lan oro gaztelaniaz, espainolez ematea eta bertsoen itzulpenak gipuzkera batuan (gero, euskara batuan), hitz neurtuetan eta gaztelaniazko itzulpena prosan, hitz neurtu gabetan. Horrela, Etxahunen izena eta lana, Euskalerrian ez-ezik espainolez mintzo den mundu zabalean ezagutua izan baitzitekeen. Era honetan, euskara, frantsesa edo gaztelania, espainola, dakien edonork ezagu lezake Etxahunen bizitza eta obra.

Beraz, ideia hauek buruan, ate-joka hasi nintzen zenbait aldizkaritan, urteak eta urteak iraun behar zuen lan hau argitaratzeko. B.R.S. B.A.P.

delakoak zabaldu zizkidan ateak berehalakoan 1973-garren urtean. Harez gero Etxahunen kobla hauek argitaratu dira Boletín honetan: 1973, Mendiko herrian; 1975, Igaran Sen Bladiz eta Khantoren khantatzeko; 1976, Khantore berria eta Üdoien prozesaren khantoriak; 1977, Bi berseten egitez eta Phixtako olha; 1978, Ofizialenak eta Etxahunen bizitzaren khantoria; 1979, Gaztalondoko neskatilak eta Belhaudiko bortian; 1980, Barkoxeko eliza eta Musde Tiraz; 1981, Mündian malerusik; 1982, Maria Solt eta Kastero, Sarrantzeko senthoralak eta Bi ahizpak; 1983, Ahaide delezius huntan, Gaztalondo handian, Oraiko neskatilak eta Musde Defis; 1984, Sohütako ezteietan, Urx'aphal bat, Amodio gati, Ahargo eta Kanbillu, Hauzen bada laborari eta Idorroki olha; 1985, Montebidorat juailiak, Gaztalondoko prima eta Bi ama alhaba; 1986, Gure jaun aphez-küpia, Musde Clérise, Musde Legouve/Musde Hegobe eta Bi berset dolorusik (inprimategian). Beste zenbait prestatzen ari naiz, hala nola Filipeñekuak, Jinkuaren Maniak, Arengaraiko primaren khantoria, Musde Renaud, Hiltzerako khantoria eta Musde Xaho. Galharragako khantoria eta Eihartxe eta Miñau azkenerako utzi ditut zailtasun bereizi-bereiziak dituztelako. Beraz, Haritxelharren sailetik zortzi falta zaizkit, baina nik Lhande-Larrasketen *Etxahun eta Otxalde* ere sartu nahi nuke, berorretan Jon Mirande neure adiskide haundia zenaren erakuspide ederrak ageri direlako eta berarekin zordun haundia naizelako. Beraz, oraindik urte batzutarako lana...

Horra, ba: Etxahunen bizitza eta lanak frantsesez —Haritxelharrek— emanik gelditu dira eta ni euskara batuan eta espainolez (gaztelaniaz) ematen ari naiz. Hiru itzulpen hauei esker miloika pertsona izanen dira Etxahun ezagu dezaketenak. Ateak zabalik daude ikasi nahi duenarentzat eta beharrekoa zen munduari aditzera ematea Etxahun nor zen.

Nik, ordea elaberri -roman edo nobela— bidez ere ezagutarazi nahi izan nuen Barkoxeko koblaría, alegia tradiziozko bere bizian oinarriturik, baina irudimen hegoz jantzirik, eta horrela iskribatu nuen “Joanak Joan” elaberria (romana, nobela) eta Zarautzeko Itxaropena Argitaldariak “Kuliska Sorta” sailean plazaratua (kaleratua) 1955-garren urtean. Ongi saldu zen, baina nik ez nuen argitaratu nahi izan berriro zegoen-zegoenez, hutsegitez, ez-jakitez eta pobretasunez mukuru zegoelako. Eta arazoa —Etxahun eta bere bizigiroa— hobeki estudiatu ondoren, Gipuzkoako Probintzi Aurrezki Kutxak argitaratu zidan berriro 1980-garren urtean. Edizio hau berehala akitu (agortu) zen eta astirik galdu gabe hirugarren iraztaldia (iskribaldia) prestatu nuen, bigarreneko zenbait hutsegite zuzenduz eta xehetasun osatuz. Donostiako EREIN editorialak argitaratu dit aurtengo (1986) udaberrian. Horra, bada, gure Etxahun maiteaz esan gura (nahi) nituenak bere sortzearen bigarren mendeurrenean.

GAI LABURRAK

LUR-BERRI EGITE ETA TOPONIMIA MENDEBALEKO ETA ERDIKO EUROPAN: FLARAN-EKO 8GARREN IXTORIO EGUN INTERNAZIONALAK

Donostia, 1986-XI-28

*Jean-Baptiste Orpustan
Bordele-III Unibertsitatekoa*

1986-eko buruilarren 19, 20 eta 21-etan iragan dira, zortzigarren aldi-kotz. Flaran-eko Abadiako zentro kulturalean, Gers-eko departamenduan eta Gaskoiniaren erdi-erdian, zortzigarren Ixtorio Egun Internazionalak. Horien buru eta antolatzaile, Charles Higounet, Bordele-III Unibertsitateko irakasle emerito eta Akitaniako ixtoriolari aipatua.

Aurtengo gaia hau zen: "Toponimia eta lur-berri egiteak Erdi-Aro eta Aro Berrian, mendebaleko eta erdiko Europan". Bi egunez egin dira hamabortz bilkura eta hitzaldi, eta bertze hainbertze elkarrizketa; mintzatu, luzaz edo labur, Bordeleko, Tolosako, Pauko eta Korzikako ikertzaileak Frantzia Hegoaldetik, Pariseko, Normandiako eta Zaboiaokoak Ipar eta Ekialdetarik; bai eta ere Italia, Ingalterra, Alemania, Polonia eta azkenik Tranzialbaniakoak.

Ainitz lan beraz eta hoberenatarik, oro frantsesez, leku ezin ederra-goan: Flaran-eko abadia Zizterzianoek eraiki zuten XII mende azkenean. Inguruan hor ditu hiri, bastida, monumento, bazter ikusgarriak: Auch, departamenduko hiri nagusia, Aro-Zaharreko Elimberris (erran dezagun Irunberri edo Iriberrri...); Eauze, Erromanoen Elusa; Condom, Bossuet predikari aipatua ukan zuena apezpiku zenbait urtez. Orotan katedrale, eliza, erromaniko eta gotiko, etxe zahar, jauregi eta gazteluak. Eta oihan, arto-landa, ardantz, ahate eta antzera multzoen artean, etxalde eta herriak, bere armañaka, ardo, ahateki eta gibel gizenduekin...

Batzordea konturatzen de alboko urian egon diren anexionismo gogoekatik, hastandura edo nahigabe bat sor araztea etxebarritarrei, baina kontutan kizan behar dute *MARKINA* eskualde baten izena dela, historian hedadura garrantzizkoduna eta gaurko Bizkaiko Jaurerria eta Gipuzkoako Probintziaren populazio entitate hauek hartzen zituen, uri horrez gain: Elgoibar (Villamayor de *Marquina*), Eibar (*Marquina* de Suso), Plaentzia (*Marquina* de Yuso), Mendaro udal berriarren zati nagusia bederen, Debarroan eta Xemein, Barinaga eta Aginaga elizateak, Artibai arroan. *Markina*, euskal toponimoa bestalde, Arabako hiru lekutan agertzen da, bata, Zuia ibarreko herrixka edo populazio entitate txiki bat, eta besteak, Markinizen (erdaraz Marquinez) “*Marquina* de Arriba” eta “*Marquina* de Abajo”, hain zuzen.

Euskal toponomastikaren usuario eta arauetan, argi ikusten de nola izen zabalagoa, kolektiboagoa, determinatzailea, aurretik jartzen dela, alegia, izen bereko baserri-eteak badaude, auzoarena aurretik jarriaz bereizten dira, adibidez, Gazaga-etxebarri eta Eitzaga-etxebarri, biak Zaldibarkoak, baina lehendabizikoa, Gazaga kofradia edo auzokoa eta bigarrena Eitzagakoa. Hori bera udalerrri mailan, Berriz-betzuen, Bernagoiti-betzuen. Bide berberetik doa *Markin-etxebarri* beste aipatu diren —*etxebarri* toponimoekin.

Erdaraz, gaztelania izan baita orain arte, Euskal Herriko parte honetan hizkuntza ofizial bakarra, “San Andres de Echevarria”, “Echevarria de *Marquina*”, “Anteiglesia de Echevarria” eta antzerakoak erabili dira. Kontutan izan behar badirela beste lau populazio entitate izen berekoak:

1. Uribe merinaldean: Galdakao, Bilbo, Basauri tartean; 2. Durangaldean, gaur egun Elorrioko udalbarruan: San Agustin-*etxebarri*, hain zuzen; 3. Leintz ibarreko Artxabaleta udalbarrutian: “Echevarri” erdaraz, euskaraz: *Apoz-Etxebarri* (ikus *Gipuzkoako Udalerri eta Entitateen zerrenda*, Eusko Jaurlaritza, Estadistika Zuzendaritza/Relación de Municipios y Entidades de Guipúzcoa, Gobierno Vasco, Dirección de Estadística); eta 4. Diktamengai honen elizate eta udala.

Bestalde, euskal literaturan, bertso, kopla, kanta eta olerkietan, *Markin-etxebarri*, *Markina-etxebarri* eta abar agertzen da.

Guzti honen ondorioz, esan dezakegu diktamen honi dagokion elizate eta udalaren izena *Etxebarri* dela bertako eta ondokoentzat, baina Euskal Herri osorako beste populazio entitateekin bereiztu beharra dagoez gero, euskaldungoari, usuarioari eta prezeski, euskal toponomastikaren arauetara jarraiki, ez da ikusten, beste soluziobiderik oraingoz, (*Markin-*) *Etxebarri* edo nahi bada, eta agian hobe, *Markinetxebarri* izendatzea baizik.

Eta hala adierazteko eta bertako Udaltzari bidaltzeko, izenpetzen dut Bilbon mila bederatziehun eta larogetitaseigarreneko Urriaren zortzian.

V.º B.º

E. Knörr - Presidente de la Comisión.

EUSKALTZAINDIAREN BATZAR-AGIRIAK

1986-VII-26

Barkoxen, Herriko Etxean, 1986ko uztailaren 26an arratsaldeko zazpitan, Etxahun koblariaren bigarren mendeurrenkari egin du Euskaltzaindiak hileroko bere bilkura. Etorri dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, P. Charritton, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Larre, J. San Martin eta J.M. Satrustegi, euskaltzainak. J.L. Lizundia urgazle eta idazkariordea.

E. Knörr, P. Altuna, X. Diharce, J.L. Davant, F. Krutwig, P. Larzabal eta L. Mitxelenak ezin etorria adierazi dute. J.L. Davant, hain zuzen, une horretan hitzaldia ematen ari zatekeen Euskaltzaindiaren ordezkari Durangoko Euskal Jaiei mendeurrenaren ospakizunean.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

Ekaineko batzar-agiria onartu da.

Eguneko gaiak

Orotariko Euskal Hiztegia argitaratzeko iragarri den lehiaketarako hautesleak izendatu dira. P. Altuna eta L. Villasante aldez aurretik iragarpena egiterakoan ordezkari izendatuak zirenez, berek jarraituko dute hautes-mahai honetan ere, L. Mitxelenarekin batera.

Atlas Linguistikoari dagokionez, Frantziako erakunde ofizialekin harremanetan jarraitzen duela, aditzera eman du J. Haritschelhar jaunak. Une honetan hara zertan diren gauzak: CNRS-ko arduradunak irailean bilduko dira eta erabakia hartuko dute. Frantziako atlas guziez arduratzen den GRECO elkargoarengandik laguntzaren bat lortuko da. Strasburgon bada informatika lanak egiteko parada. UA 1045 elkartetik tresneria eta ikerleen joan-etorriak ordaintzeko diru laguntza ukanen dela esanez, amaitu du. Nafarroako agintariekin izandako azken harremanez mintzatu da gero J. M. Satrustegi. Hezkuntza eta Kultur Kontseilari den R. Felones jaunaren gutun bat jaso dela esan du, Orotariko Euskal Hiztegi, Dialektologia eta Gramatika lanetan Nafarroako Gobernuak ere parte hartzeko eskaintzarekin. Ekaineko batzarrean aurreratutako berrien baieztapen ofiziala oso pozgarri izan da denentzat.

Eskuarteko gaiak

Barcelonako alkate den P. Maragall jaunaren gutun bat jaso da, 1992ko Olinpiar Jolasak bertara ekarri nahi direla-eta, kirol, kultur eta jakintza arloetako elkargo eta jaun ospetsuen izenekin sortu nahi den erakunde batean L. Villasante euskaltzainburua sartzeko gomitarekin. Katalandarren asmoari maila guzietatik bultzada ematea da helburu nagusia. Euskaltzainburuak bere ordez idazkariaren izena proposatzea eskatu du. Horrela adieraziko zaio P. Maragall jaunari.

Manuel Seco espainiar akademilariaren arartekotzaz, HARRAP argitaletxeak gutun bat zuzendu dio Euskaltzaindiari. "Concise Spanish Dictionary" hiztegian euskarazko hitz zerrendaren bat ere sartu nahi dutenez, azken begiratu emateko ardura eskatzen du. Horrela onartu da.

Jagon saileko libururen batzu argitaratzeko babesa eta diru laguntza eskatu zaio Iberduerori. J. San Martin jaunak esan duenez, *Iparragirrer*en liburu aspaldi antolatu zena izan daiteke lehen emaitza.

Aurtengo "Euskal Letren sari nagusia" P. Larzabal euskaltzainari eman zaiolako berria atseginez hartu dute batzartuek. Zorionak emango zaizkio.

L. M. Bandres, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailburuak, gutun baten bidez galdetzen du, Miramar jauregian Euskaltzaindiak bere eginkizunetarako zenbat toki behar izango duen. Behin eta berriz aurkeztutako plangintzaren berri ematea erabaki da.

Bizkaiko Aurrezki Kutxaren babesean eman ohi diren "Toribio Alzaga" antzerki saria eta "Felipe Arrese Beitia" olerki saria ez direla aurten iragarri, aipatu da. Gutun bat ere bialdu zaie babesleei. Hori dela-eta, CAVko ardura-dunekin mintzatu beharra ikusten da, "Toribio Alzaga" eta "Txomin Agirre" sari nagusien jarraipena behintzat segurtatzeko.

Lexikologiako V. Jardunaldiak abenduaren 22 eta 23an non egin, aipatu da ondoren. Bizkaiko Foru Aldundiko Gazteria eta Kirola sailaren buru den J.J. Ziarrusta jaunak aditzera eman digunez, Plentziako aterpe edo egoitza badaiteke egun horietan harturik egotea, baina Gueñeskoan balegoke leku. Ondoko hilabeteetan zehaztekotan gelditu da gauza.

Etxahun pastoralala

Barkoxeko herriak bere seme Etxahun koblariaren berrehun urtekari prestatutako ekintzak haundizki egin dira 27an. Goizeko 9etan herri meza ederra oso-osorik euskaraz izan da parrokiari. Bost meza-emaileen artean, L. Villasante eta J.M. Satrustegi egon dira. Arratsaldeko 3etan hasi da pastoralala eta lau orenez aritu dira antzesleak, ongi baino hobeki, Etxahun koblariaren bizian oinarritutako ikuskizuna ematen. Denborak ere lagundu du, bero baitzen, eta amaieran pergamu-agiri bat eskaini dio Euskaltzainburuak oroigarritzat Barkoxeko herriari. J.L. Davant,

Zuberoako euskaltzainak, esan ditu aurkezpen hitzak, Etxahunen mintzairak Bar-koxen iraun dezan opatuz. Villasante jaunak herriko alkateari eman dio gero oroit-agiria.

Eta horrela burutu da ospakizuna.

*Fr. Luis Villasante,
Euskaltzainburua*

*Jose M. Satrustegi,
Idazkaria*

1986-IX-26

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1986ko irailaren 26an arratsaldeko 4etan, egin du Euskaltzaindiak hileroko bere bilera. Etorri dira: L. Villasante burua, P. Charritton, J.L. Davant, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, L. Mitxelena, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin eta J.M. Satrustegi, euskaltzainak. M. Atxaga, J.G. Etxebarria, J.L. Lizundia, J.A. Loidi, L.M. Mugika eta J.J. Zearreta, euskaltzain urgazleak, J.M. Satrustegi idazkari dela.

P. Altunak bere amaren hilarioagatik, eta J. Haritschelhar buruordeak, ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

Uztaileko agiria onartu da gero.

Eguneko gaietan sartu aurretik, aita Damaso Intzakoaren hil-berria eman du euskaltzainburuak. Arautegiaren 33. artikulua arabera, euskaltzain baten hutsunea gertatu dela iragarri du L. Villasante jaunak, hurrengo bi batzarreetara aurkez daitezkeela hautesgaiak aditzera emanez.

Gertakizun hau kontutan harturik, Euskaltzaindiak urriko batzarrean Iruñean egitekoa zuen ehunurteburuko ospakizuna Lekunberrin antolatzea, proposatu du Idazkariak. Hilabetearen azken aurreko ostirala izan daitezkeela ona, esan du; urriaren 24, alegia. Hala onartu da.

Goizeko bilkuraren berri

Orotariko Euskal Hiztegia. Lehen zenbakia argitaratzeko egina zen iragarpenari erantzunez, bost eskaintza jaso ziren bere egunean ipinitako epe barruan. Zehaztasunik aski ezagatik edo, luzapena ematea erabaki zuten mahaikoek orduan, epe berria ezarriz.

Irailaren 12an bildu dira bigarren aldian arduradunak. Dirukontua, zabalkunde sarearen egitura eta argitaletxeen garrantzia eduki omen dituzte begien aurrean aukera egitean. Horrela, *Desclée de Brouwer* eta *Ediciones Mensajero* argitaldariei eman zaizkie Orotariko Euskal Hiztegiaren plazaratzeko eskubideak. Biok elkarre-

kin bete beharko dute beroriek idatziz aurkezturiko egitasmoa. Aho batez hartu zen erabakia eta hala jakineraziko zaie lehiaketan parte hartu duten etxeei.

Eskuartekeo gaietan, honako hauek aipatu dira: Euskaltzaindiak argitaraturiko zenbait lan, HABEk bere “Alfabetatzeko langaiak” liburuan sartzeko baimena eskatu du. Baietz esan da.

“Institut für Niederdeutsche Sprache” elkargoaren izenean, Alemaniako Bremen hirian egitekoa den sinposiorako gomita bialdu du U.J. Moritz jaunak. F. Krutwig izendatu da bertara joateko, eta ezinezkorik sort balekio, P. Altuna izango da ordezkaria.

Madrilgo Kultur ministeritzatik zenbait sariketatarako ordezkariak eskatu dituzte. Narratiba delako kondakizun sailerako A. Lertxundi izendatu da. Saiaketa lanez J. San Martin arduratuko da eta olerkigintzakoez J.M. Lekuona. Apai mahairako F. Krutwig eta Letren sarirako A. Irigoyen onartu dira. Biblioteka arazoetako ordezkaria J. A. Arana bibliotekariordea izango da.

Arabako Errektoreordetzak gure ordezkaritzan zuen tokia utzi duela, aditzera eman du E. Knörrek. 1985eko Oroit-idazkia zertan den galdetu du gero, lehenbait-lehen plazaratzeko eskatuz.

Euskararen legea Nafarroako gobernuari gaur bertan aurkeztu zaiola, esan du J.M. Satrustegik. Hobekuntzako legearen mugak direla eta nahi bezain legeasmo ona ez bada ere, aurreko zirriborroaren akats nagusiak gainditzen dituela, esan du. Kopia bat aurkeztu die batzartuei.

Errioxako Adiskideen Elkartek gomitaturik, J.B. Merino Urrutiari Ojakatron egin zitzaion omenaldian egon ziren, A. Irigoyen, J. San Martin, J.L. Lizundia eta J.A. Arana. Haren izena ezarri zitzaion bertako kale bati.

Xabier Aizarna, Gipuzkoako Batzar Nagusien lehendakariak telegrama bialdu du aita D. Intzakoaren heriotzagatik doluminak emanez.

Batzordeen berri

Hiztegitintza. Batzorde honen idazkaria den M. Zalbidek eskari bat zuzendu dio Euskaltzaindiari gutun baten bidez. Lexikologi erizpideen finkapena –LEF programa alegia– aurrera doala esan ondoren, *Egungo euskararen bilketalan sistematikoa* (EEBŠ) bultzatu beharra ikusten du, hartarako dirulaguntzak segurtatuak daudenez. Hizkuntzaren eguneratze edo modernizatze-arazoei lotutako ekintza garrantzitsu hau mugitzeko beharrezkoak ikusten dituen lehen urratsak hauek dira: helburu nagusien finkapen zehatza, funtsezko erizpideen argitasuna eta langintzako ikuspegi desberdinak eztabaidatzea. Horretarako, elkarizketa edo jardun-itxi batzu antolatzea eskatzen du.

Datorren hileko batzarrea Lekunberrin, urriaren 24ean egingo denez, goizetik bertan biltzea erabaki da. Hiztegitintzako batzordeburua eta idazkaria, euskaltzain osoak, UZEIko arduradunak eta hiztegi lanetan ari diren beste batzu gomitatuko dira.

Onomastika. E. Knörr batzordeburuak bezperan egindako bilkuraren berri eman du. Gramatika batzordean egindakoaren antzera, lankide berri hauekin lantaldea gehitzea proposatzen da: J. Orpustan, E. Goienetxe, J.M. Jimeno Jurio, R. Zierbide eta J.A. Gonzalez Salazar, oraingoz. Batzordea bi hilabetetik bilduko da. Onartu da. Datorren urteko Onomastika II. Jardunaldiak, Licenciado Pozaren IV. mendeurrena dela eta, beste ospakizun batzuren artean, Urduñan egitea erabaki da. Gai nagusia, gaur euskaldun ez diren eskualdeetako toponimia, antroponimia, hidronimia, hagianimia eta abar, izan daiteke. *Onomasticon Vasconiae* saileko hurren liburuak aipatu dira gero. Bonaparteren mapa argitaratzeari buruz ere zenbait eritzi eman dira. Toponimia bilketarako gidaliburua prestatzea, J.M. Jimeno Juriori eskatuko zaio.

Txostenak

L. Mitxelena *Orotariko Euskal Hiztegiaren* egoeraz mintzatu da. Hiztegiaren bidez jakin zuela Euskaltzaindiaren berri, esanez abiatu da. Egitekoa omen zela aipatzen zen aspaldi. Orain eskuartearen dutenaren helburua azaldu du gero. Metodologia aldetik, hitza lehenengoz noiz agertzen den esaten da, agertzen ez dela aipatzea baino erosoago denez. Bi zerrendatan joango da testua orrialde bakoitzean eta ia mila orrialde izan ditzake ale bakoitzak. Urtean zenbaki bat ateratzeko asmoa omen dute. Ez du esango, noski, zoin hitz erabili behar diren eta zoin ez; baina antzekoen arteko berezitasunak agertuko dira adibideetan, hala nola, *zur/egur*, *adiskidellagun*. Nola nahi ere, zortzi hamar urteko lana izango da. Noiz arteko lekukotasunaz baliatzen den, esan du azkenean.

J. A. Aranak egindako txostena irakurri du gero euskaltzainburuak. Gaia, Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzaz S. Calleja eta X. Monasterio jaunek egin duten euskarazko haur literaturaren azterketa. Lan horren berri ematea, alegia.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

*Fr. Luis Villasante,
Euskaltzainburua*

*Jose M. Satrustegi,
Idazkaria*

Larraun-Lekunberriko Ayestaran Hotelean, 1986eko urriaren 25ean, egun t'erdiko Gogoeten ondoren egin du eguerdi aurrean bere batzar berezia Euskaltzaindiak. L. Villasante euskaltzainburua, P. Altuna, A. Irigoyen, F. Krutwig, F. Ondarra, J. San Martin eta J.M. Satrustegi, euskaltzain osoak; J.L. Lizundia, idazkari-ordea eta M. Zalbide, Hiztegitza batzordeko idazkaria, bildu dira.

Aurreko batzar-agiria onartu da.

J. M. Barandiaran euskaltzainak ohorezko doktoradutza jaso du Deustuko Unibertsitatearengandik eta zorionak ematea erabaki da.

Ehunurteburuko omenaldiak

Bezperan, urriak 24, arratsaldeko 6etan egin zuen Euskaltzaindiak hileroko bere bilera, Intzako Damaso aitari hala nola Oieregiko B. eta J.A. Donostiari jaiot-mendeurreneko omenaldia eskainiz. Etorri ziren, L. Villasante, P. Altuna, P. Charritton, X. Diharce, A. Irigoyen, F. Krutwig, F. Ondarra, J. San Martin eta J.M. Satrustegi, euskaltzainak; J. Apezetxea, J.A. Arana, M. Atxaga, R. Badiola, P. Diez de Ulzurrun, J. Intxausti, F. Ixurko, J.L. Lizundia, L.M. Mujika, M.J. Urmeneta, J. Yurre, M. Zalbide eta J.J. Zearreta, urgazleak. Batzarre irekia izan zen.

Bertan zeuden, Araizko alkatea Martin Tolosa Balerdi, eta Antonio Urmenea Ajarnaute, idazkaria, hala nola aita F. Mujika kaputxinoen Probintzialaren izenean.

Batzarreeta ezin etorria adierazi dute, J. Haritschelhar, E. Knörr eta P. Salaburu euskaltzainek. Era berean, Riezuko aita Jorge euskaltzain ohorezkoak.

Intzako aita Damaso

J.M. Satrustegi mintzatu zen, azken irailaren 21ean hil berri dugun aita Damaso euskaltzainari buruz. Giza mailan apala eta soseguzko patxada izan zirela bere ezaugarriak, esan du. Belar onen erremedioak erabili ohi zituen bere

osasun mendrearen euskarri eta beste batzuren minen sendagai. Elizgizon osoa, Euskal Nafarroako pulpitu gehienetako hizlari izan ondoren, Chileko misiora bota zuten gerra denboran nagusiek eta han jarraitu zuen bere lana. Euskararen arloan, esaera zaharrak bildu zituen herriz-herriz zebilen denboran eta aditzaren azterketa egin zuen. Bi aldizkari euskaldunen sorketa eta zuzendaritza aipa genitzake ekintza garrantzitsuenetan. "Euskararen Adiskideak" izeneko elkargoa asmatu zuen euskal giroa Nafarroan indartzeko. 1920an jaso zuen euskaltzain izendapena eta 1921eko urtarrilaren 27an irakurri zuen bere sarrera hitzaldia. Aita Olabide arabarrak eman zion erantzuna. Ehun urte hauetako gertakizunen lekuko bizia genuen Nafarroan aita Damaso eta euskararen batasunari buruz azken aldian izan zituen kezkak aipatuz, amaitu zuen txostena idazkariak.

Oieregiko aita Buenabentura

F. Ondarra euskaltzain nafarrak eman zuen aita Oieregiren biziaren eta lanen berri zehatza. Igarle eta aitzindari nafarra deitu zuen: euskaltzalea, alaia, on hutsa, arimen alde langile nekaezina, Elizarekiko atxikimen haundikoa izan zela, aditzera eman zuen txostengileak. Aita Intzaren eragile eta sustatzaile izan zen elkarrekin sortutako *Iruharren Prantziskotarra* eta *Zeruko Argia* aldizkarien sorrera nahiz geroko lanetan. Hirurehun bat idazki argitaratu zituela berorietan, esan du txostengileak. Beste hogeita lau argitaragabeak ba omen daude Iruñean Kaputxinoen artxibu probintzialean. Euskararen batasunaz kezkati agertzen da beti eta irakurgaiak erraztuz batasunera eramaten ahalegindu zen, batez ere gipuzkera eta bizkaieraren arteko desberdintasunak bideratu nahiz. Erdaratik euskararako itzulpenez ere arduratu zen hala nola erlijio eta gizarteko hiztegia bateratzeaz.

Donostiako aita Jose Antonio

Bukatzeko, J.A. Aranak egin zuen aita Donostia, hirugarren omenduaren, aipamena. Musikalari ospetsuaren biziak eta lanak ikerketa ugari egin izan den arren, inon agertzen ez den bere biziko atal interesgarria aztertu zuen txostengileak: aita Donostiaren atzerriko egutegia, bidaiak eta lana. Omenduaren kasuan hutsune hau bete zitekeen eta Azkue Bibliotekako zuzendariordeak ongi bete du, hark bere egunerokoan utzi ohi zituen oharrez baliatuta. Horrela badakigu Dantxariatik atera zenetik itzuli arte euskaltzain urgazle gazteak Iparraldean eraman zuen biziaren berri.

Eskuarteko gaiak

"Administrazio eta Lege-arloko Itzultzaile Eskola" sortu, antolatu eta arautzeaz legeak eskatzen duen aholkularia izendatzeko eskaria jaso da, eta J.L. Lizundia izendatu da.

Felipe Arresebeitia olerki sariketarako, hala nola Toribio Alzaga antzerkigintzarako epaimahaiaren izendapena eskatu du Bizkaiko Aurrezti Kutxak. Olerkigintzarako, A. Irigoyen, J.M. Lekuona eta L.M. Mujika izendatu dira. Antzerkien sariketarako, Manu Ercilla, I. Beobide eta Daniel Landart.

Euskal Herriko Autonomi Elkarteko herrien izenak dakartzan liburua argitaratu du Eusko Jaurlaritzak eta ale bana eman zaie batzartuei. Euskaltzaindiko Onomastika batzordeak parte hartu du lan honetan eta J.L. Lizundia zen zuzenean partaide.

HABE-ko kontseiluan ordezkari dugun J. San Martin Sailburuak aditzera eman duenez, Donostiako Euskararen Udal Patronatuak 26 euskal irakaslerentzat diru laguntza eta lekua eskaintzen dizkio HABE-ri. Euskaltzaindiak bere egunean esana du euskararen ekintzetan Erakunde Amankomunatuaren bidez eta elkarren loturarekin behar litzatekeela lan egin. Hori dela-eta zoin izan behar lukeen bere erantzuna, galdetu du gure ordezkariak. Ezezkoa, esan zaio, lehengo erabakiaren ildo beretik.

Hizkuntzaren berrikuntzaz gogoetak

Egun hauetan, bestalde, eta Lekunberrin bertan, 1981ean Hondarribian hasitako ekintzari jarraituz, hizkuntzaren berrikuntzaz gogoeta batzu izan ditu Euskaltzaindiak. Atzo, urriak 24, goizeko 9 t'erdietan hasitako lana, gaur batzarre berezi honen aurretik burutu da.

Bertan egon dira, L. Villasante, P. Altuna, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, F. Krutwig, E. Larre, L. Mitxelena, F. Ondarra, J. San Martin eta J.M. Satrustegi, euskaltzainak. M. Atxaga, R. Badiola, J. Intxausti, J.L. Lizundia, L. M. Mujika, I. Sarasola, M. Zalbide eta J.J. Zearreta, urgazleak. J.M. Larrarte, Legebiltzarreko itzultzailea; I. Albisu eta E. Gorospe, Jaurlaritzako Boletinarene itzultzaileak, E. Oregi eta J. L. Berasategi, I.V.A.P./H.A.E.E.-ko zerbitzuburua eta arduraduna; L. Otaegi, E.I.T.B.-ko euskara arduraduna; A. Agirreazaldegi eta A. Sagarna, UZEI-ko partaideak. Hasieran M. Karmen Garmendia, Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkaria ere egon zen.

L. Villasantek gogoeta hauen asmoa eta helburua aipatu zituen, eta M.K. Garmendiak gaur dugun hizkuntza berrikuntza honen premia agertu zuen. L. Mitxelena, I. Sarasola eta M. Zalbidek eman zituzten geroko elkarrizketan abiapuntu izan ziren txostenak. Esandakoen edukina batzorde-idazkariaren agirian emango da zehatzago, baina han jasotako pare bat gauza eman nahi da hemen.

Gogoeta hauek jarraipen bat eskatzen dutela ikusi zen eta P. Altuna, M. Zalbide eta I. Sarasolak osaturiko batzordeñoa izendatu zen, asmoa aurrera eramateko zein bide eta jokamolde erabil daitezkeen aztertu eta zirriborroa beste batzarre batera ekar dezaten. Hizkuntzaren hitz altxorra berritzeko atzerriko erakunde ofizial nahiz bestelakoek egindakoa ere ikus daiteke.

Bestalde, 1959an Bilboko kongresoaren ondorioz zabaldutako Euskaltzaindiaren agiria hitzei buruz kontutan harturik eta haren osagarri, gaurko gehiegikeria eta zabarkeria hizkuntza arloan ikusita, lehen-bait-lehen adierazpen berri bat egin beharra dagoela.

Bereziki deituta erakunde eta elkargo desberdinetatik etorritakoei eskerrak emanez itxi zituen gogoetak euskaltzainburuak.

*Fr. Luis Villasante,
Euskaltzainburua*

*Jose M. Satrustegi,
Idazkaria*

1986-XI-28

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1986.eko azaroaren 28an arratsaldeko hiru t'erdietan, egin du Euskaltzaindiak hileroko bere bilkura. Etorri dira: L. Villasante, P. Altuna, P. Charritton, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, L. Mitxelena, F. Ondarra, J. San Martin eta J.M. Satrustegi, euskaltzainak. J.A. Arana, M. Atxaga, J. Etxaide, J.M. Etxebarria, D. Landart, J.M. Lekuona, J.L. Lizundia, L.M. Mujika eta J.J. Zearreta, urgazleak, J.M. Satrustegi idazkari dela.

J.L. Davant eta J. Haritschelhar goizeko bileran egon dira eta P. Salaburuk ezin etorria adierazi du.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

Urriko batzar-agiria onartu da.

Goizeko bilkuraren berri

Hamar t'erdietan hasi da euskaltzain osoen goizeko bilkura. Intzako Damaso aitaren hutsunea betetzeko aurkezpenen denbora bete dela, esan du euskaltzainburuak. Bi dira epe barruan aurkeztutako izenak: Patxi Zabaleta Zabaleta, Leitzakoa, P. Charritton, F. Krutwig eta A. Irigoyen euskaltzainen izenean; eta Juan Apezetxea Perurena, Goizuetarra, F. Ondarra, J. San Martin eta J.M. Satrustegi hirukoteak izenpetuta.

Datorren hileko batzarrean egingo da hautespena.

Urtearen azken batzarre horretan izango dira bi-urteroko kargu berritzeen bozketak ere.

Egunari dagokionez, azken ostirala Eguberri egunean da eta Euskaltzaindiaren batzarrea aurreko ostiralera aurreratzen da; abenduaren 19ra alegia.

Eskuarteko gaiak. Madrildo Kultur Ministeritzatik jasotako eskariari erantzunez, F. Krutwig izendatu da, 1986.eko "Itzulpen Sariketa Nazionaleko" epaimahairako ordezkari.

Ministeritza berorretako “Liburu eta Bibliotekakako” zuzendaritza orokorretik dator, bestalde, 1986.eko Literatur Sorketa laguntzak banatzeko mahaikide bat izendatzeko eskaria. J. San Martin joango da.

Unibertsitateen Kontseiluko lan talde batetarako Euskaltzaindiko lankide bat eskatzen dute Madrildik. Batzartuen artean bozketa egin ondoren A. Irigoyen jaunak atera du gehiengoa. Bera izango da erakunde honen ordezkari.

Portugaleteko Udalak ere itzultzaile lanpostu bat betetzeko epai-mahaian Euskaltzaindiko ordezkari bat egotea eskatzen du. Oraingoz R. Badiola izendatu da, baina hemendik aurrera Administrazio eta Lege-Arloko Itzultzaile Eskolaren bidez bete beharko da eginkizun hau.

Administrazio eta Lege-Arloko Itzultzaile Eskolaren aurkezpena egin dela Gasteizen, aipatu du J.L. Lizundiak. Eusko Jaurlaritzak irailaren 23an onartutako Dekretu baten bidez sortua da Eskola hau, eta izango duen Aholku Kontseiluan Euskaltzaindia ere barne egongo delakoan, J.L. Lizundia izendatu zen Larraun-Lekunberriko batzarrean ordezkari. Aurkezpenean egon dela esan du.

J. Haritschelhar jaunak “Euskaltzaindiaren estatusa Iparraldean” gaitzat harturik, azken aldi honetan Frantziako agintariekin izan dituen harremanak azaldu ditu. Jakina denez, hiruzpalau aldiz egindako eskariak erantzunik gabe geldituak ziren orain arte. Dirudenez, bi erresumatako arazotzat harturik, balegoke Frantziaren Euskal Herriko atal edo zati bezala legeztatzeko biderik. Legez egin omen daiteke. Beste urrats bat liteke, noski, nazioarteko akordio ofizial batetara iristea gero.

Azkue Bibliotekarako bi liburu ekarri ditu Argentinatik Haritschelhar jaunak: *Matxin Burdin*, Martin Fierro-ren euskal itzulpena, eta Iakakortexarenak egindako erdara-euskara *Izlegia*. Eskerrak emango zaizkie bidali dituztenei.

Barcelonako “Liber 86” Nazioarteko IV. Liburu azokan egon zen irailaren 23tik 26ra Euskaltzaindiko batzorde bat eta ekintza horren berri eman dute gaur arduradunek.

1987ko egutegiaren aurre-asmoa aurkeztu du J.L. Lizundiak ohar eta gehigarriak jaso nahian. Hiru mendeurren ditu aurkezleak: martxoaren 15ean *Eskualduna*, Lapurdiko astekariaren sorrerakoa, apirilaren 27an Toribio Etxebarria jaio zenekoa, eta Licenciado Andrés de Poza-k *De la antigua lengua de las Españas* idatzi zueneko 400.urteburua. Eskuarrean ditugun arazoetako Jardunaldiak ere aipu dira. Martxoan Lapurdin egitekotan Eskualdunaren mendeurrena, euskara gaurko komunikabideetan gaitzat har genezakeela, aipatu da.

Batzordeen berri

Lexiko berrikuntza. P. Altuna, I. Sarasola eta M. Zalbidek osoturiko batzordeñoari Lekunberrin eskatu zitzaion lexiko berrikuntza eta bilketa lana bideratzeko proposamen bat ekar zezan. M. Zalbidek aurkeztu du eztabaidagaia. Bilketa lana da, noski, orain proposatzen dena; ez da beraz arau konturik horretan. Lan hau ez du zuzenean Euskaltzaindiak bere gain hartuko; gidaritza edo nolabaiteko

gain-begirada eskatzen zaio. Horretan ari diren pertsona eta elkarteen arteko gauza izango litzateke lanaren ardura.

Bi hilabeteko epea dute euskaltzainek txostena aztertzeko eta urtarrileko batzarrean eztabaidatuko da proposamena.

Gramatika. Gramatikaren bigarren partea argitaratzeko moduan dagoela, aditzera eman du P. Altunak. Hori dela-eta aurkezpena lehen Iruñean egin zen bezala, oraingoan non eta noiz egingo den pentsatzen hastea eskatu du. Maia-tzean Arraten Jardunaldirik egingo balitz aurkezpena ere bertan egiteko eragozpe-nik ez legokeela, esan da.

Dialektologia. Bergarako UNED-koek Euskaltzaindiaren altasgintzako galde-kizunak argitaratzeko gogoia agertu dutela, esan du J. San Martin jaunak. Ez du inork gaizki ikusten eta baimena ematea erabaki da, lana nondik datorren ipintze-ko baldintzarekin.

Txostenak

Balendin Enbeita, bertsolari eta euskaltzain ohorezkoaren hil berria eman du euskaltzainburuak. Zenduaren bizi eta merezimenduei buruz egindako txostena irakurri du J.A. Aranak. Familiaz zetorkion bertsolari sena eta maila gorenean utzi du bere izena. 1984ean argitaratu zuen bere lehen liburua eta egun gutxi-erengatik ez du ikusi bere bizitza jasotzen duena.

Jon Etxaidek bere txostenean, Etxahunen sortzearen II. mendeurrena dela eta, barkoxarraren berri nola ikasi zuen agertu du. P. Lhandek emandako hitzal-di batek ireki zizkion begiak. Bizi traketsa aipatu ondoren, bere argitalpenetan Etxahun gipuzkeraz ezagutarazteko izandako neke, kezka eta ibilerak azaldu ditu. Batez ere, urrats asko eman du Barkoxeko bidean.

Amaitzeko, Flarango Nazioarteko Egunen berri emanez J. Orpustan jaunak bidalitako txostena irakurri da. Gaia: "Lur-berri egite eta toponimia mendebaleko eta erdiko Europan: Flaran-eko 8garren ixtorio egun internazionalak".

Eta besterik gabe bukatu da batzarrea.

*Fr. Luis Villasante,
Euskaltzainburua*

*Jose M. Satrustegi,
Idazkaria*

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren batzar aretoan, 1986.eko abenduaren 19an arratsaldeko hiru t'erdietan egin du Euskaltzaindiak hileroko bere bilera. Etorri dira: L. Villasante, J. Haritschelhar, P. Altuna (goizean), P. Charritton, J.L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre (goizean), L. Mitxelena, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin, J.M. Satrustegi eta A. Zavala, euskaltzainak. J.M. Leizaola euskaltzain ohorezkoa. J.A. Arana, M. Atxaga, R. Badiola, J. Etxaide, J.M. Etxebarria, J.Fz. Setien, J.L. Goikoetxea, M. Pilar Lasarte, J.L. Lizundia eta J.J. Zearreta, urgazleak, J.M. Satrustegi idazkari dela.

J.M. Barandiaran, E. Erkiaga, J. Gorostiaga, J. Hiriart-Urruty, A. Labaien eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohizko otoitzarekin hasi da batzarrea.

Azaroko batzar-agiria onartu da.

Goizeko bilkuren berri

Zuzendaritzako kargu berritzea. Zuzendaritzako kargudunen urtebiko epea igaro delarik eta aurrez egindako iragarpenaren arabera, berorien berriztatze bozketak egin dira goizeko lehen bilkuran. Euskaltzainburuak Arautegiaren 28, 29, 30, 31 eta 32. artikulua, eta Barne Erregelen 48, 49 eta 50-garrena aipatu ditu bozketa hasi aurretik.

Hamasei euskaltzainek bertan parte hartu dute, eta bost izan dira ahalmena bidali dutenak: J.M. Barandiaranek, E. Knörri; E. Erkiagak, A. Irigoyeni; J. Gorostiagak, L. Villasanteri; J. Hiriart-Urrutvik, E. Larrereri eta P. Larzabalek, P. Charrittoni. 21 botudun, orohar. Arautegiak dioenez, gehiengo nagusia behar da lehen bozketan, eta gehiengo soilak aski da besteetan.

Bana-banako bozketek ondore hauek izan dituzte: Euskaltzainburua, bozketa bakarrean, L. Villasantek 12, K. Mitxelenak 8, eta zuri bat. Buruordea, hau ere lehen bozketan, J. Haritschelharrek 13, Krutwigek 6, eta bi zuri. Idazkaria bigarrenean atera da: lehenengoan, J.M. Satrustegik 11, A. Irigoyenek 9, eta zuri bat. Bigarren txandan, J.M. Satrustegik 11, A. Irigoyenek 7, San Martinek 2, eta zuri

bat. Diruzaina hirugarren bozketan erabaki da. Lehen txandan P. Salaburuk 7 botu izan ditu, E. Knörrek 6, J. San Martinek 5, A. Irigoyenek 2, eta zuri bat.

E. Knörrek kargua ez berriz onartzeko xedea agertu du eta P. Salaburuk ere ezetza eman du. Bigarren bozketak ez du ezer erabaki: E. Knörrek 8 botu izan ditu, J. San Martinek 6, P. Salaburuk 4, A. Irigoyenek 1, eta 2 zuri.

Atsedenalditxo bat hartzea erabaki da eta elkarren artean ikuspundu batzu aldatuta hirugarren bozketa egin da, honako ondore hauekin: J. San Martinek gehiengo nabarmena izan du 15 txartel bere izenekoak agertzean, beste sei zurirekin batera.

Beste bi urteetarako zuzendaritza, beraz, honela gelditu da: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, J.M. Satrustegi idazkari eta J. San Martin diruzain.

Euskaltzain izendapena. Intzako Damaso aitak utzitako euskaltzain aulkia betetzeko bozketa egin da goizeko bigarren bileran. Batzartutako hamasei euskaltzainez bestalde ahal hauek ekarri dira idatziz: J.M. Barandiaranek, E. Knörri; J. Gorostiagak, E. Knörri; J. Hiriart-Urrutyk, E. Larreri; A. Labaienek, P. Salabururi, eta P. Larzabalek, P. Charrittoni. 21 botu dira denak.

Azaroko batzar-agirian aurreratu zen bezala, bi ziren aurkeztutako hautagaiak: J. Apezetxea irakasle goizuetarra eta P. Zabaleta legegizon leitzarra. Euskaltzainburuak Arautegia aipatu du, lehen bozketa aski ez balitz bigarren eta hirugarren bat egin daitezkeela aditzera emanez. Baina beti gehiengo nagusia lortu behar izango du hautagaiak euskaltzain izendatzeko, 12 alegia.

Hiru bozketak egin dira ondore berarekin: J. Apezetxeak 11 botu eta P. Zabaletak 10. Ez da beraz oraikoan izendapenik.

Euskaltzainburuak ireki du izenen aurkezpen berria egiteko epea: Bi hilabete izenak emateko eta hirugarren bat batzarrerara eramateko. Martxoan egingo da beraz euskaltzain berria izendatzeko bigarren bozketa.

Eskuarteko gaiak

Bilboko Egoitza berria dela eta eragozpenak sortu direla, aditzera eman du batzordeñoak. Plaza Barrieko aparkalekuari sarrera aldatzeko, egoitza berriaren horma azpitik ebaki behar omen da lurra eta ikerlanak egin arte atzerapena sortu du barneko lanentzat.

J. San Martin, Gipuzkoako ordezkaria, atlasgintzarako hitzartu berriak diren bi langileen arazoaz mintzatu da. Churruca kaleko egoitzan ez dago tokirik eta, Eusko Jaurlaritzako arduradunekin arazoa konpontzen ahalegindu ondodoren, San Telmoko erakustokian hasi dira bi neskak lanean. Horretarako, zuzendaritzak behin-behineko baimena emana dio.

Urteko liburu salmentaren balantzea aurkeztu du arduradunak. Orohar urteko salmenta zertxo bat murriztu bada ere, arteera gutxi zuten zenbait libururen

arrakasta azpimarratzen du. Durangoko Azokan bostehunen bat liburu saldu omen zen.

Argitalpenen inbentarioa, ere aurkeztu da gordailuan dauden liburu guzien zerrenda eta balioarekin.

Onomastika batzordeko azken bilkurari buruz, euskaltzainenganako errespetu gutxi adierazten duela, salatu du A. Irigoyenek. Edozein egunetan bilerak ezartzen omen direlako protesta agertu du, agirian ezartzeko eskatuz.

E. Knörr, batzordeburuak, azken orduan ezin-besteko deiaren arrazoiak azaldu ditu. Batzu eta besteekin hartu-emanak eduki ondoren, ez zuen beste egunik dei hori egiteko aurkitu.

Gutunen artean, Bizkaiko Posta, Telegrafo eta Posta Kutzako CC.OO. langile elkargoak bidalitakoa dago, lankideen artean euskara bultzatu nahian aurkitzen dituzten eragozpenak salatzen.

Batzordeen berri

Argitalpenak. Euskararen Lekukoak sortaren hamabigarren zenbakiak eztabaida sortu du. E. Knörrek dio, ez dela edizio kritikoa, huts nabarmenak dituela, eta noren oneritziarekin sartu zen bilduma horretan galdetzen du.

L. Villasante, Argitalpen batzordeburuak, txosten bat irakurri du liburu horren joan-etorri luzeak azaltzeko. Batzordean aurkeztu zelarik, besteak-beste, ez zuen inork idatziz erantzun nahi. Baraiazarrak ikustea onartu zen eta honen ohar guziak onartu omen ditu aurkezleak. Lekukoetan horrelako fielatoa pasatu duen libururik ez dagoela aitortuz, batzordearen eskuetan egon eta onartua izan delarik ez duela balio agitaratu ondoren kontuak eskatzen hastea esanez, amaitu du.

Nola nahi ere, edizio kritikoa ez baino oharduna besterik ez omen da.

Aurrerantzean horrelakorik gerta ez dadin, irakurle batzorde bat behar da askatasun osoarekin eritzia emango duena. Hauteskunde ondoko batzordeen berriztapena egitean izendatuko da.

Txostenak

Larraungo Lekunberrin Euskaltzaindiak egindako eskariari erantzunez, Andoni Sagarnak txosten bat ekarri du, lexiko-berrikuntzaren antolamendua zenbait herrialdetan nola egin den aditzera emanez. Euskarak duen egoeraren antzeko kasuak agertzen saiatu dela, esan du: Bangladesh, Egipto, Ethiopia, Filipinak, Finlandia, Indonesia-Malaysia, Israel, Canada/Quebec, Catalonia, TERMCAT, eta Norvegia. Ondorioetan aipaturiko puntu nagusiak hauek dira: Hiztegi tekniko berezituaren garrantzia, behin-behinekotasuna, berrazterketak eta hizkuntz Akademia edo antzekoren baten babesa beharra.

Aipatutako hizkuntzen egoera gurearen antzekoa ote den, galdetu zaio elkarriketan. Egoera diglosikoa eta berrikuntza-premian datza nolabait antza hori, txostengilearen aldetik.

Agintarien, Akademien eta hiztegitantza horretan dihardutenen arteko loturak ikustea zen, batez ere, eskariaren xedea eta, alde horretatik, egoera desberdina direnez ereduak ere asko dira. Euskal Herriak berari dagokiona aukeratu beharko du. Nola nahi ere, Euskaltzaindiaren erantzunkizuna akademiko hutsa izan behar lukeela babesari dagokionez, aho batez esan da.

J.L. Lizundiak, azaroko batzarrean aurkeztutako aurre-asmoaren ildotik, 1987ko batzar-egutegia zehaztu du, eta horrela onartu da.

Eguberri Christmen mezuaz mintzatu da J. San Martin. Adiskidantza agerpen hau dirutza izugarrien iturri bihurtu dela esan ondoren, atzerriko ikuspegi nagusitu dela gure artean, salatu du. Horrexegatik abiatu zen orain dela urte gutxi Euskaltzaindia Euskal Herriko irudi eta testu euskaldunekin bere eguberri-txartelak egiten. Ibilutako bidearen historia laburra egin du lurraldez-lurralde hartu diren gaien aipamenarekin. Geure baliagarrien zabalkundea egiten da alde batetik eta beste batzuei begiak zabaltzeko baliagarri gerta daiteke.

Eta besterik gabe, elkarri Eguberri onak opatuz amaitu da batzarrea.

*Fr. Luis Villasante,
Euskaltzainburua*

*Jose M. Satrustegi,
Idazkaria*

BATZAR-TXOSTENAK

AZENTUA ETA ENTONAZIOA; HARREMANAK

Euskal ebakeraz II. jardunaldiak

Durango, 1986-V-29

Karmele Rotaetxe

Orain dela gutxi, gure lengusin barritsu batek Bilboko Jantoki txinatarrez ziharduela, Elkano kaleko jaubearen “elebitasun berezia” gomuta izan zigun. Egia esan, delako gizonak, bere jantokitik alde egiten dugunean, “agul eta gelo alte” esan ohi digu, integrazio frogara eskaintzeko asmoz edo bere *espainolezko* berbaldia amaitu duela erakusteko. Eta berbaldi honi buruz, lengusinak gaineratu: “Pero habla castellano en chino”.

Hau anekdota hutsa da eta anekdotatzat hartu behar. Baina, ohartze-koa da gaur eta hemen interesatzen zaigun gaia orduan eta minutu pare baten zabaldua geratu zela. Goazen ba pausaka aztertzen gure txinotarrak egiten duena:

— Alde batetik, euskarazko soinuak bere hizkuntzaren soinuei hurbiltzen dizkie eta:

/aguRetageroaRte/ esan ordez

/aguletage/oa/te/ dio.

Hau da, euskarazko sekuentzia fonikoaren zati edo soinu batzuren ordez, beste batzu ahozkatzen ditu. Jakina denez, “Hitzaren Fonologia” deritzanak soinuen arteko oposizioak erakutsi behar ditu, soinu horren *fonema*-balioa egiaztatzeko. Delako oposizioak katearen puntu berberan jazo behar direla gomutaratu behar dugu, oraingo, azentuaren funtzioa bertan ez datzala ulertzeko.

Beste aldetik, goiko anekdota horretan “Habla castellano en chino” esaldi horrek zer esan gura du? Aipatu dugun trukeagatik ez genuke esango, zalantza barik, “habla euskara en chino”. Esan gura duena zera da: gizon txinatar horrek, gazteleraz berba egiten duenean, txineraz izango balitz legez egiten du. Eta, espainolezko berbak ebakitzen dituenean, goian aipatutako trukez gainera nabarmena agertzen dena hau da: espainolezko berbak erabili arren, hizkuntza horren gramatika arauak ondo

gauzatu arren, gizon horren jardunako estalkia, azala, “azaldaketa” (AZKUE-ri jarraituz) ez da sekula izaten gaztelanu batek erabiliko lukeena. Hemen deitzen dugun “estalkia” edo “azaldaketa” azentuagaz eta entonazioagaz lotuta dago, hain zuzen; fenomeno bi hauek kate fonikoaren zatiei edo segmentoei ez dagozkie eta, horregatik, hizkuntzalari batzuek “suprasegmentalak” dei egin diete. Guk, hemen segmentalak ez direla esango dugu, beste izenik eman gabe. Fenomeno hauei buruz, ezaguera praktikoa denok dugu (lengusinak legez) eta, behin baino sarriago, delako hiztun batek “kanpoko azentua” duela esaten dugu, adibidez. Kontua da euskaldun berrien artean sarriegi gertatzen dela hori eta Euskaltzaindiak berriro batu gaitu hemen (orain lau urte, Azkoitian egon ginian) euskararen bereizitasun ez-segmental hauei argi apur bat ekartzeko.

Euskaldun berri askok erakusten dute, “atzerritar azentu” hori arrazoi bigatik azal daiteke:

a) Dugun eta, mendeetan zehar, eduki dugun hizkuntz-kontaktoagatik: gure gizartean gaztelera (edo frantsesa) menperatzen da eta interferentziarik boteretsuena segmentalak ez diren fenomenuetan agertzen da. Horregatik, hizkuntz askotako Plangintza (“Language Planning” deritzana) eratzen denean, arduradunek kontutan hartzen dituzte (“Corpus Planning”-aren barruan) “Rules of Punctuation” and “Spelling”-en zehatzak (1). Delako erregelei esker, hain zuzen, ikasleak ikasi ahal ditu azentuak eta entonazioak dituen ondorioak bai grafian, bai eta ebakeran. Gure artean, horrelakorik ez da egin.

b) Oraintsu arte, euskararen irakaskuntza idatzitako hizkuntzaz larregi kezkatu da, euskara batua idazteko hizkuntzarako sortu zelako. Baina, inoiz ere ez da larregi azpimarratuko hizkuntza naturalak ez direla gramatika erregelen multzoak bakarrik, ez eta *segmento fonikoei* dagokien aginte multzoa ere, soilik. Gizon-emakumeek ditugun hizkuntzak (hau da, hizkuntza naturalak eta ez artifizialak) hizkuntza biziak izanez gero, *ahoz* erabiltzen ditugu jatorriz, lehenbiziz eta batez ere. Idatzitako hizkuntzagaz parekatuta, ahozko hizkuntzak duen lehentasuna adituteko, gogoan eduki behar ez dagoela haurrik berba egin baino lehenago boligrafoa erabiltzen duenik. Azentua eta entonazioa ahozko hizkuntzari dagozkio eta fonologiaren sailean sartzen dira, euren ondorioak bai gramatikan eta bai pragmatikan ageri arren. Esan daiteke ez dagoela hizkuntzarik, era batez edo beste batez, azenturik eta entonaziorik ez duenik (doinuen hizkuntzez (2) ez naiz ari), munduko hizkuntzak ezagutzen

(1) Ikus, adib. Moshe NAHIR: “Status Planning and Corpus Planning in Modern Hebrew”, in J. MAURIS (ed.) *L'Aménagement linguistique comparé*, Gouvernement du Québec, 1987.

(2) Hau da, doinuak, soilik, eragindako aldaketak dituen hizkuntzak (txineraren euskalkiak, serbo-kroata, etab...).

ditugun neurritz, jakina. Zoritxarrez, ahozko euskara gutxi (edo txarto) ezagutzen dugu, deskripzioak falta zaizkigulako. Euskarari buruz, dogma batzuek irauten dute, hizkuntzaren benetako egitura ezkutatu. Baina, azentua eta entonazioa finkatzeko, dogmek ez dute baliorik eta deskripzio gehiago beharko genituzke, derrigor. Bestalde, bistan dago edozein deskripzio —bere helburua lortzeko— finkatu behar duela, lehenbiziz, zer diren fenomeno bata eta bestea. Hori dela eta, II Jardunaldi hauetako eztabaidak ireki baino lehenago, argi eta garbi eduki behar dugu, gutxienez, zelan ageri diren azentua eta entonazioa beste hizkuntza askotan (eta ez, soilik, espainolean edo/eta latinean), eta ze funtzio bete duen batak eta besteak (3). Jakite honek baimendu behar diguna hau da: a) azentua eta entonazioa beste fonologiaren fenomenuetatik aislatzea; b) azentu eta entonazioa, parean jarrita, fenomenu biren arteko aldeak argitzea. Horretarako, onartu behar da euskal azentua zelakoa den jakiteko, aldeztu aurretik jakin behar dela zer den azentua Hizkuntzalaritza Orokorrean. Hori dela eta, hauxe da erabiliko dudan eskema:

1.—AZENTUA; 1.1 Hizkuntzalaritza Orokorra ematen duen azalpena - 1.2. Euskal azentuaren gauzatzea - 1.3. Grafiari eramateko proposamena.

2.—ENTONAZIOA; 2.1. Hizkuntzalaritza Orokorra ematen dituen azalpenak eta gure aukeraren arrazoiak - 2.2. Euskal entonazioa.

3.—AZENTUAREN eta ENTONAZIOAREN ARTEKO HARTUEMONAK; 3.1. Fenomeno biak nahastuteko arrazoiak - 3.2. Bereiztuteko beharrak.

Bestalde, aurkeztuko ditudan ideiarik nagusienak ez direla berriak aitortu behar dut (4) eta Euskaltzaindiaren barruan ere azaldu ditut (5). Baina, ordutik hona, nire hipotesia aldatzeko arrazoirik ez dut ikusi.

1. AZENTUA

Linguistika orokorrean, azentuaren estudioa Fonologian sartu ohi da eta, Fonologiaren barruan, *Azentologian*.

Erabiliko dudan terminologiaz, zer edo zer esan behar: *soinua* “sonido”, “son” edo “sound” adierazteko gordeko dut, eta *fonema* (behar

(3) Karmele ROTAETXE: *Estudio estructural del euskara de Ondárroa*, L. Zugaza, Durango, 1978. 2.0, 2.1 eta 2.2 Kapit.: 140-206 orr.

(4) —: “L’accent basque (Observations et hypothèses)” in *La Linguistique - Revue Internationale - International Review*, 1978-2, Paris, New York: 55-77.
“L’accent basque” - *Abstract*, in *Language and Language Behavior Abstracts*, 13 / 4, 1980. San Diego, Ca.: 964 - ref. 05118.

(5) —: “Euskal Prosodiaz”, in *Euskera*, XXVI, 2.ald., 1981-1: 381-396.

izatekotan) “fonema”, “phonème”... adierazteko. Jakina denez, hiru parametro bereizten dira soinu bakoitzean: fisika-arloan, luzeera, bibrazio-anplitutea eta bibrazio-frekuentzia. *Perzepzioari* dagokionez, honela etortzen zaizkigu: lehena, *iraupena*, bezala: bigarrena, intentsitatea edo *indarra* (eta hitz hau gordeko dut): hirugarrena, goiera bezala eta, honetan, lehenbiziko fundamentalaren frekuentziaz gainera, tinbrea eta *doinua* sartzen dira; horregatik eta ohituragatik, doinua gordeko dut hirugarren parametro hau izendatzeko. Beraz:

— Fisika ... luzeera; bibrazio-anplitutea; bibraz. frekuentzia.

— Perzepzioa.. *iraupena; indarra; doinua*.

Inziso gisa, azpimarratu gura dut zientzia guztietan preminazko dela terminologia. Eta funtsezko nozioak izendatzen dituen goiko hauetan doinua soinuaren parametro (eta konpontzaile) bat izanez gero, ezin dugu hitz bera erabili entonazioa deitzeko, fenomeno ezberdin biren aurrean gaudelako. Esaterako, soinu bakoitzean doinua dugu baina ez dugu entonaziorik, hau beste zerbaiti dagokio eta (ikus. beherago).

— *Zelan gauzatzen da azentua?* Ez dago mila bide: edo azentuak soinu baten parametroei zer edo zer kentzen die (iraupenari edo indarrari edo doinuari, edo denei) edo, alderantziz, azentuak soinuari zer edo zer gehitzen dio eta, berriro, izan behar da edo iraupena, edo indarra, edo doinua. Munduko hizkuntzak aztertuak izan diren neurriz, bigarren prozedura hau erabiliena dugu; hori dela eta, gehigarri hau hartzen duen soinuak inguruko soinuaren artean *gailetzen* da eta *gailendu* hitza gordeko dut “destacar” edo “mettre en relief” adierazteko, *gailentze* hitza esp. “prominencia”, ingl. “prominence” edo fr. “proéminence”, izanik.

Geroago ikusiko denez, entonazioak doinua erabiltzen du melodiaren aldaketak lortzeko. Azentuak erabiltzen duen parametroa, ordea, hizkuntza batetik bestera desberdina izan daiteke: gaztelaran, adibidez, indarra da; frantsesean, berriz, doinua. Nahiz eta hizkuntza bi hoietan hitz bera erabili, “acento” edo “accent”, ingelesak, esaterako, baditu hitz bi azentu-mota desberdin hoiek izendatzeko: “stress”, lehen kasuan, “pitch”, bigarrenean. Baina, parametro hauek ez dute banaka funtzionatzeko eta, aspalditik Maurice GRAMMONT-ek erakutsi zuen indarraren gailentzeak erakartzen duela beti iraupenarena eta sarritan doinuarena, alderantzizko erakarrera jazo barik:

“L’intensité entraîne toujours avec elle la durée et souvent la hauteur; la réciproque n’est pas vraie” (6).

(6) M. GRAMMONT: *Les vers français, ses moyens d’expression, son harmonie*, Paris, 1913 - S. KARCEVSKIJ-ek aipatua “Sur la phonologie de la phrase”, in *TCLP*, 4 (1931): 118-228, eta 201 bereiziki.

Behar bada, horregatik ere, indar-azentua benetako azentutzat hartuta izan da, askotan.

Nire hipotesiak parametroen arteko erlazio hau oinarritzat hartzen du. Hori dela eta erakutsiko balitz oinarri teoriko hau zuzena ez dela, beronengandik datozen ondorioak egokitu beharko lirateke.

Hizkuntza baten azentuz eta entonazioz auduratzen den azterketak argitu behar du, alde batetik, azentu-parametrorik garrantzitsuena zein den eta, beste aldetik azentu-gauzatzeak eta melodiaren gora-beherak ze hartuemonetan gelditzen diren. Hau lortzeko, abiapuntutzat onartu behar da —teoriaren mailan, behinik behin— fenomeno bi direla, bakoitzak bere markoa duelarik. Gure hizkuntza kasuan, baina, diferentzia hau egitea ez da errez izan eta, behar bada, ez dela oraindino erraz onartzen. Betidanik, fenomeno biak nahastuta ageri dira. Adibidez, ALTUBE-k *El acento vasco* liburuan “entonación” edo “acento” erabiltzen ditu, hitz biren arteko alderik —edo, behintzat alde teorikorik— egin barik (7) eta AZKUE-k parentesien artean sartzen du (“la entonación”) “el acento” aipatzen duenean (8).

Dirudienez, gaurko egoera ez da asko aldatu eta ez da aldatuko behar ditugun oinarri teorikoak onartu arte eta hauei dagozkien definizioak adierazi arte. Zeren, oinarri batzuk finkatu ta gero, ikerlangileek ondorio berdinetara hel daitezke edo ez; dena dela, eztabaida dezakete. Baina, oinarri teorikorik gabe, ezin hel daitezke ondorio berbera, ez eta eztabaidarik eduki.

1.1. Oinarri teorikoak

Azentuari dagokionez, goiko lerrook oinarririk garrantzitsuenetarikoa bat finkatu dute: azentua da soinuen parametroei esker marko baten barruan jazoten den gailentzea. Hortaz, Paul GARDE-ren definizioa nirela egiten dut lan honetan, beste aurreko lanetan egin nuenez:

“mise en valeur d’une syllabe —unité accentuable— dans le cadre du mot —unité accentuelle—” (9).

Definizio honetan, nabarmena dena hau da: nahiz eta azentua silaba batean (geroago zehaztuko dugu hau) jausi, bere efektua hitz bati (hau ere zehatzago ikusi behar da) dagokio. Ikusten denez, hain zuzen ere, goiko definizioan gauzak ez dira “a priori” emanak. Adibidez, jakin behar da zein den hizkuntza bakoitzaren barruan unitate azentugarria (“unité

(7) ALTUBE taí Seber: *El acento vasco (en la prosa y en el verso)*, Bermeo, 1932, 219 orr.

(8) R.M. de AZKUE: “Del acento tónico en algunos de sus dialectos”, in *Euskera* VI, 1930: 282-297, 282 bereiz.

(9) P. GARDE: *L’accent*, París, P.U.F., 1968, 53 orr.

accentuable”) eta, hizkuntza askotan, silaba baldin bada ere —definizioan aipatzen denez— beste hizkuntza batzuetan segmento txikiagoa dugu, *mora*, hain zuzen. Euskarari aplikatzeko orduan, puntu hau erabaki behar da. Bestalde, azentudun unitatea ere (“*unité accentuelle*”) ez dago a priori emanda. Adibidez, gure hizkuntzarik gehienetan grafiari dagokion unitatea (hitza) baino txikiagoa ez bada ere, bistan dago handiagoa izan daitekeela; horrela, hizkuntza batzuetan azentua hitzari dagokio (gaztelera, adib. “*célebre*” / “*celebre*” / “*celebré*”...) eta beste batzuetan, frantsesean legez, hitz-taldeari: “*Monsieur*” baina “*Monsieurjean*” eta “*Monsieurjeandubois*”. Bigarren kasu hau izatekotan, hitz-taldearen berbak hartuemon estuetan egon behar direla suposa daiteke.

Bistan dago, euskal azentuaz mintzatzeko, jakin beharko dugun zein den edo izan daiteken *azentuaren markoa*. Zeren, aipatu dugun gailentze hori erlatibo nozioa dugu, unitate azentugarria *beste batzuen gainean* gailentzen delako, sortzen den *kontraste* bati esker. Hain zuzen, azentuaren garrantzirik handiena bere *funtzio kontrastiboan* datza eta hau, marko batean gertatzen eta gertatu behar delako, *funtzio demarkatiboa* ere dugu. Hori dela eta, azentudun unitate batean —marko batean— sortzen diren kontrasteek eragiten dute *azentu-egituratzea* edo *azentu-itxuraketa* izendatu genuena (10) “*configuration accentuelle*” bihurtzeko. Beste moduz esanda, funtzio kontrastibo horregatik, marko bateko unitate azentugarri guztiek —gailendurik daudenek eta ez daudenek— moldatzen dute azentu-itxuraketa. Euskal azentuaz arduratzean, konzeptu hau ere zaindu beharko da, nahiz eta gure estudioetan berria izan.

Beste oinarri batzuk argitu ditugu hemen: gailentzea unitate azentugarrian jazoten da; azentua ohartzen da kontraste baten bidez eta kontraste honek bere markoa du. Gainera, badakigu hizkuntza batzuetan azentua *libre* izaten dela (gaztelera...) eta beste batzuetan, *toki finko* batean. Oinarri guztiok batuta gero, azentu deskripzio batek finkatu beharko ditu:

a) Unitate azentugarria: silaba? mora?

b) Azentuak bereiziki erabiltzen duen parametroa, indarrak doinua eta iraupena dakarrela kontutan edukiz.

d) Azentudun unitatea: hitza? hitz-taldea?

e) Hitzaren edo hitz-taldearen barruan, ze tokitan kokatzen den unitate azentugarria: toki finko batean —beti bat delako (frantsesean bezala) edo arau batzuen bidez finkatu ahal dugulako (latinean bezala)—edo, alderantziz, toki mugikor batean (gaztelera bezala)?

(10) K. ROTAETXE: “Euskal Prosodiaz”, op. cit.: 384.

1.2. Euskal Azentua

Roman JAKOBSON-ek dioenez, azalpen batek zera hartu behar du helburutzat: barianteen zehar, inbarianteak argitzea. Euskal azentuari dago-kionez, delako “inbarianteen” bila joan behar da zehatz indibidualetan ez itoteko.

Orain hamar urte, euskarari buruzko lehenbiziko espektrogramak aurkeztu eta aztertu nituen (11). Azentuari buruz orduan atara nuen hipotesia, gaur ere —beste espektro berriak aztertuta gero— mantenitzen dut (12).

Hortaz, goiko itaunei erantzuten saiatuko naiz:

a) Espektrogramei esker, euskararen unitate azentugarria *silaba* dela eta ez mora ikus daiteke. Euskararen azentua doinuzkoa zela hain sarritan aipatua izan delako, egiaztapen hau egin behar zen.

b) Silaba bat gailentzeko erabiltzen den parametroa *indarra* da espektrogrameen azterketek erakusten dutenez. Hain zuzen, lan honegaz aurkeztutuen ditudan 2.2.0.0. eta 2.2.0.1. espektrogrametan, goiko kurba indarrezkoa da eta bistan dago *a* bokalak —ostaabe berbakoa— inguruko bokalekaz gonparatuz, indartsuagoa dela, dagokion kurba-zatia altuago doalako. Egia da Ondarruko berba honetan kontrakzio bat jazoten dela, euskal ebakeran hain sarritan gertatzen denez. Baina kontrakzio honek, hain zuzen ere, silaba horren azentua indarrezkoa izan behar dela frogatzen du, Mitxelena-k aspalditik eta hizkuntza-historiaren arauera erakutsi zuenez (13). Doinuaz, geroago arduratuko naiz. Eta iraupenari dagokionez, fonemen azterketak argitzen duena ohartzen da: iraupena ez da ezaugarri pertinentea, beste ezaugarriek, automatikoki, ekarritako bat baino (14). Jakina, Paul GARDE-k dioenez (15), belarrira parametro guztiak “en vrac” etortzen zaizkigu eta, ez da erraz jakiten, makinarik gabe, zein den parametrorik nagusia.

d) *ri* erantzuteko —hau da, azentuaren markoari buruzko itaunari— jarraitu diodan taktikaz hitz bi esan behar aurretik. Ohitura denez, intere-

(11) K. ROTAETXE: Op. cit. in (3): 58-59-69-61-153-154.

(12) Eskaini didan laguntzagatik, eskerrak eman behar dizkiot Hizkuntzalaritza Orokorreko Sailean lankidea eta adiskidea dudan Maitena Etxebarria Irakasleari.

(13) L. MICHELENA: “A propos de l’accent basque”, in *BSLP*, 53 (1957-58): 204-223.

(14) Honetaz, cf. adibidez: Karmele ROTAETXE. “Interpretación silábica en la lengua vasca”, in *Estudios ofrecidos a Emilio Alarcos Llorach*, V. Univ. de Oviedo, 1980. Lan horretan, *la* (tza)/*laa* (tza) oposizioa aztertu nuen eta bigarren *laa* zatiak silaba bi dituela agertzen da, espektrograma batzuei esker; ez dago bocal luzerik ez eta geminadarik.

(15) P. GARDE: Op. cit. in (10): 52.

satzen den hitza kontesto foniko berezi batean sartu behar da, balio metalinguistikoa emateko asmoz eta entonazioaren efekturik at lagateko; horretarako tokirik onena erdikoa da eta Ondarruko inkestetarako erabili dudan kontestoa: /Ostabe.....diñot/ izan da. Hori dela eta, interesatzen den berba mugatuta geratzen da, baina entonazio gabeturik. Pentsa daiteke baina, mugatzailea, aktualizatzailea edo artikuloa, hau da —a, enklitiko delako, berez, azentugabeturik dela, enklitiko guztiak bezala. Espektrogramen azterketek erakusten dute *hitz-oinaren*, edo *basearen*, silaba bat gailentzen dela eta gailentze hau indarrak ekarritakoa dela, lehen esan denez: ikus daiteke 2.2.0.0. espektroko /andri/-ren silabak (16).

Bidenabar, eta honetan datza nire iker-lanaren alderik jakingarriena, honetaz ohartu naiz: *singularrean*, artikuloa kokatzen den silaba altua da; silaba horren frekuentziaren *armonikoak* gorantz doaz, nahiz eta indarra handitu barik. Horrek esan gura du, silaba horretan, *azentu-oihartzuna* dugula eta oihartzun hori *doinuak* ekarritakoa dela (ikus. 2.2.0.0. espektrograman /andria/ taldeko soinuaren armoniko-joerak, batez ere /i/tik /o/ra pasatzean).

Silaba bi baino gehiago dituzten unitateetan, *azentua duen silabatik eskumaldera doinua mantengitzen da silaba guztietan*. Horregatik entzuten dugu /adiskide/ edo /lengusina/ edo /batasuna/ edo /aurrerakada/ eta ez dugu inoiz ere entzuten /adískide/ ez eta /adiskide/ ez eta /adiskidé/, gazlererazko azentuagaz. Baina, arrazoi berberagatik —doinua mantengintzen ez dutelako— euskara (edo, behinik behin, bizkaiera) entzuteaz ohiturik ez dutenengandik entzuten da sarritan /Euskadiko Ezkérra/ edo /Hérri Batasúna/ eta mila eta mila antzeko adibideak. Eta euskal berbak erdarazko esaldi batean sartzen direnean, erdal azentuari jarraitzen diote: “Trabaja en Euskaldúna” edo “tiene el título de Euskaltzáindi” edo “voy a Donóstia”.

Ohar honek esangura du azentu-oihartzuna zabaltzen dela *sapalda* batean (“plateau accentuel” deritzana, eta frantses esakera hau ingelesez ere gordetzen da), azentudun silabatik eskumara azentu-markoa agortu arte. Azalpen honen bidez, hobeto ulertzen da -eta justifika daiteke zergatik hain sarritan aipatu den euskal azentua doinuzkoa den eta zergatik S. Altube-k, adibidez, esan zuen:

“la palabra vasca es impulsivamente isotónica, o sea que todas las sílabas se pronuncian con igual fuerza impulsiva” (17).

(16) Gaitza da erabakitzea ea *r* bibranteak esbaribatiko bat sortzen duen -hori adierazteko *i* (?) txikerra jarri dut- ala *i* bokalak lotzaiki bat sortzen duen *o* bokalaraino. Dena dela, *dri* silaba da indartsuena espektro honetan, hau da, bigarrena hemen ere, orain baino lehenago aurkeztu ditudan espektrogrametan legez.

(17) ALTUBE tar Seber: *Observaciones al tratado de Morfología Vasca de D. Resurrección M. de Azkue*, **Euskera**-tik atera izan zuena, Bermeo, 1934,

edo

“(..) la definición del acento euskérico; en este idioma, el tono de las palabras aisladas normalmente pronunciadas es de una uniformidad casi absoluta” (18).

Gauzak horrela izanez gero, indar-azentua duen silabak eta doinua mantengitzen duten hurrengo silabek (hau da, lehenaren eskuman daudenak) ematen diote entzuleari —denen artean— *azentu-itxuraketa*. Hori dela eta, azentu-markoari dagokionez, parametrorik handiena doinua dugu. Ohar daiteke, hain zuzen ere, doinuari esker lortzen den azentu-oihartzuna sapalda (“plateau”) bat legez erreazizatzen delarik, unitate batetik bestera zabal daitekela, azentudun hitz-talde bat emateko, hau da, azentu-markoa gauzatzeko. Hau gertatzen da izena eta izen-lagun atributoaren artean, adibidez. Hurrengo sintagmak /ume ona/ edo /etxe ederra/ etenik gabe entzuten dira eta *mé* edo /txé/ silabetik aurrera doinua geratzen da /uméóná/ eta /etxéderrá/ emateko. Azentu-marko hau ederto ikus daiteke 2.2.0.0. espektrograman: doinuari esker, /andriona/ unitate bakar bat izango balitz legez agertzen zaigu; aurretik eta atzetik mugatuta, hemen dugu azentuaren markoa. Baina, bestalde, /ostabe/ unitateak bere markoa du eten baten bidez amaitzen delarik.

Naiz eta inguruko hizkuntzetan azentu-oihartzun fenomeno hau ez jazo, errusieran jazo ei da eta japonieran, adibidez, antzeko gauza dugu kontrako sapalda bat izanez, hau da, eskumatik ezkerreantze. Baina, eta guretzat harritzekoa ez da, japonierari buruz ere —euskarari buruz legez— askotan esan da azenturik ez zeukala (19).

Azaldu dudan fenomenua —*oihartzuna*— ditudan datuekin ez da *pluralean jazoten*. Hau da, pluralizatzaila -g, forma baten egiturari sartuta gero, jesartzen den silabaren armonikoak *beherantz doaz* (ikus. 2.2.0.1. espektroko /andrak/ eta /onak/ berbetan azpimarratutako silabak). Azentuari dagokionez, pluraleko morfema honek oso ondorio berezi eta garrantzitsu bat duela esan daiteke, hemengo euskalkietan, behintzat. Enklitiko delako azentu gabeko izanik, bereizitasun bi ditu: alde batetik, ez du azentu-oihartzunik hartzen eta, beste alde batetik, Ondarroan, behinik behin, hitzaren azentua, bera, atzeratu egiten du, aurreko silabara bial-

(18) —: Op. cit. in (7): 21 orr.

(19) E. POLIVANOV: “La perception des sons d’une langue étrangère”, in TCLP, 4: 79-98 orr. Iker-lan horretan, argi ta garbi egileak dio: “La conviction régnait chez les savants russes qu’en japonais il n’y avait pas d’accent du tout”: 87 orr. Bestalde, cf. nire hipotesia hobeto ulertzeko N.S. TRUBETZKOY-ek dioena *Mie-ko* (Nagasaki-n) japonésari buruz: “La mise en relief accentuelle peut embrasser toute une suite de prosodèmes, de sorte que cette série de prosodèmes, peut éventuellement former un mot tout entier”, in *Grundzuge der Phonologie*, J. Cantineau-k *Principes de Phonologie*, itzulpenetik, Paris, 1967: 218.

duz. Horrela, 2.2.0.1. espektroan, armonikoei dagokionez, /andragonagdi/ talde honetan, /an/ silabatik aurrera armonikoak beherantz doaz; eta, indar-kurbari dagokionez, hartzen badugu, orain, /andrag/ unitatea lehenengo silaba bigarrena baino indartsuagoa dela agertzen da.

Hortaz, pentsatu behar da azentu-itxuraketa morfologiagaz lotuta dagoela gure hizkuntzan eta azentu-markoa finkatzeko morfema bakoitzaren efektua kontutan eduki beharko genuke. Arrazoa hau da: base edo hitz-oin bati lotzen zaizkion morfemak (hizkuntza eransle baten aurrean gaude) atzizkiak direlarik, bakoitzaren efektuak alda dezake hitz-taldearen muga eta azentu-itxuraketa. Nahiko aspalditik aurkeztu nuen morfemen banaketan —azentuari begiratzuz— izen forma batean sartzen direnek ez dute efektu berdinek (20). “Grosso modo” baina, efekturik handiena eta pertinenteena pluralegilearena da.

Hitz batez, hona nire ondorioak:

- Unitate azentugarria silaba da.
- Euskal azentua indarrezkoa da, baina.
- Azentu-oihartzun bat ageri da, doinuaren bitartez, azentudun silabatik eskumara, eta oihartzun hau sapalda batean (“plateau”) zabaltzen da, singularreko formetan.
- Pluraletan, bereizi behar dira lehen-denborazko kasuen formak eta beste guztiak, morfologiari dagokionez eta, jakina, azentu-itxuraketari dagokionez. Leku-denborazko formen itxuraketaz ez naiz hemen arituko (21). Beste pluraleko formen egitura, jakina denez, honela da: Hitz-oina (edo Basea) -a -g-funtzio marka, -g- konpontzaile hau pluralegilea izanik. Deskripzioak erakusten du pluralegile honen silabak (ezin naiz hemen sartu morfonologiaren zehatzetan) ez duela oihartzunik hartzen eta bere eskuman dauden silabek ere ez.
- Bisilabadun hitzetan, -g-ren efektu atonizatzaileak hitzaren azentua atzera bidal dezake: /andri/ hitzak bigarren silaban azentua dakar, baina /andrak/ lehenengoan.
- Euskarán, azentu-markoa hitz-taldea izan daiteke beti. Hiztegiko unitate ezberdinek talde bat eratzeke gramatikari edo/eta pragmatikari dagokien zenbait baldintza bete behar dute: adibidez sintagma bat eratzeari (*andrióna*). Bestalde eta esan denez, markoak azentudun silaba

(20) K. ROTAETXE op. cit. in (3), 4 Kap.: *Sistema acentual en formas ligadas nominales* - 4.1 Kap.: *Clasificación acentual de los morfemas* eta honi buruz datozen *observaciones*.

(21) Aldeak ikusteko, cf. op. cit. in (3), 3.10 kap. morfologiarako eta 4 kap. morfemen banaketarako.

(*gailentzea*) besarkatzen du eta bere barruan mantenitzen den soinu-parametroa doinua izanez, doinua dugu markoaren lokarria. Horregatik entzuten diren hitz-taldeak erritmo-taldeekin lotuta daude, zalantza barik.

— Pluraleko formeetan singularrekoetan baino *eten* gehiago ager daitezke pluralegilearen efektuagatik.

— Azkenez eta goiko e) itaunari zera esan behar da: azentu-itxuraketa aldean utzita, hiztegi baseak badauko azentua eta ditudan datuen arauera, hitzik gehienetan bigarren silaban —ezkerretik kontatuta— jausten da, nahiz eta hitz batzuetan lehenbiziko silaban egon. Aztertu dudak euskarari, azentuaren kokaguneak bereiz dezake zenbait oposizio: /báso/basó/; /txistu/txistú/; /hónek/honék/; ... (22).

1.2.1. *Euskal azentu motak*

Oraintsu azaldutako azentua ez da bakarra gure hizkuntzan. Behin baino sarriago aipatua izan denez (23), lau azentu mota bereiz daitezke euskarari. Batzuen ustez, egoera honek aukera bat eskatzen du azentu bakar bat irakaskuntzan eta mass-medietan erredutzak eskaintzeko, euskarari barietateen arteko aukera bakarria egin zen bezalaxe. Nire ustez, baina, badago zer edo zer uniformitate hori baino garrantzitsuagoa dena: irakasle bakoitzak ezagutu beharko luke bere azentua zelan gauzatzen den errealizazio hau bere ikasleei irakasteko gauza izateko. Argi dago, baina, horrelako prestakuntza ez dela gaur egun ematen ez Eskoletan ez eta Fakultateetan. Gauzak honela izanez gero eta moteen arteko aukera egitekotan, azaldu dudak motaren alde nago, arrazoi bikatik: a) soziolinguistikari dagokiona: azentu mota hau Mendebaldekoa da eta bere eskemari begiratzen badiogu (eta ez ebakera indibidual bati), hau da, Fonetika hutsetik Fonologiara igarotzen garenean *pertinentea* zer den topatzeko, orduan eskema hau hiztunik gehienok duguna da; b) hizkuntz barruko arrazoiak: azentu mota honen ezaugarriok euskal azenturaren bereizitasuna azaltzen dute. Alde batetik, indar azentua delako, historian zehar jazo diren kontrakzioak eta gaur egun oraindino gertatzen direnak (ikus. espektroetan, *ostabe* berba, “ostera bere” adierazteko) aditu ahal ditugu; bestalde, doinu oihartzunak dituen ondorioek erakusten digute zergaitik

(22) — op. cit. in (3): 161-162.

(23) L. MICHELENA: “A Note on Old Labourdin Accentuation”, in ASJU, 6: 110-120, 1972.

N. HOLMER: *El idioma vasco hablado*, San Sebastián, 1964.

W. JACOBSEN: “Nominative-Ergative Syncretism in Basque”, in ASJU, 6: 67-109, 1972.

hain sarritan (24) aipatua izan den doinuaren garrantzia gure hizkuntzan. Gainera, doinu oihartzun hau ez da jazoten inguruko hizkuntzetan eta euskarak berezkoa duela pentsatu behar da.

1.3. Grafiari eramateko proposamena

Goian esan denez, nire *Estudio estructural del euskara de Ondárroa* liburuan azentuari buruzko euskal morfemek dituzten propietateak azaldu nituen. Arazo horretaz, zehatz eta mehatz hor aritu nintzan eta, ez dut hemen astirik azalpen luze hoiek errepikatzeko, kritikarik izaten ez den bitartean, behinik behin. Zelan edo holan, baina, proposatuko dudana notazioa ulertzeko beharrezkoak dira.

Bestalde eta jakina denez, azentua notatzeko, diakritiko batzuk erabiltzen dira, benetako azentuaren gorabeherak erreflejtatzeko gauza ez direla izaten jakin arren.

Gure kasuan, diakritikoren bidez erabilkeran jazoten diren azentu-itxuraketa motak (singularreko eta mugagabeko sekuentziak vs. pluralekoak edo leku-denborazko singularren sekuentzien itxuraketak etab. (25) bereizi beharko ditugu. Hitz batez esateko, hau da diakritikoek erakutsi behar dutena: itxuraketa mota biren arteko aldea; jakina denez, sekuentzia batzuetan doinu oihartzuna geratzen da eta beste batzuetan, ez. Diferentzia hau jasoteko, diakritiko tipo bi erabiliko dira. Gainera, jakin badakigu barbarik gehienetan azentua bigarren silaban jausten dela, baina beste batzuetan, lehenean, eta alde hau ere agertu behar da. *Estudio estructural del euskara de Ondárroa* delakoan proposatu nuen notazioak ekonomia-erizpideak bilatzen zituen batez ere, diakritiko bakar bat eskainiz: diakritikoa, hain zuzen, azentu-eza adierazteko.

Nire oraingo ikuspunduz, diakritiko bi erabili beharko lirateke: azentu eza adierazteko eta azentua adierazteko. Diakritiko hauek erabiltzeko araquak hauek dira:

A.1: ^ˈikurra azentudun silaban ipini behar da. Izan daiteke lehena edo bigarrena (báso/basó; txistu/txistú, etab...).

A.2: maileguzko hitzak aldean utzita, diakritikoa duen silabatik aurre-ra doinua mantengitu behar da, ahozkatzean, hitza edo hitz-taldea amaitu

(24) Ez bakarrik AZKUEK eta ALTUBEK, lehen esan denez, ikus. baitx ere: J. BASTERRETXEA "Estudios sobre entonación vasca según el habla de Guernica" (I), in *Fontes Linguae Vasconum*, 18: 353-393, eta (II) in *id. id.*, 21: 289-338, 1974 eta 1975.

(25) K. ROTAETXE op. cit. in (3): 555-563.

arte: adib. *gizónari* forma honetan doinu sapalda (“plateau”) sortzen da azentutik aurrera; gauza berbera esan gura dugu *gizónek* mugagabeko ergatiboan, edo *gizónak* singularreko ergatiboan edo *gizonáगतik* (azken honen pluralez, geroago arduratuko naiz), idazten ditugunean.

A.3: maileguzko berbek aparteko tratamendua merezi dute. Dirudie-nez, hauek oihartzunik ez dute edukitzen: adibidez, /ze báso/ formak eta ergatibo singularreko /básoak/ formak edo hitz honen beste formek gaztelerazko azentua dute.

A.4: ^ˆdiakritikoa agertzen den silabak ez du azenturik ez eta oihar-tzunik, ez silabak berak, ez eta bere eskuman dauden beste guztiek, berba amaitu arte. Ad.: *gizónèi* edo *lagúnèkin* forma idatzita hauek ahoz-katu behar dira azentu-oihartzun barik *nèi* silaban, lehen kasuan, eta *né* silabatik aurrera (hau kontatuta), bigarren kasuan.

A.4.1: salbuespen bat egin behar da hemen. Dirudienez, *-gatik* mor-fema kontuan, bigarren azentu bat (“acento secundario”) edo ohartzen da. Paradigma honen azentua aztertu nuenea (26) ^ˆdiakritikoa erabili nuen honetarako. Adibidez, *gixónakâitik* idatzitako forma honetan, ^ˆdia-kritikoak zera adierazten zuen: aurreko silaba (*na*) azentu barikoa izan arren *kâi* silaban eta honen hurrengoan (*tik*) doinua ez zela behean geratzen, beste pluraleko formetan jazoten denez (ikus. goiko *lagúnèkin*). Baina, diakritikoa erabiltzeko beharra eztabaigarria da, ekonomiaren alde-tik. Azken baten, *lagúnakâitik* edo *lagúnengâtik* idaztean ere ez dago akats handirik pertinentea den gailentzea gordetzen den neurrian. Nota-zio hau gordetzekotan, irakurtzeko arau batek zera esan beharko luke: unitate berberan diakritiko berdin bat silaba bitan agertzen denean, erdi-ko silabak ez du doinua mantentzen.

2. ENTONAZIOA

2.1. Entonazioa Hizkuntzalaritza Orokorrean

Entonazioaren funtzioa ez da azentuarena. Entonazioak ez du kon-trasterik bilatzen hitz batean, ez eta hitz-talde batean. Entonazioaren bidez —eta hau hizkuntza guztietan— esaldi motak bereiztuten ditugu. “Esaldi” hitza eta ez “perpauza” erabiltzeko badago arrazoirik. Azken hau gramatika-nozioa dugu eta lehena, ordea, pragmatikari dagokio eta hemen interesatzen zaiguna da. Pragako hizluntzalariek aspaldidanik eraku-tsi zutenez, esaldi batean zati bi bereizten dira: tema/rema edo mintza-

(26) — op. cit. in (3): 3.09 Kap.: 498-509.

gaia/galdegaia. Bestalde, “esaldi/perpauza” oposizioari dagokionez, beste hizkuntza batzuetan “*énoncé/phrased*” edo “*utterance/phrased*” etab., gautzen da.

Ez da esan beharrik hizkuntza guztietako hiztunak zenbait bide dugula benetako zalantza (ala sasi-zalantza) batean garela adierazteko, “deklarazio” bat (baiezkoa edo ezezkoa) egiten ari garela adierazteko edo agindu bat ematen ari garela komunikatzeko. Baina ditugun hiru esaldimota hauek hitzek soilik ez dituzte bereizten. Ahozko bizkuntzan, hitzek eta hitzordenak egiten ez dutena entonazioak, hain zuzen, egiten du. Adibide batez baliatuko naiz: Frantsesezko honelako hitzen kate bat /qui vois-tu Marie/ eta, bada ez bada ere, aurreratu gura dut /qui tu vois Marie/ ordenagaz gauza berbera izango litzatekeela, hiru esaldi izan daitezke:

- 1) /Qui vois-tu, Marie?/
- 2) /Qui vois-tu? Marie?/
- 3) /Qui vois-tu? Marie./

eta Ingeleseazkoari bardin gertatzen zaio:

- /what do you say Mary/
- 1') /What do you say, Mary?/
 - 2') /What do you say? Mary?/
 - 3') /What do you say? Mary./

edo Gaztelerazkoari:

- /qué dices Mary/
- 1'') /Qué dices, Mary?/
 - 2'') /Qué dices? Mary?/
 - 3'') /Qué dices? Mary./

eta baita ere Euskarazkoari:

- /zer esan duzu Miren/
- 1''') /Zer esan duzu, Miren?/
 - 2''') /Zer esan duzu? Miren?/
 - 3''') /Zer esan duzu? Miren./

Kasu guztietan, honako honetaz ohar gaitzke: esaldi mota bakoitzari dagokion entonazioa jartzen ez dugu bitartean, *ez dago mezurik*. Beste

zer edo zer erakusten digute goiko adibideok: mezu desberdinak adierazteko, *esaldiaren zati baten doinua* aldatu behar da.

Hizkuntzalaritza Orokorrean doinu aldaketa horretaz eztabaidatu egin da. Hizkuntzalari batzuen eritziz, entonazioaren aldaketak “continuum” batean jazoten dira eta, beraz, ez dira fonologikoak. Beste batzuk, ordea, esaldiaren zati baten aldaketak “diskretoak” direla uste dugu eta, ikuspuntu honetatik, entonazioa fonologiari dagokio, nahiz eta hiztunen artean errealizazio bat baino gehiago agiri: funtsez, baina, hizkuntza baten barruan guztiok eskema bardin batzuk gordetzen ditugu. Askotan, gainera, eta problemari oso “grosso modo” begiratzuz, eskema minimo batzuk hizkuntza desberdinetan aurkitzen dira. Aipatutako adibideei buruzko kurbak, gutxi gorabehera, honela izango lirateke (27):

1. Lau hizkuntzetan: zati bi ditugu; lehena goitik behera doala eta eten ahul bat izanez gero, bigarrena gorantzeko joera duelarik, sostengitzen da.

2. Lau hizkuntzetan: lehen zatia goitik behera joan eta gero, eten handiago bat dugu eta bigarren zatia behetik zeharo gora doalarik (ingelesez erditik gora).

3. Lau hizkuntzetan: lehen zatia goitik behera; gero eten handi bat (onartu behar da hiztun bik hartzen dutela hitza, hemen) eta bigarren zatia goitik behera zalantza barik.

Ohar interesgarri batzuk atara daitezke hemendik:

a) Entonazioaren markoa ez da azentuarena. Entonazioak esaldia du markoa.

b) Erabiltzen den parametroa doinua da beti.

d) Esaldiaren barruan entonazio-talde batzuk sortzen dira, askotan joera oposatua dutelarik; hau da, esaterako, “deklaratibo” esaldiaren kasua, temari eta remari dagozkien kurbak (entonemak) kontsideratzen direnean, batez ere.

2.2. Euskal Entonazioa

Azterketan aurkitu ditudan kurbak beste hizkuntzetarako aurkezten direnakaz gonparatuta, ez da alde handirik ikusten. Funtsezko eskemak, gutxi gora behera, geratzen dira, hizkuntzaz hizkuntza, deklarazio bat

(27) Kurbak orain baino lehanago aurkeztu ditut, ikus. op. cit. in (3): 170-206 eta in (11).

egiteko, itaun bat egiteko edo agindu bat emateko. Dena dela, ohar bat egin behar da euskararen entonazioari buruz: Ondarroan hartu nituen datuetan, galdegaia eta aditzaren artean *etenik ez dago inoiz*, unitate biak talde erritmiko bat egiten baitute; horregatik, pragmatikaren aldetik, unitate bakar bat bezela funtzionatzen dute. Adibidez, Ondarroako esaldi honetan /sapatun beran aitzaz zinea du/, hau da “larunbatean bere aita-gaz zinera doa” eten bat ohartzen da //sapatun/ eta /beranaitaz/ taldeen artean, txikiagoa ala handiagoa izan daitekena, erritmoari begiratzuz. Eta /beranaitaz/ eta /zineadu/ taldeen arteko etena derrigorrezkoa da, esaldiaren zati nagusi bi bereiztuteko. Baina /zineadu/ talde bat delako, /zinea/ eta /du/-ren artean ezin da etenik sartu. Gauza bera ohar daiteke /Juan Etxebarria Ondarrun bizi re/ esaldia entzuten denean: etenik bakarra /Juan Etxebarria/ esanda gero dator, besterik izan gabe. Ez da harritzekoa: entonazioaren zatiak —eta hauek ekartzen dituzten etenak— hiztunak komunikatzen duenagaz lotuta doaz eta, alde hortatik, galdegaia —tematik at delarik— rema eratu behar du.

Ondoko espektrograman (ikus. 2.7.0.) /arratoi orda/, *hor* eta *da* unitateen artean ez dago etenik. Gauza bera dugu 2.2.0.0. espektroan: entonazioaren bigarren zatia /onada/ dugu etenik gabe; arrazoi horregatik 2.2.0.1. espektroan /onagdis/ irakurtzen da, eten barik.

Badirudi ere entonazioaren gorabeherak ez direla, gure hizkuntzan, oso markaturik. Interesatzen dena, halere, aldaketak eta etenak dira. Ez dut hemen kurba-motarik aurkeztuko, orain baino lehanago egin nituenak mantengitzen ditudalako. Kurba joeraz soilik arduratuko naiz:

a) *Esaldi asertiboa*

Kurbak zati bi ditu: lehena gorantz doala (tema) eta bigarrena (tema) beherantz oso doinu grabarik hartu barik:

/gaur goizean ≠ ≠ erosketa egin dut/ esaldia horrela ebakitzen da. Eta galdegaia /gaur goizean/ izango balitz, ebaketa honela izango litzateke:

/erosketa ≠ ≠ gaur goizean egin dut/

Kasu bietan, lehen zatia gorantz doa eta bigarrena beherantz, etena (≠ ≠) izan eta gero.

Eta, honelako zati batzuen barruan, zenbait hedatze sar daitezke: izen-sintagmari dagokionez, esaterako, erlatiboa hedatzea dugu. Orduan, eta printzipioz, erlatiboa eta dagokion sintagmaren artean ez dago etenik. Hau erlatibo determinatiboetan argi ta garbi entzun daiteke. Baina, erlatibo apositiba denean —eta honelako erlatiboak ere euskaran baditugu— eten txiki bat egin ahal da. Abididez, eta ≠ ≠ eten nagusia eta ≠ eten txikiago bat adieraziz, honelako etenak (eta melodiaren aldaketak) ditugu:

/erosi doten orixu ≠ ≠ txarra da/, /erosidotenorixu/ talde bat izanik, edo

/dendanerosidotenorixu ≠ ≠ txarra da/, lehen taldea /dendanerosi-dotenorixu/, izanik. Baina:

/orko orixu ≠ neuk erosi dotena ≠ ≠ txarra da/, /neukerosidotena/ erlatibo apositiboa izanez.

Enumerazioetan, zera oharzen da: sintagma bakoitzaren artean atenak izaten dira, lehen sintagmak duen melodia bera errepikatuz, eta, esaldi asertibo guztietan legez, etenik handienak zati bi ematen dizkigu. Esan gabe doa, teman sartzen diren sintagma guztiak gorantz doazela (“anticadencia”, Navarro Tomas-en hitzez baliatuz) eta reman sartzen direnak beherantz, lehen esan dugunez. Hona hemen Ondarroako esaldi honetan jozoten diren eten txikiak eta eten nagusia:

/ogixe ≠ esni ≠ azukri ≠ taorixu ≠ ≠ danakaroture/

Euskara batuko esaldi honek eskema berberari jarraituko lioke:

/ogia ≠ ardoa ≠ okela ≠ ≠ denagustatzenzait/

b) *Itaunak*

b.1 *Zuzenak* izaten direnean, kurba behetik gora doa eta esaldia oso luzea izaten ez denean ez da etenik entzuten. Garrantzitsuena dena kurbaren joera da:

/kaferikartukoduzu/

Bestalde, lehenbiziko silabaren eta azkenaren arteko doinuaren alde handiagoa edo txikiagoa izan daiteke: hemen “continuum” baten aurrean gaude eta hiztunaren expresibitateak zerikusi handia du alde horren neurrian. Baina hiztun guztiok gorde behar duguna kurbaren joera da.

b.2 *Galderezko morfema bategaz* hasten diren esaldiak, beste hizkuntza askotan bezala, doinuaren gailurra morfema horretan egoten da. Euskaraz, nire ustez, kurba geroago beherantz doa baina azkenengo zatia ez doa oso behera. Alde hortatik, euskara gaztelerari baino frantsesari hurbiltzen zaio gehiago.

b.3 *Zehar itauna:*

Nahiz Ondarroako:

/preuntateoste ≠ ≠ zeindenJon/ esaldian nahiz /itaundu didate ≠ nor den Jon/ beste honetan eskema bera ikus daiteke. Zati bi ditugu:

lehen a goitik behera, etena eta gero bigarren zatia behetik gora doana, baina galdera zuzenean baino beherago gelditzen da.

b.4 Askotan, galdera zuzeneko egitura duten esaldi batzuetan itauna bera berba bati (eta ez aditzari) dagokio. Adibidez, 2.8.3. espektroaren azterketan, hau nabaritzen da: /xuan/ berba ahozkatu ta gero, eten luze bat dugu, tematik rema aislatzeko. Rema hau eten horren ondoren dator eta, itauna delako, armoniko guztiak gorantz doazela bistan dago. Baina joera hau batez ere /arin/-eko /a/ silaban nabaritzen da; eta egia esateko, itauna da ea Juan “arin” datorren ala ez, /Juan arin dator?/ esaldi horretan.

d. Azkenez, esklamaziokoek eta agintzeko esaldiek goitik beherako kurbak edukitzen dituzte:

/Etorri hona/ eten barik ahozkatzen da eta aipatutako kurbaren joerari jarraituz. Gauza bera Ondarroako honetan:

/zelakotxikixe/

Berririo esaldi mota hauetan lehen aipatu duguna jazoten da. Mintzagaia edo tema izatekotan, hau ahozkatuta gero eten luze bat dugu galdegai taldea (edo rema) ahozkatu baino lehenago. Hau ikusten da 2.9. espektroan: /Juan ≠ ≠ etorriarin/. Rema honetan, ez dago hitz bakar bat, bi baino. Baina entonaziorako, /etorriarin/ entonema bakar bat da eta, jakina, ezin pentsatu etenik jazoten denik.

3. AZENTUAREN ETA ENTONAZIOAREN ARTEKO HARTUEMONAK

3.1 Fenomenu biak nahastuteko arrazoiak

Ikusi ditugun fenomenu biak nahastuteko arrazoirik handiena honetan datza: bata eta besteak doinua erabiltzen dute gure hizkuntzan. Gainera, azentu oihartzunak sortzen dituen *erritmo taldeak* esaldiaren barruan mantengitzen dira. Egia esateko, hizkuntza gehienetan hitzaren azentua aldatzen da esaldi baten barruan sartuta gero, A. BELIĆ esan zuenez aspalditik:

“Il n’y a aucun système accentologique de mots isolés qui ne change un peu de nature dans la phrase, étant donné que dans la phrase les accents de mots doivent s’adapter à l’accent phraséologique. Mais cela ne signifie pas qu’ils changent fondamentalement” (28).

(28) A BELIĆ: “Accent de mot-Accent de phrase”, in TCLP, 4 (1931): 183-187.

Zalantza barik, azentua gauzatzeko doinua erabiltzen duten hizkuntzetan (euskaran legez) sortzen den “adaptazio hori” (Belić-en hitzez baliatuz) edo “moldaketa” hori erraztuten da. Gainera, ez da ahaztu behar euskara hizkuntza eranslea dela eta gure “hitzak” (zer edo zer deitzeko) benetako sintagmak direla.

3.2 Bereiztuteko beharrak

Baina, halan eta guztiz ere, fenomeno biak behar den moduz ulertzeko bereizi behar ditugu. Gainera, nahastuteko arrazoiak esaldi aserti-boetan, batez ere, jazoten dira. Agintzeko esaldietan, adibidez, fenomeno bien arteko aldeak argiago ikusten dira. Aipatua izan den azkenengo espektroan (ikus. 2.9. esp.) zera ikus daiteke: mintzagaia (edo tema) den berbaren /Juan/ eta galdegaia (edo tema) den taldearen /etorriarin/ artean eten handi bat dugu eta eten hau entonazioari, bakarrik, zor diogu. Bestalde, /etorri/ hitz horretan azentudun silaba /to/ da, duda barik, eta esaldian sartuta egon arren, silaba horrek bere indarra gordetzen du, espektroaren goiko kurbak erakusten duenez. Baina, jakina, doinua entonazioari moldatu behar zaio eta, ikusten denez, doinu oihartzunaren armonikoak beherantz doaz informazio mota bi adierazteko: a) hiztunak zer edo zer agindu duela eta, ondorioz, entzuleak agintekera dagoela mezuan aditu behar du; b) hiztunak mezuaren amaiera ematen diola.

Hain zuzen ere, hizkuntza erabiltzen dugu gizon emakumeok gizar-tean elkarrekin komunikatzeko. Eta komunikazioaren unitateak esaldiak dira; hiztunok hauek moldatzen dizkiogu errealitateari edo adierazi gura dugunari, erritmo eta melodiaren bidez. Moldaketa hau ondo egiteko, *komunikazio gaitasuna* (eta ez gramatika gaitasuna) beharrezkoa da: NORK? NORI? ZERTAZ? NON? eta NOIZ? itaunei dagozkien erantzun zuzenak emateko. Entonazioak Pragmatikari jarraitzen dio. Ikusi dugun azentua (ez naiz ari izan azentu expresiboz), ordea, baldintza hauetatik at azter daiteke eta aztertu behar da.

Dena dela, fenomeno bi hauek ahozko hizkuntzari dagozkio, esan denez. Eta euskararen ezaguera, hizkuntza bizi baten ezaguera den neurrian, erdi ezaguera izango da azentuari eta entonazioari buruzko arau praktiko batzuk ematen ez diren bitartean. Horregatik eta amaitzeko, eskertu gura diot Euskaltzaindiari II Jardunaldi hauek antolatzeagatik.

OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIAREN INGURUAN

Donostia, 1986-IX-26

Koldo Mitxelena

Hitz bitan nahi nuke, ezinbestean gehiago luzatzen banaiz ere, *Orotariko euskal hiztegia*-ren berri eman, laburki bezain zehazki.

Zer den. Urteak eta urteak dira batzar hauetako batean Euskaltzaindiaren hiztegiak mintzatu nintzela. Nik, eta bestek ere bai noski nere gisa, hiztegia zela bide jakin genuen Euskaltzaindia bazela. Gerra arte, izan ere, Euskaltzaindiaren berriak, labur baino laburrago, egunkarietan agertu ohi ziren hilabetero edo ia hilabetero. Eta hor ageri ohi zen beti Hiztegiarekikoa: lana aurrera zihoala, honetaz edo hartaz izan zela eztabaida, eta abar.

Hor dabil noski oraindik orduan burutu gabe utzi zen lana. Gezurra badirudi ere, *erdal-euskal* hiztegia da. Euskaltzaindiaren asmoa, beraz, erdarazko hitz polit-dotoreak antzeko euskal hitz polit-dotoreekin ematea zen eta, egia esan, hori berori zen jende euskaltzalearen gogo. Gogo hori bizirik dagoela orain ere egingo nuke.

Gure *OEH* hau, berriz, hagitz bestelakoa da. Erdara erabiltzen du, baina hizkuntza laguntzaile bezala. Bi arrazoigatik: errazago delako hitzak itzultzea bakoitzaren zer-nolakoa azalpen luze eta aspergarriren bitartez ematea baino eta, bigarren, komeni delako erdaldunek ere hiztegiara sarre-
ra izatea. Halaz guztiz, euskararen ukituren bat premiazko izango dute hiztegia barren-lanean saiatu nahi badute Adibideak, eta testurik gehiena adibide hutsa da, euskaraz daude. Egileen itzulpenak bakarrik, Oihenartenak esaterako, edota jatorrizko testua euskarara iraulia izan denean.

Testuak. Hizkuntza bizi deino ez du sekula hiztegi oso beterik izango. Gurearen *corpus*-a ere zatika eta atalka bildua dago. Zenbat eta zaharrago, orduan eta osoago, eta besteren laguntza izan dugunean gu ere laguntza horren arabera mugitu gara: Etxepare, adibidez, osorik har daiteke, Leizarraga ez bezala. Etxepare baino lehenagokoak ahalegindu gara biltzen, erabat edo ia erabat, baita geroztik agertu diren lekukotasun bakanak ere.

Ahozkoak, Azkuek eta dakartzatenez gainera, gerok bilduak, han eta hemen, sartu ditugu. Nahi genuke hitzak noiz agertzen zaizkigun azaldu, gehitzen ala urritzen ari diren, ahaztuak ote diruditen. Horretarako, bereizkuntza zehatza egin dugu a) hiztegiak eta b) testuen artean, bi gauza esaten baitituzte maizegi. Nagusitasuna, noski azkenekook dute.

Testuetan agertzen dena markatu nahi dugu eta baita ere agertzen ez dena. Beti batekin ari beharrean, erosoago iruditu zaigu eza ixilpean uztea. Hor azaltzen ez dena da, beraz, guk aurkitu ez duguna.

Nolakoa izango den. Tomo edo liburki bakoitzak izango du gutxi gora-behera Corominas nahiz Corominas-Pascuel-en tankera. Bakoitzak 1.000-ren bat orrialde dituela, lehenbizikoak, aurtan agertuko den baka-rrak, beharko ditu izan gainera sarrerako osagarriak: hitzaurreak, euskal-dun eta erdaldunentzat, laburdurak eta gainerakoak. Oraingoa *apain* arte edo, behar bada, aurreraxeago helduko da.

Neurri kontuan ditugu oraingoz kezkarik gehienak. Hiztegiaren formatua bera arian arian sortua izan da. Tomo bakoitzaren tamaina begiz joa eduki arren, ezin jakin zenbat izango diren. 8/10 agian, urtean bana bukatzen eta agertzen dela.

Norentzat den eta zertarako. Inoiz ez dio erakutsiko, hau da lehen puntua, euskal hitzen arteko aukerak nola egin. Hori zuzenean erakusteko asmorik ez badu ere, ordea, eskainiko ditu hautabiderako oinarriak.

Hitza, noski, eta hau da lehenbiziko eginkizuna, nola ebaki den eta nola ebakitzen, han edo hemen: hori neur daitekeen neurrian, behintzat. Hitzaren forma zein den. Zein esanahi dituen berezkoak eta, hau hau gogoan hartzekoa da, zein testu-ingurutan erabil daitekeen.

Esan bezala, noizkoak eta nongoak diren ere azaldu behar da, zertzelada horiek azal daitezkeen neurrian. Horrela, guttienez, noiz agertzen den hitza, zaharkitua ote dagoen, galbidean hasia edo heldua. Nongoa den mugatzeko, Azkuek baino eremu zabalagoak hartzen ditugu ohituraz, beti noski Azkueren pasarte gogorazten dugula, Azkuerenak eta besterenak, argitasun bila dabilenak argitasuna aurki dezan.

Esana dago, berariaz esan ez bada ere, hizkuntza idatzia astiroago aztertu dugula ahozkoa baino. Nora ezean gertatu da, lehengo eta baita oraingo kasu askotan, beste biderik ez genuelako gauzen berri jakiteko. Izkribuetan, ordea, nolanahikoak hartu ditugu, goikoak eta behekoak, landuak eta zabarragoak, astiro idatziak eta gogora etorri bezala paperean utzi zirenak. Maila kontua, literatur hizkeran izan duten harrera edo arbuioa, aski argi gelditzen da, artikulua bakoitza arretaz irakurtzen baldin bada. Geure oharrak ere sartzen ditugu, lagungarri izan ditezten, eta horrexegatik ez dira ugari, ez baitugu uste gure zentzua besterena baino sendoagoa eta fidagarriagoa denik nahi eta ez.

Zenbait osagarri. Leku eta pertsona izenetan ageri diren lekukotasunak ez ditugu baztertu, kontuz jaso baditugu ere. Ez baitira, jakina denez, adieraren aldetik erren direnez gero, hitzen lekuko diren aldetik hitzak erabil daitezkeen bezalako lasaitasunez erabiltzekoak.

Etimologia ere agertzen da zenbaitetan, bide errazetik lor daitekeen. Nolanahi ere, ez dugu burrukarik nahi hori dela medio, eta sesio-bidetik ihesi ibili gara beti. Jakina da, halaz guztiz, usteen eskualdean mugitu behar dela horrelakoetan, nahiz eta laburbeharrez erabiltzen den hizkera arrazoiak eskatuko lukeen baino baikorragoa izan. Hori ez da, ordea, guk sortu dugun usarioa, edozeinek erabiltzen duena baizik. Aski du bada irakurleak kanpoan gelditu diren *agian*, *behar bada* eta antzekoak sartzea premiazko den lekuetan.

HAUR ETA GAZTEENTZAKO LIBURUEN ITZULPENAK

Donostia, 1986-IX-26

Jose Antonio Arana Martija

Haur eta gazteentzat idatzitako literatura guztia sakabanatuta dago hainbat aldizkari eta argitalpenetan, azken urteotakoa izan ezik, oraingo honetan argitaldarien literaturaren arlo honekin gahiago arduratu dira eta, liburu sortak kaleratuz.

Baina hizkuntza batentzat hain interesgarria den literatura, hots, haurrek txikitatik hizkuntza meneratzeko tresna, ez da gure artean nahiko aztertua, edo beste era batera esateko, ez da literaturaren arlo honetaz ikerketarik egin. Hemen datorkigu lehen estudio bat **Euskera** gure aldizkarian argitaratzeko tokia eskatzen diguna.

Urte asko duela argitaratu zuen Bettina Hürliman-ek alemanez, *Tres siglos de literatura infantil europea*, orain hiru urte gaztelaniara itzulia eta 1983an Editorial Juventud-ek argitaratua. Eranskin gisa zetorren bertan gure Aita Villasantek prestatutako lana *La literatura infantil vasca*. Hurrengo urtean, 1984eko Irailean, Barcelonako Laia argitaldaria, bere “Cuadernos de Pedagogia” delako aldizkarian, beste lan bat emango zigun gai berberaz: *La literatura infantil en euskera*, Seve Callejak prestatua.

Gutxi zen benetan gure haur literaturari buruz idatzitakoa. Gaztelaniazkoak badauka aspalditik lan on bat argitaratua, 1953an Editorial Doncel-ek eman ziguna: *Historia de la literatura infantil española*, Carmen Bravo Villasantek paratua. Eta Catalunyan ere antzerako bat egin zen, orain hamar urte duarik, Anabe elkarteak 1975ean argitaratua: *Llibres catalans per infants*, Teresa Rovirak prestatua.

Gure hutsunea betetzeko Eusko Jaurlaritzak emandako beka baten laguntzaz burututako lan bat datorkigu eskuetara: Seve Callejak eta Xabier Monasteriok egindakoa, hain zuzen. Gaia interesgarria bada, badu lan honek beste arrazoi bat ere guretzat estimagarria eta hemen azpimarratu behar duguna: Azkue Bibliotekan, bertoko fondoak erabiliaz, dokumentatua izan dela.

Ikerketa lan luzea dugu, zoritxarrez zatika argitaratua. Lehen kapitulu bat, hots, literaturari dagokion haur kontzeptua zer den, “Letras de Deusto” aldizkarian argitaratua da. Bigarren kapitulua, haur literaturaren ikuspegi historikoa, “Egan” aldizkariak emango digu berehala. Haurrentzat egin eta egiten den prentsaren estudioa “Muga” aldizkariak eman digu. **Euskera** aldizkarira datorkigun kapitulua zera da: *Haur eta gazteen-tzako liburu- itzulpenak*, beste literatura batzuetatik euskerara itzultitako testuez ikerketa eta azterketa.

Hogeitamar folio ditu kapituluak eta azkenean, eranskin gisa, titulu guztien katalogo bat ematen zaigu. Ez da katalogo hau alperrikakoa, ohizko bibliografietan ematen ez diren tituluak, egileak eta itzultzaileak azaltzen bait dira.

LAS TRADUCCIONES AL EUSKARA DE LIBROS INFANTILES Y JUVENILES (*)

Donostia, 1986-IX-26

Seve Calleja - Xabier Monasterio

1. LAS TRADUCCIONES AL EUSKARA DE LIBROS INFANTILES Y JUVENILES

En un campo literario como éste que abordamos en el que, aparte del folklore y la cuentística de transmisión oral apenas ha existido otra tradición literaria impresa, las traducciones de obras extranjeras han tenido una importancia acaso mayor que en otras literaturas europeas.

Casi siempre sin referencia directa al lector juvenil, y a la manera de francotiradores guiados más por sus propias preferencias que por otros criterios, grandes traductores como Arrue, Larrakoetxea, Altuna o Mendiguren han venido vertiendo al euskera cuentos o fragmentos de importantes autores universales clásicos o coetáneos a ellos. Y lo han hecho especialmente a través de sus colaboraciones en revistas y boletines que no llegaban directamente al niño, máxime en épocas en las que éste ha sido un analfabeto funcional en su propio idioma por carecer de escolarización en euskera. Y es que las revistas periódicas, sostenidas en las suscripciones y en las instituciones que las propiciaban han paliado la carencia y/o escasez de libros. (Por citar algún dato, en el período de posguerra 1936-50 llegan a contabilizarse cincuenta revistas y sólo dos editoriales). En alguna ocasión, paralela o posteriormente, cobraba forma de libro el compendio de las aportaciones seriadas, como es el caso de *Befogetamar ume-ipuin* (Bilbao, 1929), que recoge cuarenta cuentos de los Grimm, traducidos del alemán por "Legoaldi" —Y.A. Larrakoetxea— la mayor parte de los cuales habían ido divulgándose en la revista "Euskal Esnalea".

Nos estamos refiriendo principalmente a aquellas revistas impulsadas por los grandes "euskaltzales" —Azkue, Kirikiño, Manterola, Zategi,

(*) Este trabajo forma parte del estudio sobre *la literatura infantil vasca* becado por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

Juan San Martín...— que desde los albores de nuestro siglo han cruzado por periodos de escasa producción editorial y serias dificultades administrativas, y cuya labor se ha visto continuada hasta el presente en iniciativas como “Egan”.

Vendrían posteriormente los pioneros del actual renacer editorial, colectivos por lo general adscritos al ámbito escolar cuyas carencias trataban de paliar con las primeras colecciones infantiles y juveniles que seleccionaban, editaban y distribuían ellos mismos (Pampina, IKER, Gordailu, I. Beobide...) inaugurando así la actual situación editorial en donde todavía las traducciones siguen representando un alto porcentaje en el conjunto de los libros para chicos. Hablamos de los años setenta.

Habían ido apareciendo en ese tiempo algunas obras en apariencia aisladas de colección o series, pero que obedecen cada una a razones particulares. No parece fortuita la primera traducción de *El Viejo y el Mar*, de Hemingway (Kuliska, n.º 52, Zarauz, 1963), ni las adaptaciones de *Genoveva de Brabante*, la versión vasca del *Marcelino Pan y Vino*, las reediciones del *Noni eta Mani*, de Svensson, o el hecho de que Guillermo Tell fuera, por su parte, la primera traducción elegida dentro de la colección “Kimu”, de Gero (1976). Más allá del azar, en un panorama abierto a toda iniciativa, y por lo mismo carente de tantas obras célebres, la aparición de ciertos libros obedecía a criterios ideológicos o a concomitancias culturales que justificaban de por sí la oportunidad de tal o cual obra en cada momento.

Abundemos en algunas muestras.

“*Noni eta Mani*”, obra del jesuita islandés Jon Svensson que, en versiones de euskera y castellano ha conocido frecuentes ediciones bajo el sello editorial de los jesuitas, inauguraba en el 52 la colección Kuliska de Itxaropena correspondiendo así al deseo expreso del autor de ser traducido a “la lengua de San Ignacio de Loyola y San Francisco Javier”. Su traductor, el también jesuita Plácido Múgica, había tratado directamente con el autor nórdico. La condición de exiliados pudo actuar de acicate para la traducción en 1953 en Montevideo del *Platero y yo*, de J.R. Jiménez, con el beneplácito expreso de su autor. Circunstancia que se hace más evidente en el caso de la opción de J. Zaitegi por la obra del norteamericano H.W. Longfellow, *Evangeline or a Tale of Acadie*, en torno a la invasión y diáspora de un pueblo, traducción editada en 1945 en Guatemala bajo el elocuente título *Atzerri, euskeleerri* (“pueblo emigrado, pueblo vasco”). La edición juvenil de *Guillermo Tell*, de 1976, se presentaba al lector con esta contraportada: “Gilen Tel es la historia de un pueblo escondido entre montes. Los patriotas quisieron llevar a su pueblo a la libertad, haciendo frente a todas las agresiones y ataques de los enemigos. La historia de Tell se confunde con la historia de Suiza.

Las aventuras del cazador Tell ponen de relieve la lucha de un pueblo, convirtiendo a Suiza en modelo de territorios y naciones pequeñas". Casi una década después esta misma obra vuelve a inaugurar la serie de cómics infantiles de Kili-Kili bajo el título: *William Tell abertzalea*.

Criterios particulares a los que, en cualquier caso, no han escapado otras literaturas en su preferencia por autores y modas definidos y comercialmente programados.

Legezko izaera: 1979an Kataluniako Autonomi Estatutua onartu zen eta 1980an Generalitatek Direcció General de Política Lingüística delakoa sortu zuen. Honen barnean daude Servei de Normalització, hizkuntzaren normalizazioa erabilera publikoetan, dela ofizialetan, dela ofizialak ez direnetan, bultzatzea xedetzat duena eta Servei d'Assessorament lingüístic, katalana helduei irakasteko eta espezialitatetako hizkera lantzeko ardua duena. TERMCAT Servei d'Assessorament-en ekimenez sortua da mundu zientifiko eta teknikoan zegoen hutsunea betetzeko. Argitalpen asko eginda bazegoen ere metodologia eta lexikologi erizpideen aldetik batasun-falta nabaria ageri bait zen.

Kataluniako Generalitat-ek eta Institut d'Estudis Catalans-ek hitzarmen baten bidez sortu zuten TERMCAT.

TERMCATen sorkuntz hitzarmenaren arabera erakunde honen zereginak ondokook dira:

- a) Hiztegi berezituak lantzeaz arduratuko diren ikerketa-batzordeak sortzea eta zuzentzea.
- b) Terminologiak gainbegiratzea.
- c) Terminologian trebatzeko mintegiak antolatzea.
- d) Terminologi banku baten sorkuntza.
- e) Argitalpenen eta ikastaro espezializatuen bidez terminologiaren zabalkundea egitea.
- f) Terminologi ikerketan diharduten organismo desberdinetako harremanak mantentzea.

Egitura: TERMCATen kudeakuntza eta gobernua hiru organoren eskutan daude. Hauexek dira organo horiek:

- a) Jarraipen-batzordea: Hizkuntz Politikako Zuzendaritzak Servei d'Assessorament Lingüístic-eko teknikoen artetik izendatutako Departa-

ment de Cultura-ren bi ordezkarik, Institut d'Estudis Catalans-en bi ordezkarik eta TERMCATEko Zuzendariak osatzen dute batzorde hau.

Batzorde honen eginkizunak urteroko planak eta kontuak onartzea, plana nola betetzen den aztertzea eta erakunde sortzaileei Zentruaren berri ematea dira. Gutxienez urtean bitan bildu behar du.


b) Kontseilu Gainbegiratzailea: Honako kontseilukide hauek osatzen dute: IECeko Secció Filològicak izendatutako bi lagunek (horietako batek kontseiluaren lehendakaritza du), TERMCATEko zuzendariak, Zuzendariak izendatutako TERMCATEko terminologilari batek eta IECek izendatutako zientzilari terminologian aditu batek. Kontseilukide iraunkor hauetaz gainera, Kontseiluak berak datu-bankuan dagoen zientzi sail bakoitzeko zientzilari edo teknikari terminologian aditu bat gutxienez izendatzen du.

Kontseilu honek erizpide linguistiko eta terminologikoak finkatzen ditu, "Secció Filològica-renak erabiliz edota behin-behineko batzuk sortuz, haiek falta direnean, terminologi lana ez geldierazteko", hitzarmenak dioen bezala.

c) Zuzendaria: Generalitat-eko Departament de Cultura-k kontratatzen du eta Sailburuak izendatzen du Jarraipen-Batzordeak proposaturik.

Zuzendariak urteroko planak lantzen ditu eta egindako lanen berri ematen du, pertsonalaren iharduna antolatzen eta zuzentzen du, terminologi lanen koordinazioa eramaten du eta beste terminologi erakundeekin harremanak mantentzen ditu.

Barne antolamenduari dagokionez ondoko organigramak erakusten du nolakoa den:



Terminologi Sailaren eginkizunak hiru iharduera nagusiren inguruan daude antolatuta:

- a) Jakintzagaika antolatutako lanen inguruko informazioa, koordinazioa eta azterketa.
- b) Sailen arteko koordinazioa.
- c) Terminologi ikastaroak.

Dokumentazio-Sailaren eginkizunak terminologiari buruzko dokumentazioa bilatzea, eskuratzea, tratatzea eta datu-base batean antolatzea, informazioaren zabalkundea egitea eta nazioarteko datu-baseekin konektatzea dira.

Hiztegigintza: 1985ean sortua denez, TERMCAT ez da oraindik hiztegiak argitaratzen hasi, baina ITECek argitaratu berria duen Eraikuntzako hiztegiarekin zerikusirik izan du.

1.10. Norvegia

1.10.1. *Erakundea:* Det Norske Akademi For Sprog og Literatur (Hizkuntza eta literaturarako norvegiar Akademia).

Legezko izaera: 1953an sortu zen antolamendu pribatu gisa norvegiarren riksmål eta nynorsk izeneko bi aldaera kontrajarriak samnorsk izeneko bakar batean biltzera jotzen zuen hizkuntz politika ofizialaren aurka jokatzeko. Hala ere, Akademia honetako bi lagunek Norsk Språkråd izeneko erakundean parte hartzen dute eskolarako eta administrazioarako hizkuntz arau ofiziala aldarazteko asmoz. Laguntza pribatuen bidez finantzatzen da.

Iharduerak: Norvegiarren riksmål aldaera babesten eta hizkuntza honen araua eratzen ahalegintzen da, hiztegiak, gramatikak, etab. eginez.

Egitura: Hogeitazortzi akademikide ditu (idazleak, ikertzaileak, aktoreak, kazetariak, etab.) eta hiru lagunetako lehendakaritza batek gobernatzen du.

Hiztegigintza: Riksmålsordlisten izeneko hitz-zerrenda bat argitaratua du. Norvegiarren ebakera-hiztegi bat eta Riksmålerazko hiztegi bat lan-tzen ari da.

1.10.2. *Erakundea:* Norsk Språkråd (Norvegiarren Kontseilua) Postboks 8107 Dep, Oslo 1.

Legezko izaera: Norvegiar Parlamentuak sortu zuen 1972an Hezkuntza eta Eliz Arazotarako Ministraritzaren menpeko erakundea da. Rådet for teknisk terminologi izeneko terminologi zentruarekin lankidetzan dihardu, bereziki petrolioari buruzko terminologian eta Norges Standardiseringsforbund izeneko Industri Arauen Antolamentu Nazionalarekin ere bai.

Iharduerak: Norvegiera literarioa eta mintzatua den kultur ondarea zaintzen du, norvegiarren ezagutza areagotzen lagun dezaketen proiektuak sustatzen ditu, norvegiarren aldaera desberdinak erabiltzen dituztenen arteko errespetua bultzatzen du, hiritarren hizkuntz erabilerari buruzko eskubideak zaintzen ditu, bokmål eta nynorsk aldaerak hurbiltzera zuzendutako lanak bultzatzen ditu, agintariei hizkuntz arazotan aholkuak ematen dizkie, bereziki eskoletarako, komunikabideetarako eta Administrazioarako hizkuntz politikari dagokionean, hizkuntza idatzia arautzeko eta leku-izenak finkatzeko erizpideak argitaratzen ditu eta hizkuntzari buruzko lege-proposamenak aurkezten ditu, publikoari aholkuak eta gidaritza eskaintzen dizkio eta Eskandinavia mailako lankidetzak sustatzen du.

Egitura: Kontseilu moduan antolatuta dago eta 42 partaide ditu. Hauek lau urtetarako izendatzen dira. Sei laguneko Batzorde Zuzentzaile bat du administraritzako eta hizkuntz politikako arazoetarako. Horretaz gainera badu zortzi hizkuntzalariz osatutako Aholkularitza linguistiko bat ere. Sail bakoitzean partaideen erdiak riksmåleraren ordezkariak dira eta beste erdiak nynorskerarenak. Urtero aldatzen da zuzendaria bi joeretako lagun bat txandatzuz. Hamar langile profesionalizatu eta beste sei lankide ditu.

Hiztegigintza: Maileguzko hitzei buruzko eskuliburu bat egin du, Turistentzako hiztegi bat, Daniera-suomiera-feroeera-islandera-norvegiara-suediera hiztegia, Errusierazko izendegia. Egunkarietako norvegiarren hiztegia, Norvegiara modernoan erabiltzen diren suediar jatorrizko hitzen hiztegia, Norvegiar laburduren zerrenda, Norvegiar gramatikaren terminologia, Eskandinaviako deiturak eta Informatika hiztegia argitaratuak ditu.

Gainera norvegiarren bi aldaeratako hiztegi elebakarrak ere ari da prestatzen.

Terminologia teknikoen arloan Marketing, Informatika eta Petrolio hiztegiak prestatzen ari da.

1.10.3. *Erakundea:* Rådet For Teknisk Terminologi (Terminologia teknikoaren kontseilua), Riddervolds gate 3, Oslo 2.

Legezko izaera: Antolamendu beregaina da baina gobernuaren, industriaren eta ikerketarako laguntzen bidez finantzatzen da.

Iharduera: Industrian, eskoletan eta itzultzaile-lanetan erabiltzeko hiztegi tekniko eleaniztunak prestatzen ditu.

Egitura: Idazkaritza bat eta hamar azpibatzorde ditu, bakoitza hiru lagunekoa; egun osoko bost langile ditu. Batzorde bakoitzean Norsk språkråd-eko ordezkari bat izaten da.

Hiztegigintza: Argitaratutako lanak:

– Zurezko produktuen, Lanari buruzko azterketen, Harkaitz-leherketaren, Presen, Ur-horniketa eta estolderiaren, Plastikoen, Trenbide-tekniken, Makina-elementuen, Gomaren, Eraikuntzaren, Administrazioaren, Energia elektrikoaren, Irratiteknologiaren, Errepideen, Haizeztapenaren eta petrolio-industriaren hiztegiak.

Lantzen ari direnak:

– Berokuntzaren, Teknika sanitarioen, telekomunikazioen, zibernetikaren, Alarma-sistemen, Hondakinen tratamenduaren, Lurrinezko turbinen eta Turbina hidraulikoen Irakingailuen, Zentral Nuklearren eta korrosioaren hiztegiak.

2. ONDORIOAK

Aurkeztutako erakunde-multzoa adibide gisa hartu behar da. Izan ere, askoz gehiago bait dira munduan zehar lexiko-berrikuntzara zuzendutako hitzegintzan diharduten erakundeak. Berrikuntza-premiaren aldetik gure antzeratsu dauden herrialdeak bakarrik hautatzen saiatu naiz. Gaur egun, ordea, Teknologiaren aitzinapen lasterraren eta nazioarteko harreman gero eta estuagoen eraginez hedapen handiko hizkuntzetan ere berrikuntzaren beharra somatua dute. Beste lan bat beharko litzateke horrelako kasuak aurkezteko.

Oraingoan aurkeztutakoa gogoan badugu, zenbait gauza baieztatu daiteke:

2.1. Orotariko hiztegiei eta Hiztegi arauemaileei bezala hiztegi tekniko berezituak garrantzi handia aitortzen zaiela bazter guztietan.

2.2. Hiztegi deskribatzaileak ezinbesteko erreferentziatzat hartzen baldin badira ere, lan hauek eskatzen duten lan eta denbora ikaragarria kontutan hartuta, inon ez direla praktikan haiek bukatu zain geratzen terminologia teknikoak lantzeko eta argitaratzeko. Aldi berean bi lanak aurrera eramaten direla.

2.3. Hiztegi tekniko bereziak behin-behinekotasun handia izaten dutela eta horrek bi ondorio ditu:

- a) Gutxienezko egonkortasuna behar badute ere maiz berraztertu eta are berrargitaratu beharrekoak izaten direla.
- b) Gaitutako erakundeengandik jasotzen duten onespenez ez duela izaten ortografian edo gramatikan arauak izaten duten pisurik.

2.4. Leku gehienetan agintari politikoen erabaki sendo bat ikusten da Akademia bati edo antzeko erakunde bati legezko indarra eta diruzko sostengua emateko.

2.5. Lege bidez itzala aitortzen zaion erakundearen erabakiak, are terminologi mailakoak, Administrazioaren barnean erabili beharrezkotzat hartzen dira.

2.6. Inoiz gertatzen da legezko itzal hori duen erakundea bera ez dela terminologia teknikoak lantzen dituen. Kasu honetan behar diren bitartekoak jartzen dira, hala nola gainbegiratze-batzordeak, batzordetako partaidetzak, onespren-mekanismoak, etab. Administrazio publikoari lanaren baliozkotasuna bermatuko diotenak.

EGUBERRI CHRISTMEN MEZUAZ

(Jaiotzaren inguruko poesia, musika eta artea)

Donostia, 1986-XII-19

Juan San Martin

Eguberriak iristean milaka eta milaka *Christma*-ren bidez oroitarazten da Kristoren mezua. Gizarte harremanak girotzen laguntzen du, elkarrenganako maitasuna erakutsiaz. Garai horretan, txartel horiei esker, inor ez da urruti. Eta horrek ekarri du Eguberrietan *Christma* merkatalgoa ugaltzea eta dirua miloika gastatzea.

Baina, *Christma*-k, beste alderdi bat ere badu: kulturaren zabalkundea. Zeren, txartelgintzan, diseinuaz gainera plastika artea, musika eta literatura ere sartzen bai dira.

Entrepresa batzuk berentzat prezeski egiten dituzte txartel bereziak, baina gehiengoek hortara aritzen diren multinazional gisako merkataritxetxeek eskaintzen dutunetik hornitzen dira. Partikularrak zer esanik ere ez, edozein denda edo kioskotan salgai aurkituko dituztenez.

Dirutza izugarria ematen da *Christma*-tan eta gehiena herbesteko etxeek herbesteko gaiez eginak. Erresuma guzietan *Christma* berdintsuak eta Euskal Herrikorik urri.

Kulturaren hedakunderako hain garrantzizkoak diren *Christma*-k inori ez zitzaion bururatu, edo inor ez da arduratu, Euskal Herriko arte, literatura eta musikaz baliaturik egitearik. Horren beharrez aspalditik kezkatutik nengoen eta zenbait entrepresa eta aministralgo agintariei agertu ere bai hortaz jabetzea, baina badirudi inork ez duela ulertu horren garrantzia.

Zazpi urte datoz euskaltzainen artean kezka hori agertu nuenetik; zuzendaritzari idea ona zeritzon eta Eguberrietarako Euskaltzaindiaren *Christma* egitea nere esku utzi zen.

Asmo horren jarraipenerako lehen lehenik pentsatu nuen urte bakoitzean Euskal Herriaren eskualde bakoitzari txandaka eskaintzea, testuz, irudiz eta ahal denean musikaz ere bai. Eskualdekatze hori euskalkien arabera hautatuz. Horren ondorioa gaur egun historia tipi bat denez,

horregatik nator une bakoitzean zergatik edo zelan jokatu den kontu ematera.

Lehen ekintza honetarako txartel neurria, posta ahalik merkeena izango bazen, estalki estandard-etatik luzekina jo genuen, amerikanoa esan ohi dena. Inprimaketa ordea Eibarko Agirresarobe, S.A., etxeari ematea erabaki, zeren hasi nintzenean hiri hartan bizi nintzen eta gainera lehenagotik etxe horrekin antzerako lanak eginga nengoen, 1964-1967. urteetan Eibarko Arte Ondareaz eta historiaz elkarrekin lanean arituak ginenez elkarganako idea hurbilen loturak genituelako.

Bestalde, txartelei urterik ez jartzea pentsatu genuen, sobranteak hurrengo urteetan baliatzeko.

Oinarri horiekin abiatu ginen asmoa mamitzera eta hara orainarte burutuaren berri.

Berri emate hau premiazkotzak jotzen dut, une bakoitzean zerk bultzatu gaituen eta bakoitzean zer lortu dugun aditzera emateko. Gainera, esperientzia honi beste edonorentzat ere baliagarria deritzat, naiz aministralgo, zein beste edozein empresa, erakunde edo elkartek bide bera har dezaten. Hemen ez bai dago inongo patenterik, ezta ere *royalty*-rik; aldiz, mendeak zehar euskaldungoak Eguberriko gaiak zer eratan erabili dituen ikus ditzakegu.

Argibide horien ondotik, hona hemen hasiera eta jarraipena:

Lehenengoa 1981ean argitaratu zen. Pedro Barrutia aramaioarraren sortze hirugarren mendeurrena zetorrenez, eta Arabari eskainiz, bere antzerkitik bertso hauek hartuz:

*Belengo portalean,
Baturik oxalean,
Kunearen ordeaz,
Daratza pesebrean.*

.....
*Zeruak eta lurrak
Zeureak izanik,
Nola zatoz mundura
Orren billoxik?*

*Abere mutu biren
Erdian jaio dana,
Bera adoratzera
Zeruti jatsi gara.
Iru Errege Mago
Izar baten atzean
Bisitatzera datoz
Dromedario gainean.*

*Jesusikori bear deutsat
Billantziko bat kantatu:
Adi, adi, adi, adi,
Adi ezazuz berba bi:
Azkonarraren atzamartxo
Ekarriko dot menditi,
Begizkorik eztegizuen
Bulartxopean isegi.*

Testu hori hautatu genuen lehen aldikotz Eguberri zoriontsuen opariz. Berezienak, gure iduriz. Eta Arabako Museoan dagoen flamendar triptiko ederraren irudia.

Irudi hortan Haurra zeharo biluzik dugu, Barrutiak aipatzen duen oihalean (oxalean) bildu gabe. Gainera, gure antzerkigilea jaio baino mende bat lehenagoko aldare hirukoitza dugu. Baina ezin uka aramaioarrek bere sorterrian eta hainbeste urteren buruan eskribau izan zen Mondragoen gazterik ezagutuko zuen girotik hain urruti ez zebilela. Euskal Herriak Europako ifarraldearekin merkataria harreman hertsia izan zituen Ertarotik itsasoz eta Gasteiztik itsas-portuetarako biderik garrantzitsuenetako bat zen Arrasate. Horren lekuko dira Mondragoeko eliza gotikoa, 1350. urtean eraikia, eta Arabako Museoan gordetzen den XVI. mendeko triptikoa, Jesusen jaiotza gai duela.

Bigarren, 1982an, Lizardi olerkariaren heriotzako berrogetahamar urte betetzea zetorrelako gure omenaldia agertu nahi genion, "Argi egidazu" esanaz Kristori eskaini zizkion bertsoetarik hiru hautatuz:

*Begiaren begi,
Jainko-geznari,
belardi beltzeko
loreño txuri:*

*Argi egidazu,
gau orotan argi;
biotz-ixuria
nire baitan azi;*

*Amesmena goza
ttantta bat urdiñez;
iduki nazazu
sor-gor, zure minez...*

Txartela irudiz hornitzeko Jaiotza gai egokirik ez genuen aurkitu bere sorterrian zen Zarautzen, baina bai Jesus Haurra bere Ama eta amonarekin, Joanes Antxietaren diszipulu zen Anbrosio Bengoetxea alkizar eskultoreak 1614. urtean egin zuen erretaulan. Eta horrekin parekatzeko, Lizardi hil zen Tolosako hirian Frantziskotarretan A. Bengoetxea berbe-

rak urte bete geroago egin zuen erretaulako Andra Maria Haurakin. Horrela osatzen genuen gipuzkoar eskultore famatuen oroitzamenarekin batean euskal literaturan eman den poeta handia.

1983an aldiz, Iruñean Euskaltzaindiaren sortzaileetakoa eta *Gramática Bascongada* (1884) haren egile izan zen Arturo Campión-i omenaldi egitea pentsatu zen eta gure asmoa Nafarroara begira jarri genuen. Aldi berean bizi-zirenetarik euskaltzainik zaharrena zen Aita Damaso Intzaren bildumak gogoan harturik. Hara hor mende honen haseran Abaurregai-nean jasoa:



Eguberri! ¡Eguberri!
 gaur da Eguberria!
 Gure Jauna jaio baitzen,
 oi hau poz atsegina!

Eguzki aldetik datoz
 laster hiru errege,
 Birjinaren argi hori
 han ikusi baitute.

Hirurak eman diote
 Jesusi emai bana,
 urre gorri eta mirra
 eta intzentsu ona.

Edergarriz zer hobeagorik Iruñeko katedraleko kalostrean dagoen Erregeen gurtzapean gotikoa baino? Jesus, Ama Birgina eta belaunikaturik dagoen erregea Jacques Perut-ek XIV. mendearen hasieran eginak dira

eta beste bi erregeak handik laster beste norbaitek. Eskultura horiek aski ezagunak dira Europako artean gotikoaren eredugarri.

Euskal literaturaz zerbait arreta jarri dutenetarik nork ez ote du ezagutzen Ziburuko Joanes Etcheberriren *Noelak*? Lapurdiri Eguberritako *Christma* eskaintzean ezinbestekoa genuen 1630. urtean argitaratu zuen bere obra eder hartarik hautatzea. Eta hautatzekotan zer hoberik herriak ahoz aho bere doinu politez ekarri diguna baino? Hara hor kantaren zati hautatua:

O E-GU-BERRI GAUA
BOZ-KARIOZ-KO GAUA
A-LLE-GERATZEN DU-ZU
BI-HO-TZEAN KRISTAUA
MUN-DU GUZTI-A DU-ZU
ZO-RI-O-NEZ BE-THE-TZEN!
ZER-GA-TIK BAITI-O-ZU
SAL-BA-TZAI-LLEA EKHARTZEN
ZER-GA-TIK BAITI-O-ZU
SAL-BA-TZAI-LLEA EKHARTZEN

*O Eguberri-gaua,
bozkariozko gaua:
allegeratzen duzu
bihotzean kristaua.*

*Mundu guztia duzu
zorionez bethetzen
zergatik baitiozu
salbatzaillea ekhartzen.*

.....
*Aingeru onak berriz
hasi dire kantatzen,
tristeak dituztela
boztera gonbidatzen.*

.....
*Ixildu behar zuten,
guk ordainez kantatu,
zorionean dela
Jainko-Semea sorthu.*

Garai hartan Sara-Ziburu artean loratu zen literatura mugimendu hark merezi zuen oroitzapen tipiño hori. Mende bereko zenbait pintura lauki baziren Ziburuko Kolegiata haretan, gero parrokiara eramanak. Eta Ziburuko elizan Jesus-en Sortzea aurkezten duten bi lauki hatzeman genituen eta beretariko bat hartu 1984an *Christma* argitaratzeko.

Bizkaira begira hasi nintzenean R. M. Azkue zena nuen buruan. Hobeto esan, berberak 1896. urtean argitaratu zuen bere aita Eusebioren *Parnasorako bidea* deritzan liburuan dauden hainbat Gabon bertso. Arte aldetik Lekeition banuen jaiotzaren edergarriak hautatzeko aukera ederrik, baina gurasoak oroitzean ezin ahaztu bere ama Karmen Aberasturi mundakarra. Gainera, Eusebiok Mundakan bizi zen garaian idatzi zituen nik begiz jota neuzkan bertsoak, 1862an.

Mundakara joan nintzen Jaiotzaren gairik aurkitzen ez banuen hango parrokiari dagoen Andra Mari ederraz baliatzeko asmoan eta hura izan zen ustekabea: Hamazortzigarren mendean Jesusen Bihotzaren debozioari eskainitako erretaulan hemeretzi ohol eskultura landuz deskubritu nituen, misterio eta pasio gaiez, XVI. mendearen bukaerakoak; *manierismo* estilokoak eta Joanes Antxieta azpeitiarraren eskolakoak. Bertako imajinak Migel Angeloren oroitza dakarte. Gainetik purpurinaz berpintatua da baina azpitik polikromia jatorra gordetzen du.

Horrek eraman ninduen erretaulari ahal zen probetxurik hoberena ateratzera, bazterretan ezagutarazteko. Azalean Anunziazioa, E. M. Azkue-

ren hitz hauekin: “Gabrielen agoti / *Ave* bat arturik”. Barruan Bisitazio-
nea elkarriketazko bertso hauekin:

Ama: *Lurrera ezker
neure Maria,
Jauna zetako
dot nik bizia?*

Arimea: *Ondo nago ni
Jaungoikoagaz,
andrea nintzan
aingerua naiz.*

Azkenik, berpintaketaz itxuragabetua eta hautsez beterik egonarren,
era hortan bere lekukotasuna duen ustean, Jaiotza; bosteko taldea Hau-
rrarekin, tartean beia eta astoa direla. Irudi horrentzat honako bi bertsoak
hautatu nituen:

*Zeruko ta munduko
Jaubea izan arren
otzmindu ta gorputza
gugaitik ekarren:
bere lenengoko oia
zan aska bat zarra,
eta bere atsegiña
otzagaz negarra.*

*Nor egon zatekean
Belendik urrean
geure Jauna ikusteko
geu legez lurrean!
Baina an egon ezarren,
daukanak fede ona,
altaran ikusten dau
Jauna ta gizona.*


Christma honi izenburutzat “Gabon” jarri nion, erretaularen garai
berean hain ospetsua zen Joanes de Iziar durangar kaligrafoak sortu
zituen letretatik hautatuak.

Aurtengo *Christma*-k Euskal Herrian aurkitu genezaken Epifania aur-
kezten duen imajinarik zaharrenak dakartza. Erromaniko zaharreko bi
xapitel, batean erregeak zaldiz eta bestean Haur sortu berriaren adorazio-
nean. Haurraren aurpegiak adierazten duen samurtasun paregabea oso
bitxia egiten zaigu estilo horren goiztasunez. Eta inguruko apaingarriak
eurak ez dira gutiago. Gaineko hegal moldura, trentza estriatuz eta
hostoak uhinen antzera era berean estriaz marraturik, *francomerovingio*

kutsu nabaria dute; eta bi xapiteletako izarrak geroago herri artearen apaingarrietan maiz aurkituko ditugun errosetak.

Oroi Santa-Garaziko eliza portuak igarotzeko toki berean zen erromes ospitalaren kapera zela. Nafarroako Santxo III.a (Santxo Handia) erregek ideki zituen bideetarik bat zela esango genuke, eta arte mota hori ere inguru hartakoa.

Arte gaiari zegozkion hiru kanta hautatu nituen, eta doinu arazoetan kontseilari izaten dudan adiskide eta lankide J. A. Arana Martijak pastorealeko doinu zaharrez eginikako hau hautatu zidan:



Albert Constantin (1783-1957) Atharratzeko midikuak letra jarri eta Azkueri *Cancionero*-rako igorria. Gainera, Albert, anitz urtez Eskualzaileen Biltzarreko buruzagi izan zen eta Zuberoan ospe handiko gizona, bere aita santagraztar Jean Baptiste zen bezala. Aitak bezainbat idatzi ez bazuen ere, nork daki Santa-Graziko xapitel horietako irudiak ez ote zuen bultzatu bertso hau egitera? Bai, agian:

*Adoratzen zütüt, Jauna
 erregien erregia,
 errege imortala eta
 monarka insibilia.*

Azken hitza, “insibilia”, Azkuek *invisible* itzulpenez eman zuen (ikus *Cancionero popular vasco*, bigarren tomoaren 836. orrialdea).

Euskaltzaindiak argitaratu duen *Christma* hau berezietakoa izango da Eguberriz zabaltzen diren milaka eta milakaren artean. Euskal Herrian aurki ditzaken Epifaniaren irudirik zaharrena ematen bai du Santa-Graziko xapitel horiekin.

Zuberoara bidaia aprobetxatuz, Nafar Erresumaren seigarren merindeari eskaini beharra dugunez helduden urteko *Christma*, Euskal Herriaren zazpi zatiak osatzeko, Ibarrolako elizan XVI. mendearen azkenaldiko ohol bat fotografiatu genuen, zeinetan aurkezten bait da Jesusen Sortze eder bat romanista estilokoa.

Hortarako begiz joa nuen "Oi Bethleem!" kanta. Guk dakigunez, lehenik 1897an *Uskal Noelen lilia* zeritzan bilduma hartan argitaratua; gero S. Hiriartek 1906an *Euskalduna eliza kantuak* zeritzan lanean berriz emango zuena, eta 1965. urtean Londresko BBC (British Broadcasting Corporation) irratia mundu zabaleko musikarien artean Eguberri kanta hoberenen galdeaz egin inkestan hirugarrentzat hautatua. Lehenen "Ades-te fideles", bigarren "Stille Nacht" eta hirugarren "Oi Bethleem!". Berri hau ere musika bertsoen arabera neurtuz pentagramak jarri dizkidan J. A. Arana adiskideari zor diot. Honetara, kantuairen iraupena bultzatuko dugun uste osoan, gure hizkuntza den artean sekulorum sekulotan:



OI BETHLE - EM

ALA E - GUN ZU - RE LO - RI - AK

OI BETHLE - EM

ONGI BAI - TU DIS - TI - RA - TZEN

ZUGANIK HEL - DU DEN AR - GI - AK


BETETZEN TU BAZTER GU ZI - AK

OI BETHLE - EM

OI BETH - LE - EM

Oi Bethleem!
 Ala egun zure loriak,
 Oi Bethleem!
 Ongi baitu distirutzen
 Zu-ganik heldu den argiak
 Bethetzen tu bazter guziak,
 Oi Bethleem! (bis)

Zer ohore!
 Ala baitzare goratua!
 Zer ohore!
 Zer grazia! Zer fagore!
 Zeruak zare hautatua,
 Jesus Haurraren sorlekua,
 Zer ohore! (bis)



ONGI BAI - TU DIS - TI - RA - TZEN
 ZUGANIK HEL - DU DEN AR - GI - AK
 BETETZEN TU BAZTER GU ZI AK
 OI BETHLE - EM
 OI BETH - LE - EM

EGU - BERRI. EGU - BERRI!
 GAUR DA E - GU - BERRI - A -
 GURE JAUNA JAIO BAITZEN
 OI HAU POZ ATSEGI - NA.

O E - GU - BERRI GAUA
 BOZ - KARIOZ - KO GAUA

A - LLE - GERATZEN DU - ZU

BI - HO - TZEAN KRISTAUA

MUN - DU GUZTI - A DU - ZU

ZO - RI - O - NEZ BE - THE - TZEN!

ZER - GA - TIK BAITI - O - ZU

SAL - BA - TZAI - LLEA EKHARTZEN

ZER - GA - TIK BAITI - O - ZU

SAL - BA - TZAI - LLEA EKHARTZEN

BERRIAK

1987. URTERAKO EUSKALTZAINDIAREN BATZAR EGUTEGIA

Donostia, 1986-XII-19

Jose Luis Lizundia

Joan den hileroko batzarrean aurkeztu nuen datorren urteko egutegiaren zirriborroa eta bertan euskaltzainei banatu. Hurrengo astelehenean, batzarrean izan ez ziren Batzordeburu eta idazkariei igorri nien, bakoitzaren Batzordeak zerbait proposatzeko bazuen, berehala adieraztea eskatuz.

Azkenengo urteotan bezala, txosten hau prestatzen arduratu naiz eta 1987. urtean ospakizunak, hots, mendeurren garrantzitsuenak noiz diren kontutan izan ditut. Aita Villasante eta Santi Onaindiaren euskal literatura historia, Jon Bilbao-ren bibliografia eta **Euskera** agerkaria aztertu ditut.

1987. urtean hiru mendeurren ditugu hots:

— 1887.eko Martxoaren 15ean, *Eskualduna* aldizkariaren lehen zenbakia atera zen Baionan. Hainbeste euskal idazleren adierazbide izan zen aldizkari entzutetsu honek merezi du ospakizuna. Hau dela eta, P. Charritton euskaltzainarekin izan ditut zenbait harreman mendeurren honetaz, eta baita beste Iparraldeko batzuekin ere. Datorren Martxoan batzarre irekia antola genezake euskal komunikabideetan ari diren euskaltzain oso edo urgazleei parte hartzeko eskatuz, gai nagusi erara: “euskara eta komunikabideak” izanik, alegia: prentsa idatzia, irratia eta telebista. Horren ondoren, gerora, udan adibidez, pare bat egunetako jardunaldiak, gai berbera garatzeko, antolaturik.

Martxoa izan daiteke bestalde, 1985ean bezala, Barne Jardunaldien eginkizuna betetzeko, hain zuzen bi urterik behin egin ohi ditugu. 1979an, Bizkaiko Foruan; 1981ean, Gipuzkoako Loiolan; 1983an, Arabako Angoston eta 1985ean, Nafarroako Lekarotzen. Oraingoan, V.enak izango lirateke eta igandean, 29an, eginez gero *Eskualdunaren* mendeurren ospakizuna Baionan; handik hurbil, Angelun, Barne Jardunaldiak egitea proposatzen dut. Horretarako izan nintzen Euskaltzainburuordearekin, hondartza ondoan dagoen V.V.F. delakoa ikusten eta batzar-tegi eta ostatu oso egokia dela ziurtatu genuen, prezioak ere merkeak izanik. Barne Jardunaldiotarako aztergaiak eta txostenak, aurretiaz zehatz finkatu behar-ko lirateke.

— 18887.eko Apirilaren 27an, jaio zen Toribio Etxebarria Ibarbia euskalari, euskaltzale, politikoa, industri suspertzaile eta Eibarko seme jatorra. **Euskera** agerkarian San Martinek honen berri ematen du eta baita haren *Ibiltarixanak* liburuaren hitzaurrean ere. Euskaltzain urgazle izan zen, ohorezko izateko mere-

zimenduak bazituen ere. Liburu hauen egilea izan zen, besteak beste, *Flexiones verbales de Eibar*, Bilbao; *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*, Bilbao; *Metafísica a Urcola*, México, 1966; *La experiencia socialista en España, vista desde mi pueblo*, México, 1966; *El Hijo del Hombre*, México, 1966; *Del Trabajo, la Sabiduría y la Oración*, México, 1967; *Viaje por el país de los recuerdos*, México, 1986. 27a astelehena da eta aurreko asteburuan, azken ostegun edo ostiralean hasita, mendeurren hau ospatzea pentsatu genuen. Baina zera gertatzen da, hots, aste berean, Eusko Ikaskuntzak bere X. Kongresua antolatzen duela Iruñean. Erraza da guretariko bat baino gehiago han izatea eta bestalde, Elkarte horrek gure atxikimendu osoa merezi du; beraz, ezin ditugu egun berberetsuetan guk jardunaldi batzuk iragarri.

Gramatika Batzordekoai, batez ere, P. Altuna Batzordeburuari entzun ondoren, Euskaltzaindiaren X. Biltzarrearen jarraipeneko jardunaldi batzuk prestatu beharra ikusten dugu, bertan gai nagusi erara *Euskal gramatika: Lehen urratsak* -I ondotiko landu den emaitza edo liburua aztertzea izango litzatekelarik. Toribio Etxebarriak hainbeste maite zuen Arraten egin daitezke Gramatikari buruzko Jardunaldi hauek, Maiatzaren 28, 29, 30ean. 30 arratsaldean edo 31, igandean, mendeurren ospakizuneko batzarre irekia, bera idazkari izan zen Udaletxean bertan.

— 1587an argitaratu zuen Licenciado Andres de Pozak *De la antigua lengua de las Españas* izeneko liburu famatua. Bizkaiko Foruen aldeko eta hidrografiari buruzko beste liburu bi ere idatzi zituen, oraindik biok faksimilean daudenak. Agian, hirurak argitaratu beharko lirateke datorren urtean.

Iraileko batzarrean aipatu bezala, Onomastikaz II. Jardunaldiak Bizkaian egingo lirateke, eta gure ustez, Poza omenduz batera, Urduñako hiri historikoa litzateke honetarako kokagunerik egokiena. Lehendabizi Irailean egitea pentsatu zen, baina, agian, Urrian egin beharko ditugu, zeren egutegi arazoak izan bait ditzakegu, Irailean, hain zuzen lehen astean, Mundu Biltzarra eta azkenengoan, Literatura Biltzarra iragarriak bai daude. Baionan, hil honen 9an, Batzordeak egin zuen bileran II. Jardunaldi horien egitaraua honela finkatu zuen:

1. Euskal onomastika, gaur egun euskaldun ez diren eskualdeetan.
 - 1.1. Toponimia (despopulatu eremuak barne).
 - 1.2. Antroponimia (hagionimia barne).
 - 1.3. Patronimikoekiko ikuspegia eta bilakaera.
 - 1.4. Sortze modernoko euskal onomastika.
2. Onomastikaz ikerketak: artxiboak, metodoak, bilketa, sailkapena.

Zarauzko Udalak bestalde, gutun bat idatzi digu zera aditzera emanez, hots, datorren urtean, hiri hori sortu zeneko 750. urteurrena beteko dela. Euskaltzaindia gomitatzen dute, nahi duen ekintza: batzarre, jardunaldi, jendaurreko ekitaldi edo beste egitera, beraien azpiegitura, lokal eta gainontzeko laguntza eskainiz. Joan den astean Udal Kultur Batzordeko arduradunarekin hitz egin nuen eta Uztail edo Iraila litzateke beraientzat garairik egokiena. Prest daude bestalde, euskarari buruzko mahainguru, hitzaldi, antzerki edo beste zenbait gehigarri, gure

Uztail edo Iraila litzateke beraientzat garairik egokiena. Prest daude bestalde, euskarari buruzko mahainguru, hitzaldi, antzerki edo beste zenbait gehigarri, gure batzarre edo jardunaldien inguruan, beraiek antolatzeko. Ene ustez, Baionako *Eskualdunaren* ospakizunaren jarraiko jardunaldiak antola daitezke Zarautzen, Bilbotik Baionarako autobidearen erdi-erdian kokatzen baita Zarautz. Irail edo Urrian, Onomastikakoak Urduñan egin beharko ditugunetik; hobe litzateke Uztai-lean programatzea.

Bestalde, oroit arazten dizuet nola Beloken egin ziren Lexiko Erizpideen Finkapenari buruzko jardunaldien segida, Bizkaiko Diputazioaren Aterpe batetan egitea pentsatu zela. Orain, Abenduan, lehendabizi, baina, gero, gai astun eta gehiegi zeudelako, Euskaltzainburuak eta biok, Urtarrilera atzeratzeko aipatu genion Mikel Zalbideri.

Azkenik, Abenduko batzarra Nafarroan jartzen dut, herririk izendatu gabe, hautatuko den euskaltzain berriaren sarrera batzarraren data posible bezala.

Beraz, guztiau hau kontutan izanik 1987 urterako egutegi proposamen hau dakartzu:

- Urtarrilaren 30-31 Lexiko Erizpideen Finkapenerako V. Jardunaldiak eta hileroko batzarrea, Plentzian.
- Otsailaren 27 Hileroko batzarre arruntak, Donostian.
- Martxoaren 27-28-29 V. Barne Jardunaldiak, Angelun eta *Eskualduna* aldizkariaren mendeurrenarekin hileroko batzarrea, Baionan.
- Apirilaren 24 Hileroko batzarre arruntak, Donostian.
- Maiatzaren 29-30-31 Gramatika Jardunaldiak, hileroko batzarrea eta Toribio Etxebarriaren mendeurren ospakizunak, Eibarren.
- Ekainaren 26 Hileroko batzarre arruntak, Bilbon edo Donostian.
- Uztailaren 17-18 Hileroko batzarre eta “euskara eta kazetaritza”ri buruzko jardunaldiak? Zarautzen
- Irailaren 25 Hileroko batzarre arruntak, Donostian.
- Urriaren 23-24-25 II. Onomastika Jardunaldiak, hileroko batzarrea eta Licenciado Pozaren mendeurren ospakizunak, Urduñan.
- Azaroaren 27 Hileroko batzarre arruntak, Donostian.
- Abenduaren 18-19 Hileroko batzarrea eta sarrera? Nafarroan

LANGUE, LANGAGE, PAROL, NOLA EUSKARAZ?

Bilbo, 1986-VII-19

Alfonso Irigoien

Juan Luis Goikoetxea lagunari
BILBAO

Adiskidea:

Telefonoz elkarren artean izan genduen hizketaldiaren ondorik hurrengo hau idaztera ausartzen natzaizu erdarazko **lengua**, **lenguaje**, **habla**, eta abar, direlakoen bereizkuntza nolatsu egiten den edo egin daitekeen euskaraz gaiari buruz.

Linguistikan F. Saussure-k **parole** erabili zuen **langue** hitzari oposaturik, eta gaztelaniaz **habla** eta **lengua** hartu ziren parekotzat. Jakina, **idioma** ere erabil daiteke kontestu batzuetan **lengua** formaren orde. UZEI-ren hiztegian ez baldin badator ere —ikus **Hizkuntzalaritza hiztegia** /1, Donostia, 1982—, nik neuk, eta ez naiz bakarra, **hizkera** erabili izan dut **habla** edo **parole** formen orde. Haienean, orde, **hizketa** / **hizkuntza** bikotea biltzen da, ikus **hizketa** hitza, 108 orr., Saussure-n oposizioa markatzeko.

Parole honela difiniturik gelditu zen bereizkuntza horren finkatzailearentzat: “un acte individuel de volonté et d’intelligence”, eta ikusi dugunez, **langue**-ri oposatzen zaio.

Frantsesez, hala ere, **parole** eta **langage** maiz nahasi egiten dira, eta lehenengo ‘**faculté de parler**’ ere izan daiteke.

Euskaraz **hizketa**-ren parean **berbete** ere badugu. Badira, alabaina, beste zenbait hitz ere non kokatu behar lirakekeen ikertzeko: **mintzaira**, **mintzoa**, **elea**, eta baita **hitza** eta **berbea** ere, azkenengo bi hauek frantsesezko **parole** kasurik gehienetan itzultzeko ondo letozkeenak, zeren pertsona bati **hitza** (**etortzea**) edo **berbea** (**etortea**) norbaiti hitz egiteko ahalmena etortzea baita. **Mintzoa** ere parekoa da, beste biak duten eremu semantiko zabalagoan sartzen ez bada ere. **Mintzaira** eta **hizkuntza**-ren artean ez dirudi alde handirik dagoenik ‘fr. langue, gazt. lengua’, eta UZEI-koek ere sinonimo moduan darabiltzate. Txillardegik, beste alderdi batetik, **mintzamena** ere badakar, ikus “Mintzamena gizonetik at” gorago aipatu den hiztegiko bere artikulua, 315 orr., eta “hitz-egiteko ahalmena” dela dio, eta dirudienez **ikusmen** —ikusteko dugun gaitasuna adierazteko ere autore zaharragoen artean inoiz erabilia— hitzaren erara sorturikoa da.

Hizketa eta **berbetea** gehiago dira erdarazko 'conversación' delakoaren parean jartzeko, eta izan ere **-(k)eta** delakoak halako akzio kutsua, aspektu iraunkorra, ematen die, ikus **erosketak egitera joan**, 'ir de compras', **berriketa ugari**, 'muchos chismes', **hizketan ari dira**, 'están conversando'.

Elea, beste alderdi batetik, **hitz**a, **berbea** eta **mintzoa** direlakoek ez duten zentzuz ere ager daiteke, ipuin antzeko zerbait adierazirik.

Hizkera, itxura guztien arauera, hitz egiteko moduari dagokio, **jazkera** hitzean gertatzen den antzera, eta, beste alde batetik, **-(k)era** berrekailua moduari ez dagokionean egintza hutsari lotzen zaio. Zentzu biak bata bestearen osagarri izanik ondo letorke erdarazko 'las hablas locales' eta horrelakoak itzultzeko: **tokian tokiko hizkerak**, edo **pertsona baten hizkera**, '(el) habla de una persona'. **Berbakera** ere oso osoan zentzu horretakoa da.

Alabaina, erdarazko **habla**, 'facultad de hablar', adierazteko **hitz**a, **berbea**, **mintzoa**, erabil daitezke, baina Saussure-n zentzuan baita **hizkera** ere, eta azkenengo honek, gainera, goian aipatu den zabalagoa ere izango luke.

Agian gaztelaniazko **lenguaje** adierazteko **mintzaie** erabil liteke, edo **mintzaraie**, ikus Azkue-ren hiztegia. Edozein modutan ere ez dirudi euskaraz halako bereizkuntzarik tradizioan zehar egiten autoreak saiatu direnik, hitz bakoitzak berez duen ñabarduraz kanpo. UZEI-koek ez dute argitasun gehiegirik ematen honezaz, baina gorago ikusi dugun Txillardegiren **mintzamen** hitza hemen ere koka liteke. Beste alde batetik Fr. Bartolome-k **berbakune** darabil, ikus Azkue-ren hiztegia, eta izan ere horretarako egoki da.

Azkenengo honen bide beretik batzuetan Bizkai aldean **berba**-ren ondorengo batek edo bestek zentzu berezia hartzen du, hala nola, **berbaro**, **berbaldun**, **berbaleku**, **berbatu...**, gainerako euskaldunen artean entzun ohi ez baita ez ***hitzaro**, ez ***hitzaldun**, ez ***hizleku**, ez ***hiztu**, zimendutzat **hitz** harturik, ezta ***mintzaro** eta ***mintzaldun** ere **mintzo** harturik, eta hemen **mintzatu** eta **mintzaleku** beste esan nahi batekoak dira, hau da, **berbaleku** eta **mintzaleku** alde batetik, eta **berbatu** eta **mintzatu** bestetik, zentzuari dagozkiola ez dira berdinak. Halako ñabardura berezia hartzen duten Bizkaiko hitzok ondo letozke euskara baturako ere, heda balitez.

Besterik gabe, bihotzez.

EUSKAL HIZTEGIAZ EGINIKO ITAUNEN ERANTZUNA

Bilbao, 1986-XI-2

Alfonso Irigoien

Juan Luis Goikoetxea jaunari:

Eskatu didazun eran inprentako probetan koloreztaturik dauden berbez hurrengo hau pentsatzen dut:

Dialekto: [Hitz grekoa denez gero ez dut zer esanik eta ez dago txarto egin duzuen definizioa. Hau berau adierazteko gerra aurrean bederen *izkelgi* ere erabili izan dela esango nuke, baina orain baztertuxe ikusten dut. Kardaberaz-ek lehenago *izkera edo dialekto* idazten zuen, biak elkarren parean ipinirik, baina bere testuetan beretan batzuetan *izkera* erdarazko 'habla'-ren pareko da].

Eragole: [Azkue-k Txorierrikotzat dakar. Nik neuk ez dut inoiz entzun. Definizioa honela zuzenduko nuke: *ekiten diona*, eta ez *ekiten duena*, beti datiboari begira erabili izan baita *ekin*, eta lehenago, gainera, intransitiboa zen, egungo egunean gure artean ohitura aldatu bada ere].

Eragon (du): [Nik neuk umetan beti *bearren daragoio* entzun izan dut Arratian, datiboa fosilizaturik, eta partizipiorik ez genduen erabiltzen, baina Azkue-k Gernikarako datibo eta guzti dakar: *edurrari beragoio*, hau da, *baderagoio*, forma zuzena, -e- duela *d*-ren atzetik, datibodun formei dagokienez. Behar bada egoki litzateke **eragon (du)* hiztegi sarrerari asterisko bat ipintzea, eta defektibo dela adieraztea].

Ere: [Nik hola ipiniko nuke:] Baiezko perpausetan "baita" har dezake hasieran bere aurretik, bien artean beste elementu batzu ere ipin daitezkeela, eta "bai" azkenean bere atzetik, aditza perpausa berean ez doanean. Ezezkoetan "ezta", eta bere atzetik "ez", kondizio beretan. [Gainerakoa dagoen bezala utziko nuke: (Baiezko perpausetan...)].

Erlatibo: [Ez dut uste, hala ere, erraza denik gaztelaniazko zentzurik gehienetan erabiltzea: *relativo a...* eta abar. Edozein modutan ere adjetibo erara erabili beharrekoa da: *gauza erlatiboa*. Horrexegatik definizioa zerbait biribil baledi hobe litzeteki. Agian hola:] Beste gauza batekin erlazioa duela adierazten duen adjetiboa.

Euskal: Konposizioko lehen elementu moduan erabiltzen da eta *euskara* hitzari dagokio. Batzuetan zentzua hedaturik Euskal Herriari ere badagokioke, hala nola, *euskal dantzak*. [Ez da adjetiboa].

Euskaldun: [Ondo dago, baina estilozko zuzenketa egin liteke:] Euskaraz jakinik ohituraz erabiltzen duena. [*Egunero* hitza kendu dut, zeren eta atzerrira joanik hiru hilabete berba egin gabe egonarren euskaldun jarrai baitezake].

Euskal Herri: Euskaldunak historian zehar bizi izan diren herriaren izena. [*Lurraldearen* ordez *herriaren* ipini dut, azkenengoak erdarazko 'tierra, país' adierazi nahi baitu].

Euskaltzain: Euskaltzaindiko kide euskara zaintzearen ardura leporatu duena.

Euskaltzaindia: Euskara zaindu eta ikertzeko sortu zen hizkuntzarekiko akademia. Euskaltzaingoa bere gain hartzen dute kide egiten direnek.

Euskaltzaingoa: Euskaltzain izatearen ardura eta lana.

Euskara: Euskaldunen hizkuntza, jatorriz Euskal Herrian erabiltzen dena.

Galdegai: Esaldi baten barruan enfasia eman nahi zaion edo bereziki jakin nahi den elementua. Aditzaren aurreko lekua hartu ohi du. Hitz hau 'elemento inquirido' gure hizkuntzara itzultzeko erabili izan da, baina Azkue-k erdarazkoa sortu zuen momentu beretik euskaraz *gai bilatua* deitu zion bere *Euskal izkindean*-n. Beste era batera fokoa deritza mundu zabalagoan.

Ipuin: [Ondo. *Kontu* ez da berdin. *Kontuak kontatzea* ez da *ipuinak kontatzea*].

Izenlagun: [Lehenago *adjetibo* adierazteko erabili izan dela esango nuke. Hiztegiari jartzen duzuen zentzuan, oker ez banago, Patxi Goenaga hasi zen izkribatzen geroago. Nik neuk ez dut uste egokiegia denik. Erdaraz halakoei 'complemento determinativo del nombre' derizte —frantsesez ere antzera da—: *las calles de Bilbao*, euskaraz **Bilboko kaleak**. **Bilboko** delakoari izenlagun deitzera makur bagintez, era berean konposizioko lehen elementuari ere, bereziki osorik eta zeharo lotu gabe doanean, modu berean dei geniezaioke, ikus *esku lana* edo **buru lana**. Gure mintzairan lehenengoari problema handirik gabe *izenaren osagarri zeaztailea* dei diezaiokegu, dauden tipoak ondo berezirik noski, zeren ez baitut uste terminologia kontuetan inguruetako ohituretarik gehiegi urrundu behar gendukeenik, nolabait homologazio eraren bat bilaturik].

Izenordain: [Ondo. Erdaraz 'pronombre'].

Izenorde: [Ondo. Izan ere *izenorde* hitza, ipini duzuen bigarren zentzuan, *izenordain*-en lekuan ere erabili izan da].

Joskera: [Ondó. Hutsak zuzendu behar dira].

Pasibo: [*Jasatzen* ez da forma zuzena *jasaten* baino, edo *jasaiten*].

Sustantzia: [Ez dago txarto. Agian **substantzia** ere sartu beharko litzateke zentzu filosofikorako, horrela erabilera arrunta eta bestea berezirik. Arrunta da, noski, *sustantzi bako gizona*, edo, nahi bada, *sustantzia gabekoa*].

Ukan (du): [Estiloa apur bat zaindu. *Ukan* eta *izan* distribuzio geografikoaren arauera erabiltzen dira, hau da, leku batean *ikusi ukan duguna* dena bestean *ikusi izan duguna*, edo, *nahi ukan dut* batean, eta *nahi izan dut* bestean].

Ereinotz: [Estiloa apur bat landu].

Goraintziak neure partez.

LIBER 86

Bilbo, 1986-XI-26

Aurtengo Irailaren 23tik 26ra egin zen Barcelonako “Palacio de la Metalurgia” deritzan erakustazokan Nazioarteko 4. Liburu Azoka. Erakusketa honek **LIBER** izena darama eta Madrid eta Barcelona hirietan txandaturik egiten da.

Erakusketa honetara joateko gonbitea Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailarengandik jaso genuen Ekainaren 13an. Ekainaren 27an, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailarekin mintzatu ondoren, eskatzen zitzaizkigun zehaztasunak bidali genituen Barcelona.

Uztailaren 22an, Lakuan izan zen antolakizunerako lehen bilera. Biler horretara ondoko Erakunde eta Elkarteko ordezkariak joan ziren: Maite Marzana, Kultura Sailetik; Jose M^a Ibarrondo eta Jesus Charola, Araba eta Gipuzkoako Foru Diputazioetatik; Edorta Kortadi, Eusko Ikaskuntzaren izenean; Rosa M^a Arza eta Juan Jose Zearreta, Euskaltzaindiaren izenean eta Julen Lizundia, Euskal Editoreen Elkartetik.

Nahiz eta deituak izan, ezin etorria adierazi zuten: M^a Julia García Lapeña, Bizkaiko Diputazioaren ordezkaria; Jabier Torres eta María Vega Fdez. de Bobadilla, Deustu eta Euskal Herriko Unibertsitateetako Argitalpen Zerbitzuaren ordezkariak; Pedro Castro, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzuburuak eta Andrés Fernández, Euskadiko Editoreen Elkarteko ordezkariak.

Biler horretan hainbat argibide jasotzeaz gain, Euskadiko Ordezkaritzak izango zuen Stand-aren baldintzak aztertu eta Erakunde/Elkarte bakoitzarentzako barne-banaketa egin zen. Banaketa horri loturik bakoitzak bidaliko zituen liburu zerrenda, kaxa eta bestelakoak ere Irailaren 15erako prest izatea onartu zen.

Banaketa honek mugaturik, 37 bat argitalpen titulu prestatu genituen, 160 liburukiz hornituak. Hauez gain, eta Euskaltzaindiarena ez izan arren, beste Erakusketetako esperientziak gomendaturik, Jon Bilbaoren **Euskal Bibliografia** ere eraman zen. Zer esanik ez, Euskaltzaindiaren Argitalpen katalogoa ere ugari bidali zela.

Irailaren 21etan eta 22an Stand-aren prestakuntzari ekin zioten Eusko Jaurlaritzatik joan ziren Maite Marzana, Pedro Castro, Lourdes Labaka, Jon Lezertua eta Mikel Conde; eta Ricardo Badiola eta Juan Jose Zearreta, Euskaltzainditik. Hurrengo egunetan, Jose Antonio Arana eta Rosa M^a Arzak izan zuten Stand-

aren ardura. Euskadiko Stand-a Autonomi ezberdinei eskainitako sailean kokatua zegoen.

Erakusketaren hasiera edo inaugurazioa, Irailaren 23an izan zen Erakusketa-zokaren Areto Nagusian, Elena Haugorena; Jordi Pujol, Generalitateko Presidetea; Javier Solana, Kultura Ministraria; Pascual Maragall, Barcelonako Alkatea eta Luis Vicens, Liburugileen Elkarteburua mintzatu zirelarik.

Ondoren, Agintariak Stand-ei bisita egin zieten eta Euskadikoan, Eusko Jaurlaritzaren izanean joanak ziren, Itziar Alba, Hezkuntza Kontseilari-ordea eta Eusebio Larrañaga, Oinarrizko Irakaskuntza Zuzendaria agurtu zituzten.

Erakusketa honez gain, egun horietan, hainbat hitzaldi entzuteko eta aurkezpenak egiteko aukera eskaini zitzairen argitaletxeei. Kontuan izan erakusketa honetan atzerritik etorritako argitaldari asko bildu zela, batez ere Hego Ameriketatik etorriak, Frankfurt-era bidean.

Erakusketaren lau egunetan ikuslari asko bildu zen Euskadiko Stand-ean, baina zoritxarrez lagun gitxi zegoen jendeari behar den bezalako zerbitzua emateko. Esan dezagun Euskaltzaindiaren bi ordezkariak, erakusketako orduetan txandatu, eten gabe egon zirela Stand-ean; baina Jaurlaritzak jarritako ordezkarietatik aparte, ez zen inor gehiago agertu eta Argitaldarien Elkartetik eta Diputazioetatik inor ez zenez etorri, lan aspergarria leporatu behar izan zuten han zeuden gitxiek. Hurrengorako arazo hau beste era batera antolatu beharko da eta Stand-ean azaltzen diren argitaldari guztiek ordezeko bat izan beharko dute.

Bestalde, Euskaltzaindikoek, *Liber'86* erakusketaz gain, bestelako zenbait ekinza ere burutu zuten. Hona hemen batzuk:

I. SONIMAG

"Irudi eta Elektrikari" buruzko Nazioarteko 24. erakusketa. Erakusketa hau Ricardo Badiola eta Juan Jose Zearretak jaunek bisitatu zuten. Antolatzaileek esan dutenez, erakusketa honetan 222.000 bisitari izan omen dira, 22.000 profesional eta 200.000 bisitari arruntak. Bertan, TV, Video, etxerako Hifi, ordenagailu, musika tresna, argi berezi, TV antenak, irrati eta irrati-emisorak eta abar, erakutsi eta eskaintzen ziren.

Oro har esan daiteke aurtengoan ordenagailu eta testu-erabilerarako tresneriak atzerakada egin duela, Video eta musika tresneria profesionalen gorakada handia nabarmenduz. Baina hala eta guztiz ere, Mitsubishi, Investronica, Toshiba, Amstrad, Comodore, Philips etxe eta izen ezagunak bertan ziren. Hauei buruzko hainbat berri jaso zuten.

II. LIBURU ZAHAR ETA ERABILIEN AZOKA

Paseo de Gracia deritzan etorbidean, hainbat kaseta zeuden liburu zahar eta erabilien saltzaileenak. Irailaren 25eko arratsaldean, Jose Antonio Aranak bisita

bat egin zien hango saltzaileei eta harreman berriak sortu. Horrez gain, eta Erakusketa horretatik kanpo zeuden ohizko saltzaileak ere agurtu zituen dendaz denda joanez; adibidez, Puvill, Balague, Batllé, Fontana. Els Gnoms, Selvaggio, eta Rodes. Erosketaren bat ere egin zuen denda horietan eta, jakina, *Liber'86* Erakusketan ere bai.

LEXIKO-BERRIKUNTZAZ GOGOETAK

Larraun-Lekunberrin, 1986, Urriak 24

Fr. Luis Villasante

Sarrera-hitzak

Jaun-Andreak: Egun on denoi!

Laburrak izango badira ere, elkar hizketa edo gogoeta hauen nondik-norakoa azaltzeko hitz batzuk zor ditudala uste dut. Euskaltzaindiak joan den Iraileko batzarrean gogoeta batzuk gaur hemen egitea erabaki zuen. Baina zergatik eta zertarako dira gogoetok?

Alde batetik, euskal lexikoaren alorrean gaur, nolabait esan eta Axularren hitz bat erabiliz, halako irakidura nabari da, sortze berri ugari eta guzitarikoak egiten dira, hizkuntzak dituen premia berriei erantzun nahirik. Eta hori pozgarri da. Edozeinek daki euskarari gaur egundaino izan ez duen bezalako parada eta aukera aurkeztu zaiola; ofizialtasun-maila lortu duen puntutik, administrazio eta irakaskuntzan sarrera izan duen puntutik, administrazio eta irakaskuntzan sarrera izan duen puntutik alegia. Eta horrek berekin ekarri du euskarak zenbait eremutan duen hitzen eskasia erremediatu beharra. Zorionean badira ekinbideak premia larri hauei erantzuteko asmoz sortuak; eta ongi etorriak izan bitez denak.

Baina, beste aldetik, langintza honetan joera eta jokabide guztiz desberdin eta are kontrajarriak ere egotea gerta daiteke, eta orduan eta hortik euskal kulturaren etxegintza hau kaosa bihurtzeko arriskua legoke, hots, dena arriskutan jartzeko moduko kaltea letorke. Eta hori beldur izateko da, zeren gauzak izendatzeko izen ongi aukeratuak, zehatzak eta ongi mugatuak ez baditugu aurkitzen, obra guzti honek porrot egin lezake.

Euskaltzaindiak, bistan da, dena berak bakarrik ezin egin dezake, itsaso hau neurgea eta ikaragarri zabala da eta; baina dena egitetik eta ezer ez egitera ere tarte handia dago, eta berari dagokio, ene ustez, alor honetan erizpideak finkatzea eta lerro nagusiak markatzea, egiten diren lanak gutxienezko batasun bat izan dezaten.

Euskaltzaindiaren barnean bada Hiztegi-batzordea, Gramatikaren batzordea den bezalaxe. Hiztegia eta Gramatika dira, zalantza gabe, Euskaltzaindiaren egiteko nagusiak.

Gaur gurekin ditugu hemen Hiztegi-batzorde horren buru den Mitxelena jauna, buru ordea den Ibon Sarasola jauna, batzordearen idazkari den Mikel Zalbide jauna, idazkari ordea den Ricardo Badiola, etab.

Mikel Zalbide jaunak aspaldidanik egina du epe luze eta laburrerako plangintza bat, hots, euskarak alor honetan eskuratu edo lortu behar dituen xedeen plangintza, noiz zer-i heldu beharko zaion adieraziz. Plangintza hau behin baino gehiagotan azaldu du berak Euskaltzaindiko batzarreetan eta onartua izan da. Orokorreko gain-begiratu hauek uste dut onurakor eta are beharrezkoak ere ditugula une honetan, gauza bat mugaz kanpo edo goizegi edo beranduegi egin nahi izatetik letozkeen kateak ahal dela gibelarazteko, eta langintza honetan funtsezko eta oinarritzko koordinaketa eta batasuna gorde dadin.

Dena labor bilduz, gaur bada alor honetan, berriz ere Axularren hitza hartuz, irakidura bat, borborrean eta pilpilean dagoena, baina bai nahastekak ere, eritzien eta joeren multzutasun eta desberdintasunetik heldu direnak. Ahal dela, koordinaketa baten barnean egin behar lirateke gauzak, eta hain zuzen, horregatik, gogoeta batzuk Euskaltzaindi eta lan honetan dabiltzanen artean egin behar zirela pentsatu zen. Horra, bada, zergatik eta zertarako diren bilera hauek.

* * *

Euskaltzaindiak behiala, 1959an, euskal hitzei buruz agiri bat eman zuen. Ikus **Euskera** (1959), 216-217. Gehiegizko purismoaren kontra eman zen adierazpen hura. Han emandako erregelaren arabera —eta berau da, noski, munduko hizkuntza guztiek arazo honetan darabilten araua— hizkuntzan erroztatuak diren hitzak etxekotzat jo behar dira, hitzen jatorri edo etorkiari begiratu gabe. Purismoak jarritako hertsikeriatik hizkuntza salbatu nahiez, eman zuen Euskaltzaindiak agiri hura.

Baina ordutik hona joerak neurri batean aldatu egin dira eta orain boladan dagoen joera agian bestelakoa da. Badirudi gaur zenbaitek errazegi jotzen duela maileguetara. Eta hori bakarrik balitz, gaitzerdi. Maileguetara behar denean jotzea zilegi da, noski, baina hitzok nondik eta nola hartzen diren ere beharko da jakin. Askotan gaur gaztelaniatik zuzenean hartzen dira, eta hori egitean ez gara ohar-tzen euskaldunen artean batasuna egin beharrean, berriz ere leizea sakontzen ari garela, euskara gaztelaniaren morroi bihurtzen dugula eta Iparraldeko gure anaiekin lokarriak moztzen ditugula.

Hori gerta ez dadin, badirudi, maileguak hartzerakoan urrunagoko edo goragoko iturri bat, adibidez latina, abiaburutzat hartu behar genukeela, nahiz eta latinezko forma ere zenbait aldakuntzarekin hartu. Hor, goragoko iturri horretan, bat etor gaitezke hango eta hemengo euskaldunak, horrela geure-geurean den bidea moldatuko genuke, ez frantsesaren eta ez espainolaren ereduari lotu gabe.

Eta ez da ahantzi behar hitz berriak sortzeko, maileguez gainera, euskarak badituela beste bi bide, hots, hitz-elkarketa eta hitz-eratorpena. Euskaltzaindiak ez du uste hiru bide hauetatik bat ere euskarari ukatu edo debekatu behar zaionik. Hizlari eta idazleek kasu konkretuetan hiruetara jotzeko aukera dute. Baina beroietaz ongi baliatzen ere beharko dute ikasi. Eta noiz zein bide hartu behar den erabakitzea neurri batean bakoitzaren eskumenean gelditzen da.

Azken urteotan Euskaltzaindia hiru bide hauei buruz arau gidari batzuk agertu nahiez dabil. Maileguzko hitzei buruzkoak emanak eta liburuska batean bilduak dira jadanik. Bertan adierazten du Euskaltzaindiak mailegu berrietan bere ustez hartu behar den bidea zein den. Orain hitz-elkarketaren alorrean lan beretsua egin nahirik, hartako batzordea lanean hasi da. Eta lan hau burutzen duenean, eratorpenaz gauza bera egiten hasiko da.

Jakina, honelako itsaso neurgian ez da posible dena lotzea edo salbuespenik gabeko arauak ematea. Hauxe izan nahi dute, bada, Euskaltzaindiak eman nahi dituenak: "arau gidariak". Bide zabal batzuk markatu nahi ditu, lan guzti hau batasun baten barnean egin dadin.

Orotariko euskal hiztegia aurrera doa. Lexiko Erizpideen finkapen-lana ere bai.

Baina hitz berrien sorkuntza-lanean nola edo hala sartuak daudenen joerak ahaiez hurreratzeko, eta bakoitza bere aldetik ibil ez dadin edo muga baino lehen edo geroago lan bat egiteak dakarkeen gaitza aienatzeko, pentsatu da agian on zitekeela mahai baten inguruan elkar hizketa hau egitea; ez inori lana galerazteko, noski, baina bai batasun zabal baten barnean eta koordinaketa batekin lan hori egiteko; hori posible dela ikusten baldin bada, behintzat.

Akademiak ez du inortxoren lana bazterrera bota behar dela uste. Ongi daki guztion beharrean dela hizkuntza. Esan dezagun, aitzitik, bakoitzari bere lekua bilatu nahi diola, horrela guztion lana baliagarriago gerta dadin.

* * *

Ez dira, gainera, lehen aldikotz egiten honelako bilkurak. Honen aurrekoak Hondarribian egin ziren 1981. urteko azken egunetan. Ikus **Euskera** (1982), 263-271. Ea oraingo honetan beste urrats bat egiten dugun.

Bukatu baino lehen, ez dut isildu nahi, goitik, Eusko Jaurlaritzan euskal arazoen arduradun denarengandik heldu dela eskea. Goitik edo kanpotik agian hobekiago ikusten da gure sakabanatzea eta gaitz horri sendabide ipini beharra. Nik neure aldetik erregu egin diot berari hemen hitz batzuk esan ditzan. Horrela guztiok jabetuko gara gogoeta hauen helburu eta garrantziaz. Beraz, Mari Karmen Garmendia andreari emanten diot hitza.

LEXIKO-BERRIKUNTZAREN INGURUKO ZENBAIT OHAR-AZALPEN

Larraun-Lekunberri, 1986-X-24

Mikel Zalbide

0. SARRERA

1983ko Apirilean sortu zuen Euskaltzaindiak, Arabako Angoston egindako bere III. Jardunaldietan eta Iker Sailaren barnean, Hiztegitzinta Batzordea. Luis Mitxelena batzordearen buru izanik eta Ibon Sarasola buruorde, ondoko beste kideok osatzen dute ordudunik Hiztegitzinta Batzordea: Rikardo Badiola, Xabier Kintana, Luis Mari Mujika, Txomin Peillen eta Mikel Zalbidek. Euskaltzaindiak hiztegien alorrean zituen eginbehar zabalak ez ditu noski, batzorde honek, gaue-
tik goizera osotoro bete. Ez dut uste ordea, inoiz han-hemenka bestelakorik entzutea gertatzen den arren, hiztegi kontuan ere Euskaltzaindia geldirik dagoela edo astiroegi dabilela esatea kontu zuzena denik.

Batzorde honen idazkari-lanetan ibili naizen aldetik honako pauso hauek sentitu izan ditut, hiru urte t'erdiko ibilera honetan, funtsezkoen:

a) Euskaltzaindiak hiztegitzintzaren alorrean, bere luze-zabalean harturik, egin beharrak leuzkakeen ekintza nagusien zerrenda bat prestatu zen lehenik. Euskaltzaindiak berariaz aztertu izan ditu ekintza-asmo horiek Lekarozen, Bilbon eta Donostian eginikako batzar banatan, eta bere oinarritzko adostasuna agertua ere du eginkizunen lehen hurbilketazko bilduma horrekiko.

b) Lan guztiak premia berekoak ez zirela ikusirik, eta ekintza batzuk berez besteen ondoan —ez aurretik edo aldi berean— egitekoak zirenaz jabeturik, bi fase edo epealdi ezarri ziren langintza guzti hori aurrera eraman ahal izateko. Bospa-
sei urteko lehen epealdirako, honela, zuetariko askok ondo gogoan izango duzue-
nez honako eginbehar hauek finkatu ziren:

- Orotariko Euskal Hiztegia (aurrerantzean OEH).
- Lexikologi Erizpideen Finkapena (aurrerantzean LEF).
- Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa (aurrerantzean EEBS).

c) Orotariko Euskal Hiztegiari 1984ean bertan eman zitzaion behin-betiko abiada. Luis Mitxelenaren zuzendaritzapean eta Ibon Sarasola langintza osoaren arduradun eragile izanik, OEH programa aski bideratua dago jadanik eta, azken orduko atzerapenen bat gertatzen ez bada behintzat, ekintza sendo horren lehen

uzta (800 eta 1.000 orrialde arteko liburukia) berandu baino lehen eskuartearen izatekoa dugu.

Hiztegigintza Batzordearen epe ertain eta luzerako plana prestatzerakoan Orotariko Euskal Hiztegia egin eta argitaratze-lanari aitortu zitzaion erabateko lehentasuna. Arrazoi sendo eta ugariak zeuden orduan, eta egungo egunean ere ez dute nere ustez inolako balio-indarrrik galdu, lehenespen horren alde: bere lan-bolumen handia; euskaldungoaren erabilera zuzenerako sortuko duen emaitza osatua; gainerako hiztegi guztietarako jakiniturri nagusi izatea; ...

d) Lexikologi erizpideen finkapen-lana ere aurrera doa. Maileguzko hitzen idazkeraz argibide egokiak emanak ditu jadanik Euskaltzaindiak, hartarako aurre-lan ugariak pausoz pauso eta beharrezko zehaztasunez burutu ondoan. Horrezaz gainera LEF programaren bigarren urrats gisa, hitz-eraketazko baliabide desberdinen azterketari heldu zaio berrikitan. Lehen aztergai hitz elkartuak harturik lanean ari da talde eragilea joan den Apiriletik eta, horrezaz gainera, Ekainean egina du osoko taldeak, Beloken, aurtengo lehen jardunaldia. Bigarrenaren prestatuntza ere, Gabonak ingururako edo, bide onetik doa.

e) Egungo euskararen bilketa-lan sistematikoa (EEBS programa) da azkenik, bospasei urteko lehen epealdi honetarako, abiakizun dagoen ekintza bakarra. Hemen ere eman dira, hainbatean haztamuz eta aurre-lan gisa izan bada ere, lehen urratsak. Horrela:

— Euskaltzaindiak badu, 1986ko bere aurrekontuetan, eginbehar honi erantzuten hasteko berarizko diru-partida jasoa.

— Hiztegigintza Batzordeak prestatua du gainera, 1985eko Uztailan Euskaltzaindiaren hileroko Batzarrean aurkeztu, eztabaidatu eta hein batean landuz, bilketa-lan sistematiko hori zuzen bideratzeko lanjardunaren oinarritzko eramoldezirriborrea. 1985eko Uztailaren 19ko fetxa daraman Hiztegigintza Batzordearen txostenean azter dezake nolanahi ere, berri zehatzagorik nahi lukeenak, diodan guzti horren nondik norakoa. Orduko planaren arabera iritsia ere litzateke, hor nonbait, egungo euskararen bilketa-lan sistematikoari ekiteko garaia.

Norbaiti gogoak emana izango dio honez gero, eta ez arrazoirik gabe, galdezka hastea: gauza guztiak bideraturik badaude, lan-programak finkaturik, dirubideak eskueran eta gizatalde egokiak osaturik edo erabidean, zer dela eta hasi behar dugu orain, hitzaspertuari ez baina lanari ekiteko ordu honetan, lexiko-berrikuntzaz gogo-jardunean? Ez ote litzateke hobe, behingoz, hizketak (ez nuke berriketa esan nahi) alde batera utzi eta isil-isilik lanean hastea?

Ez dut halakorik uste. Horra, dauden-daudenean, uste horren indargarri-edo ikusiabartzen ditudan arrazoibideak.

I. GOGOETA-LANA ZERGATIK

Egungo euskararen bilketa-lan sistematikoari ekiteko premia dagoenik inork gutxik ukatzen du. Gai honi buruz gure artean jaulki izan diren eritzien bilduma labur bat prestatzen ibili berria naiz, eta ez azken-azken orduko eritziena soilik

gainera, eta badirudi puntu horretan bederen aski den adinako adostasuna dagoela euskaltzaleon artean: gure egoeraren berri jakin beharra dugu, ahalik era zehatz eta sistematikoenean jakin ere, bihar edo etzi inolako erabaki ganorazkorik hartu nahi bada. Ez dut uste, ordea, guztion arteko adostasunak puntu horretatik askoz harantzago doazenik. Litekeena da oker egotea, eta aukeran poztu ere egingo nintzateke egoera nik uste bezain iluna ez dela ikusiko balitz; baina ez dut uste. Hitz gutxitan esateko, denok edo ia denok sentitzen dugu bilketa-lan hori egin beharra dagoela; ez zait iruditzen inondik inora ere eritzi bateko garenik, ordea, bilketa-lan hori nork, noiz, nola eta zertarako egin behar lukeenaz. Balegoke beraz, horregatik bestegatik ez balitz ere, lehen begiratu batez lan mekaniko hutsa lurdikeen bilketa-lan horri ekin aurretik oinarritzko zenbait galderaz gogoeta egiteko arrazoirik aski.

Ez zait gainera iruditzen, eta horra bigarren arrazoibidea, egungo euskararen bilketa-saioa lexikografi lan hutsa denik. Hizkuntzaren hitz-altxorraz gainera bere eguneratze— edo modernizazio-arazoari heltzen dio aitzitik, bete-betean heldu ere, egungo euskararen bilketa-lanak. Lexikoaz edo hitz-altxorraz gainera hizkuntza osoaren eramoldea, gurasoengandik jaso dugun ondare horretarik seme-alaba edo ilobei zer bere hartan gorderik, eta zer berriturik, eskualdatu nahi geniekeen dago hor, funtsean, aztergai eta erabakizun.

Eta ez dut uste, azkenik, hizkuntzaren zaharberritzea dela-eta azken urteotan batzuk eta besteok agertu ditugun erizpide desberdinak, eta elkarri sarri asko egin dizkiogun gaitzespen mingotsak banan banako hitz-azterketa xotil batek ezabatu eta zurituko dizkigunik. Hizkuntzaren taxukera osoa da hemen, ahoskeratik hasi eta, gramatika-bideetan barrena, hitz-altxorerraino, oraingo hainbat berrikuntza direla-eta euskaldunok, ez euskaltzale asko— edo gutxi-jakinok soilik, auzitan somatzen duguna. Irudiaz baliatuz, urte-sasoi berrirako erosi nahi genituzkeen soineko edo jazki-apaingarriak baino areago hanka-punttatik hasi eta kopetarainoko hezurdura osoa, bere buruari eutsi ezin izango ote dion bildurrez nabaritzen-edo dugun hezurdura, da hemen eztabaidagai daukaguna. Hortik datoz gure egonezin eta haserre-bideak, puntu jakin honi, horri edo harako hari bestek ematen dion konponbide ustez traketsetik baino askozaz gehiago. Eta guztiz onuragarria iruditzen zait, ondorioz, inongo puntu konkretu konpondu-asmoak behingoz alde batera utziaz arazoari bere osotasunean heldu nahirik gogoeta-lan oinarritzko honi heltzea. Gai honetaz, jakitez edo eskarmentuz, burualdea behin baino gehiagotan nekatu izan dugun lagunak bildu garenez, eta Euskal Herrian gaur egun gailendurik-edo dauden eritzi desberdin gehienetako partaideak ere tartean gaudelarik, badut itxaropen sendorik gogoeta-lan honek probetxuzko etekina emango duela.

II. ZENBAIT AUZIGAI

Badira noski, lexiko-berrikuntzaren alorrean ere, gaiari heltzeko saihesta eta ikusmolde desberdinak. Gehiago izango direla ahaztu gabe ere hiru ditugu hemen, funtsean, gure artean maizenik erabili ohi direnak. Labur beharrez hizkuntzalari-tzaren ikusmoldea esango diot lehenengoari, soziolinguistikoa bigarrenari eta hirugarrenari, hoberik ezean, Administrazioaren ikuspegia.

- Lehenengo ikusmoldea berrikuntza hori zein hizkuntz baliabidez mami-tzen ari denaz arduratu ohi da sarrienik, bide batetik edo bestetik sorturiko hizperriak noraino diren edo ez diren egokiak aztertzen saiatuz.

- Soziolinguistikazko ikusmoldeak aldiz hitzunak ditu, batez ere, kontuan: banakako hitzunak baino areago hitzun-taldeak, normalean. Hitzun-taldearen bizi-molde berriak hizkuntzaren eguneratze-kontuan zer-nolako eragina eta harreman-bideak dituen aztertu ohi ditu ikusmolde honek, sarri asko, batetik. Eta, bestetik, urliak edo sendiak sorturiko hizperriek hitzun-taldearengan zenbaterainoko onar-pena eskuratzen dutenaz arduratu ohi da berriaz.

- Hirugarren ikuspegiak, Administrazioarenak, xede nagusi bat izan ohi du maizenik: hizkuntzaren eguneratze-saio horiek garaiz eta zuzen bideratu ahal izateko baliabideak jartzea, Herri-Aginteak hartarako duen ahalmenaz.

- Hirugarren ikuspegi hau ezertan gutxietsi gabe ere lehenengo biak hartu-ko ditut soil-soilik, ondoko gogoetak egiterakoan, kontuan. Euskaltzaindiaren ezarpen-eremua, eta bere erantzunkizunak bide batez, batez ere lehenengo bi ikusmolde horietara biltzen direlako ustean egin ere egin dut mugaketa hori.

II.1. Maileguak bai/ez

Hizkuntzalaritzaren ikuspegitik badugu hemen euskaldunok, besteek bere-nean ere maiz asko izan ohi dutenez, aitatu orduko sua pizten duen gaia: euskaltzale eta are euskaldun-jende arruntaren arteko sesioaz eta haserre-bideaz ari naiz, noski, ez bestelako suaz. Hizkuntzak, orain punturarte debeku izan dituen (edota, nonahi bezala, hemen ere sortu berri-berriak diren) esparruetara sarbide izango badu, eginbehar berrirako egokitu egin beharko du, gutxi edo asko, bere burua. Eta egokitu, besteren artean, bere ohizko hitz-ondarea egokitu beharra izaten du halakoetan. Nola egin ordea, hartaraz gero, egokitzapen hori? Nola eguneratu bere ordurainoko hitz-altxorra, egungo behar berriei zuzen eran-tzun ahal izateko? Hartarako baliabideak bat baino gehiago ditu euskarak, eta ezinbestean ez dago horrelakoetan beti bide beretik ibili beharrik. Hor ditugu nolanahi ere, bidezidor xumeagoak oraingoz alde batera utzirik, honako jokamol-de hauek:

- Hitzak erdaratik, maileguz, gureganatzea.
- Euskal hitz-eraketazko baliabideetarako batez hizperriak sortzea.
- Galtzeko zorian genituen behinolako hitzak berreskuratu eta eginkizun berriei erantzuteko berrezartzea.
- Bizirik eta sendo sustraituak ditugun ohizko hitzei esanahi-eremua zabal-du eta, lehendikakoez gain, edukin berriak txertatzea.

Ez dugu euskaldunok, bide hauetara jotzean, ezer berririk edo are bidegabe-rik egiten: besteek ere maiz-sarri jo izan dute antzeko larreetara elikagai horren beharrean sentitu izan direnean; eta orain bertan ere ez da hain zaila, begiak zabaltu orduko, auzo-hizkuntzetan bertan antzeko jokamolderik nabaritzen. Non sortzen da beraz, eta non sortzen zaizkigu guri batipat, direlako suak eta garrak?

Erabateko erantzunak berez duen sinplifikazio eta, ondorioz, oker-iturriaz jabeturik ere, ez da hain oker handia izango eztabaida, puntu honi gagozkiolarik, maileguzko hitzen inguruan sortzen dela esatea. Euskaldunok oso eritzi desberdinak —inoiz baino gehiagotan kontrajarriak— ditugu gure hizkuntzaren gaurkotze-lan osoaren baitan euskararen lexiko-berrikuntza nola egitea komeni denaz. Bai, egia da hori. Hori bezain egia ere da, ordea, zaharberritze-lan horretan maileguzko hitzei eman beharreko sarbidearen estu-zabalarari dagozkionetan gaudela euskaldun eta euskaltzaleok, batez ere, elkarrengandik oso urrunduak.

Eztabaida hau ez da gainera, inoiz urak errota horretara eramateko joerarik ageri bada ere, azken bost edo hamar urteko kontua. Mende-hasieratik bertatik, lehenagoko iturrietara jo gabe, bekoki-bekokian daramagu denok, zeinek nabar-menago eta zeinek gozatuagorik, auzi horretan alde bateko ala besteko partaide izatearen marka. Euskaltzaleen arteko eztabaida amaigabea izan da hau, eta ez liguke kalterik egingo gure aurrekoek gai honetaz idatzirik utzi dizkigutenak soseguz irakurri eta patxadaz ausnartuko bagenitu. Axalgaineko aipamena baizik izango ez bada ere aizu bekit hemen, aldian aldikoak elkarrengana bildu eta alfabeto ordenan zerrendatuz, honako euskaltzaleon izenak gogora ekartzea:

- Euskaltzaindiaren sorrera-aldian Altube, Azkue, Campion-Broussain, Eleizalde eta Olabide.

- Gerraondoko baraualdi larri-estuan Krutwig, Orixe, Villasante eta Zaitegi.

- Eta azken 20-25 urteotan, izen gehienak tintontzian uzteko arriskua begien bistatik ezin apartatuz banabil ere, diodan eritzi sendo eta eragingarriak eskainiak dizkigutela Jose Basterretxea “Oskillaso”, Gaizka Barandiaran, Joseba Intxausti, Xabier Kintana, Luis Mitxelena, Luis Mari Mujika, Josu Oregi, Andoni Sagarna, Ibon Sarasola eta Anbrosio Zatarainek.

- Hainbatek eta hain denbora luzez eztabaidaturiko gaia orain, gauetik goizera, guztion gogo-betegarri izango den eran konpontzerik ez dagoenaz jabetzea ez dugu agian, gauzak dauden egoeran daudelarik, irabazpiderik urriena izango. Badago horretaz gainera zer ikasirik franko ere, baina ez nuke halere azpimarratu gabe utzi nahi alde bateko eta besteko guduskak, guduak eta are gurutadak ez zaizkidala egungo egoeran probetxuzkoegiak iruditzen. Auzigaiari inoiz edo behin konponbiderik aurkitzekotan hobe izango dugu nere ustez, beste hainbat puntutan bezala, gauzak desberdin ikusten eta sentitzen ditugula aitortu eta onartzetik hastea; eta behin hartaraz gero, gizalegearen oinarritzko arauak errespetatuz, nork geure uste-aburuen euskarritzat dauzkagun arrazoiak (handi nahiz txiki, sendo nahiz ustel) elkarri azaltzen saiatzea izango dugu korapiloa askatzeko modu bakarra.

Errakegia da alor honetan, inon errazik bada, elkarrekiko deskalkifikazioak jaurtikitzea. Zailagoa ordea, baina beharrezkoagoa ere bai, jatortasunaren eta erdalkutsuko berrizaletasunaren arteko buru bien arteko ezkontzabideak, uztardurak edo konbinazio aproposak aurkitu eta, nork bere egunoroko jardunaren ereduz, indarrean jartzen ahalegintzea.

Nik neuk ez nituzke behintzat, bapateko konponbide sinpleen artean, gai honetaz azken urteotan agertu diren kezak eta jarrerak besterik gabe ahaztutzat emango. Maileguzko hitzen erabilerari dagokionez, horrela, hainbat eta hainbat

kezka agertu dira urteotan, behar den arretaz aztertu eta landu ez ditugunak. Partez bederen alea neuri jasotzea dagokidan neurrian ez nuke esan gabe utzi nahi itxuragabeko mailegu-uholdeari ikusi uste izan zaizkion ajeak aski kontuan hartzekoak iruditzen zaizkidala. Honako hauek, besteak beste, ez nituzke nik orain (ikusitakoak ikusirik) ez-ikusiarena egin eta alde batera utziko.

a) Exonormatibismoaren arriskua: gaztelaniarekiko mugaz haraindikoek frantsesarekiko? morrontza itxuragabea, beste hitzetan esanda.

b) Oraindainoko tradizioarekiko etena, eten beharrik ez zegokeen punturik xumeenetan ere.

c) Jakintzagai eta bizigune desberdinetarako terminologia teknikoak ohizko hiztegi arruntaren mirabe izan behar duela, eta ez alderantziz.

Erreparo horiek bere horretan onarturik ere maileguzko hitzen aldeko arrazoirik badagoela uste dut, eta arrazoi sendoak gainera. Ez dut uste ordea inork horien aldeko azalpen teorikorik eskaini duenik, eta horren premia egunetik egunera beharrezkoagoa sentitzen dut. Arrazoi horien bila hastekotan ez da agian biderik okerreza izango, iruditzen zaidanez, terminologia tekniko horiek ere beren xedeaz, eta begiz jotako hitzun-multzoaz aski maila desberdinekoak izan daitezkeela eta izaten ere direla gogoratzea, eta horrek berak matizazio-bide sendoak ezar dezakeela hitz horiei buruzko erizpideetan. Puntu hau luzeago landu beharra ikusten dut, nolanahi ere, eta oraingoz aipatu baizik ez dut egiten.

II. 2. Hizkuntzalaritza hutsaz kanpoko auzi-bideak

Ez dugu maileguen kontua ordea, ez eta hizkuntzalaritzazko ikuspegia ere, auzi-iturri bakarra. Neurri batean soziolinguistikaren ikuspegitik hurbilago dauden puntu banaka batzuk aipatu nahi nituzke hemen, zuen aurrean, eztabaidarako helduleku gertatuko diren itxaropenean. Horra, banan bana emanik eta berezko ordena logiko handiegirik gabe, burura datozkidanak.

II. 2.1. *Lexiko-berrikuntzazko sorkarien gizarte-onarpena*

Errazegi uste izan dugu askok, eta neure burua ez dut horretan besteena baino errugabeago ikusten, hizkuntzaren modernizazio-kontua lexiko-berrikuntza hutsezko arazoa dela. Eskarmentuak ezertarako balio digun neurrian garbi ikusten dugu ordea orain, egunetik egunera garbiago esango nuke, hizkuntzaren gaurkotzea ez dela urrundik ere lexiko-berrikuntza soila. Ez eta agian garrantzitsuena ere, erantsiko nuke nik —diodan azken honetaz zalanza ugaririk falta ez zaidan arren—, Eskoletako ikasle-irakasleen luma-ezpainetan, edota luze-zabaleko euskal komunikabide berrietako (bereziki ETBko) hainbat bikoiztaile-esatariren nahi eta ezinetan nabari diren eskasiak kontuan hartzen badira. Baluke puntu honek, gaurko aztergaiaren eremutik zertxobait aldentzen bada ere, Euskaltzaindiak hurrengo batean berariaz landu eta aztertzeke funtsik aski. Besterik da ordea, oraingoa, aipatu nahi nukeena: lexiko-berrikuntza ezin daiteke inoiz,

sarriegitan egin dugun bezala, jakintzagai edo bizigune berezietarako hitz-zerrendak prestatu eta, argitalpen-bide batez edo bestez, zabaltzera mugatu. Lexiko-berrikuntzazko ahalegin guztien iturburu eta azken xedea begian bistatik galdu nahi ez baditugu hitz horiek norentzat prestatzen ari garen aztertu eta sakonki landu beharra daukagu. Kasuan kasuko hiztun-taldeak hizperri-multzo bati eman-go dion edo ez dion onarpena da, nahi eta nahi ez, eztabaida guztiotan begien aurre-aurrean eduki behar duguna. Eta onarpen hori ez da, ezinbestean eta are gehienetan, hizkuntzalaritza hutsezko metro-patroiaz neurtzen: hitz berri jakin batzuk indarrean jarriko badira gizarte-onarpena eskuratu behar dute. Itxura hutsezko txorimalo indargabe bilakatuko dira bestela, luzaro gabe, ezer baino gehiago asmatzailearen beraren lotsagarri.

Hizperri baten gizarte-onarpenak, berriz, ondoko hiru baldintzok ditu nahi eta ez berekin:

- a) Hiztun-taldeak gogozko izan behar ditu sorkari edo mailegu berri horiek
- b) Ikasi egin behar ditu, gainera, eta
- c) Erabili egin behar ditu.

Hiru baldintza horiek —azken biak bereziki— betetzen ez diren artean ezin esan liteke gizarte-onarpenik eskuratua denik, eta hori gabeko berrikuntza-saioak herren dabiltza ondorioz, beren oinarritzko helburuari erantzun ezinik. Lexiko-berrikuntza nola egin behar litzatekeenaz batzuk eta besteok, nork geure erreze-ta egokiak golko-sakeletan ditugula, elkarren arteko eztabaidan gabiltzanean, eta bereziki garbizaletasunaren eta hizkuntza mordoilo-berrizalearen arteko zurrunbi-loan elkarri mokoka ari garenean, bagenuke goian esandako onarpen-kontu hori dela eta hainbat eztabaida “linguistiko” alde batera utzi eta hizkuntz soziologia-ren ikuspegitik gauzak berraztertu eta argibide osatuagoz jarduteko beharra.

II. 2.2. *Lexiko-berrikuntza nork burutu behar lukeen*

Euskaltzaindiaren sorrera-aldian bertan garbi adierazi zenez (ikus bere arau-tegiko lehen artikulua, g puntua), erakunde honen zeregin nagusietariko bat hizkuntza gizarte-maila guztietan gai bihurtzeko lan egitea da. Euskararen gaurko-tze edo modernizazioa bete-betean sartzten da beraz Euskaltzaindiaren lan-esparruan; eta hor sartzten ere da, ondorioz, lexiko-berrikuntza bera.

Gogoeta-bilera hauetarako dei-idazkian ere argi asko azaldu eta gogoratu berria digu bestalde, Euskaltzainburuak, lan hori badela gure Akademiaren egite-koa: ez bere eskubidea soil-soilik, neurri batean bere eginbidea ere baizik.

Lexiko-berrikuntzaren alorreko kontu horretan Euskaltzaindia ez da gainera, bere sorrera-unetik gaurdainoko ibilera luzean, eskubide-eginbideen azalpen hutsean gelditu izan. Gerra-aurreko saioez gainera ⁽¹⁾ hainbat pauso emanak ditu Euskal-

(1) Ikus esate baterako, lehenengo-lehenengo unearen beraren adierazgarri, Euskaltzaindia (1921), “Itzbeñika” (índice de neologismos), in *Euskera*, 1919-20, II. zkia, 90-95 orr.

tzaindiak, azken 15 urteotan, jakintzagai eta bizigune derberdinetarako terminologiak prestatzerakoan. Ez ezinbestean arauzko erabaki bihurtu asmoz, baina bai guztion adierazgarri. Horietariko bat baino gehiago itzuriko zaidan arriskuaz ongi jabeturik ere, honako puntuok bederen gogorarazi nahi nituzke:

- Filateli hiztegia, 1973ko **Euskeran**.
- Merkatalgo izendegia, urte bereko agerkarian.
- Etxegintza eta arkitekturarako hiztegiaren gertuketa, 1974eko **Euskeran** adierazten denez.
- Zortzi urte arteko ikastola hiztegia, 1975eko **Euskeran** argitara eman eta, handik berehala, berarizko liburuska moduan kaleratua.
- Estatu izenak, 1975eko **Euskeran** adierazten den eran.
- Musika gaietazko hiztegi bati buruz ematen da, bestalde, 1976ko **Euskeran** argibide zenbait.

Lan horien onarpen-maila batetik bestera agitz desberdina izan bide bazen ere, aski den adinbateko erakusgarria iruditzen zait zerrenda labur hori (eta ez litzateke luzatzen ezina, hartara jarritz gero) Euskaltzaindiak gure hitz-altxorra eguneratu eta osatzeko kontuan aurrera eraman duen eta daraman ahaleginaren lekukotasuna emateko.

Jakina de gerora, 1981eko Abenduan Hondarribian egindako Jardunaldian, Euskaltzaindiak banaketa hirukoitz batez mugatu zuela, berari zegokion neurrian, euskal hiztegitzaren alorra.

- Euskal Hiztegi Nagusia (orain *Orotariko Euskal Hiztegia*).
- Hiztegi hiritar arauemailea.
- Espezialitate-hiztegiak.

Jardunaldi hartako aktan garbi adierazten denez, espezialitate-hiztegiak egitea ez da Euskaltzaindiaren lana. Honek ez du esan nahi, besterik gabe, sortarauetako bere jatorrizko eguneratze-xede haiei eta 1970eko hamarkadan, goian aipatu bezala, aurrera emandako pauso guzti haiei uko egin zitzaientik delako agiri horrekin. Euskaltzainburuak berak adierazi du gainera hainbat aldiz, eta gaur goizeko sarrera-hitzaldian azken aldiz entzuna diogu, eginbehar hori badela bere eginkizuna, gidaritza eta bateratze-ahaleginean bederen.

Ez dut uste inork gaizki hartuko didanik, dena den kontua hain garbi ez dagoela baldin badiot. Gauza ez txuri eta ez beltz denekoan bat etorriko gara gehienok, agian, baina kalterik ez liguke egingo denoi puntu horretaz argitasun handiagorik izango bagenu.

Nere uste sotilean, euskal hitz-altxorren berrikuntza-kontu honetan badugu euskaldunok oro har, eta bizibidez Irakasmunduan, Administrazioan edo Komunikabideetan dihardugun geroz eta gehiagok bereziki, gidaritza eta bateragune argi baten beharra.

Eta gidaritza hori, inolako zalantza-izpirik gabe, Euskaltzaindiari dagokiola uste dut. Honenbestez ez diot, eta aurrerago helduko diot berriro gaiari zehaztasun handiagoz, arau zorrotzen beharrea gauderrik nahi eta ez. Gidaritza behar da nere ustez, hori garbi daukat, eta gidaritza hori Euskaltzaindiari dagokio aurrez aurre eta bere osotasunean. Bide paraleloak era daitezke noski, eta halakorik aldarrikatzen duen euskaldun-jenderik ere ez da gure artean falta. Azken bide hori erro-errotik okerra dela uste izan dut nik, eta ez dut gaur ere eritiz aldatzeko arrazoi nahikorik ikusten.

II. 2.3. *Lexiko-berrikuntza noiz burutu behar den*

Ahalik hitz gutxienetan biltzen ahaleginduko naiz, bestela ere aukeran gehiegitxo luzatu naizenez, kontu honetaz dudari eritzia.

Euskal hitz-altxorren berrikuntza-kontuan ez da gaur-gaurkoz hitzei banan bana dagozkien arau sendoak ematea komeni. Garbiago esanik: ez bakarrik ez dut arau-emankizun xehe hori beharrezko ikusten, baizik eta honelako araurik oraingoz ez dela eman behar uste dut.

Badakit jarrera honek ate bat baino gehiago ixten dituela premia larriak datorkigun hainbat eskeri gogo-betea erantzuteko. Azken urteotan eramandako bidearen eskarmentuak hori eta gehiagorako arrazoibide eskaintzen digula uste dut ordea, eta ez noa hemen kontu-garbiketa luzeagoan sartzera.

Gure hitz-altxorren berritze-saioak inondik inora albora ezin utzi ditugula uste dut. Premia handia dugu, eta ezin geroko geroren esperoan utz ditzakegu, bertan behera, saiakuntza guzti horiek. Geure buruari engainuan hastea litzateke hori: gaurko euskaldun-jendeak, batez ere lanbidez euskaraz diharduenak (eta horiek hartu behar genituzke kontuan, inor hartzekotan, euskarari benetako gerorabiderik opa badiogu) nabarmenegiak ditu bere egunoroko bizitzan oraindai-nokoan inoiz landu gabeko gauzak euskaraz esateko beharrak sortzen dizkion neke-eragozpenak, kontu guzti horiek besterik gabe zori itsuaren menturapean uzteko. Berrikuntza-lanak babestu eta aitzinatu beharrak ditugu beraz, baina banakako hitzak oraingoz arauzko babes-indarrez lortu gabe: gordinegi daude oraindik; alde-saihets askotatik maila horretako aztergai gehienak.

Egungo euskararen bilketa-lan sistematikoa egin beharra dago, ezer egiteko-tan, aldi honetan. Ea, hitz gutxitan, honi buruzko bizpahiru eritzi agertzen dudan:

a) Azken hogeit urteko euskara idatziaz eritzi franko etsia agertu du Ibon Sarasolak: epealdi honetan hitz bat asko erabili izana es omen da beretzat, gaizki ulertu ez badiot, hitz horri biz-inortasunik aitortzeko arrazoirik. Eritzi hori matizatu beharra ikusten dut, nik neuk, nere ustea agertzekotan. Bistan dago azken hogeit urteok aski berezi bihurri eta aldaketa-iturritzkoak izan direla, eta orain ere halatsu direla; zorabiozko ezin-egon hori aski arrazoi sendoa genuke, besteak beste, hitz sorberri edo azken orduko mailegu horiei euskal hitz-altxorrean besterik gabe sarbide zabalik ez eskaintzeko. Punta bateko arriskuak ez du ordea, nere ustez, besterik gabe kontrako puntara joateko esku ematen: arriskua, ez nolana-hi-koa gainera, dagoela uste dut izan ere, bide horretan barrena abiatzen bagara,

eskueran daukagun hizkuntz ondarearen zati handi bat zigorpean jartzeko. Gaur egun hainbat esparrutan diharduten euskaldun alfabetatu gehienei urterik urteko ikaste-jardunaren ondoren eskuratutako hizkuntz eredu hori gaitzestetik ez dut uste, besterik gabe, kalte baino mesede gehiago letorkiekeenik.

Azken hogeï-hogeitamar urteko euskalgintzak urratu dituen bideak, dudarik gabe izango dituzten akats-gabezia guztiekin ere, garrantzitsuegiak dira guztiontzat orain, argitasun handiagoak eskuratu-uste ditugula eta, zakarrontzira bota edo balio-urriturik alboratzeko.

Ikuspegi bi hauen artean balegoke agian erdibiderik, eta pozik ikusiko nuke hartarako zubigintza: azken 20 urteak ezezik 20. mendea osorik aztertzea izan daiteke, agian, elkarbide horretarako galga egokia.

b) Bilketa-lan hori era sistematiko batez egin beharra dago, ondorengo lanetarako balio izango badu: ezin ibil gaitzke, inoiz egin izan den bezala, gustatzen zaizkigunak jaso eta gainerakoak alde batera uzten. Eta ahalik erizpiderik bateratuenaz egin beharrak daude gainera, normahik egiten dituela ere, geroztzean aztergai eta material bateragarriak eskueran izan nahi baditugu.

Horra beraz, halako xehetasun batez, gure hitz-ondarearen berrikuntza dela eta esan gogo nituenak esan.

Ez nioke nere azalpengintza honi amaiera eman nahi, dena dela, gaitik kanpora samarrean gelditzen bada ere funtsezkoa iruditzen zaidan uste-aburu bat agertu gabe:

euskararen hitz-altxorren berrikuntza askozaz eginbehar zabal eta bihurria-goa da, goian azalduabartzen saiatu naizenez, lexikografi lan hutsa baino. Gure ondokoei eskuratu nahi geniekeen euskara-moldearekin estu-estu lotua dagoelako, batetik; eta, bestetik, guztion euskaltzaletasunaren funtsa eta azken arrazoia euskararekiko berarekiko harrotasunean oinarritzen delako. Hiztegi-gile saiatuen buru-argitasunaz gainera bestelako faktore asko dira horrexegatik, kolpe huts egingo ez badugu, kontuan hartu beharrekoak: hiltun arruntaren itxaropen-gogoak eta ahalmenak, besteak beste.

Poetek hitz gutxitan esaten omen dakite, eta belarriari atsegin zaion eran, besteok jardun luzeaz eta era aspergarrian baizik adierazten ez dakiguna. Euskal olerkariak erdiz erdi asmatuz eta gogo-bihotzak hunkitzeko eran esana du, mende honetan, hizkuntzaren berrikuntzaz gehienok geure barren sakonean itsatsirik dugun izkutuko sentipen-gogo. Zilegi bekit beraz, Lizardi handiaren eskutik, nere jakinaren gainean inongo hizkuntzaren berrikuntzaz inoiz egin den bide-argitzerik mirarigarriena errepikatzea:

Baiña nik, izkuntza larrekoa
nai aunat ere noranaikoa;
yakite-egoek igoa;
soiña zaar, berri gogoa;
azal orizkta, muin betirakoa.

Asmatuko ahal dugu, denon artean eta Euskaltzaindiaren gidaritzapean, oro mintzozko amets hori egia bihurtzen.

Eskerrik asko.

HILBERRIAK

BALENDIN ENBEITA GOIRIA

Donostian, Euskaltzaindiaren bileran 1986.XI.28

Jose Antonio Arana Martija

Aurtengo Azaroaren 20an hil zaigu Balendin Enbeita bertsolaria. Eta euskaldunok badakigu zer esan nahi duen “zaigun” horrek Euskaltzaindiaren bilera honetan nekrologia hau ematen dugunean, Ohorezko Euskaltzaina zen gure Balendin eta. Muxikako Areatza auzuneko elizan eman zion herriak geroarterako agurra; hainbat erakunderen ordezkariak han bazeuden ere, eta bertsolariak ugari tarteaz, herria izan zen agurraren protagonista “Agur Jaunak” kantatuz eta txalo beroak emanaz hilobirako bidea zabaldu zuena.

Balendin duela larogei urte jaioa zen Areatzako Usparitxa baserrian, 1906.eko Maiatzaren 20an, Balendin Berrio-Otxoa, Elorrioko Martija eta bertsolarien patroia beatifikatu zuten egun berean. Horregatik aitak, Kepa Enbeita Rementeria “Urretxindorrak” (1878-1942) Elorrioko bertsolariaren izena jarri zion. Eta benetako bertsolari izango zenaren biziaren atea zabaldu zion. Benita Goiria zen haurraren ama, Ibarrurikoa, beste sei seme alaba bertsolaritzaren mundurako izango zituen: Bizenta, Sabin, Miren, Imanol, Edurne eta Itziar. Balendinek, bere aldetik, beste sei seme-alaba eman dizkigu bertsolarien giroan bizi direnak: Kepa, Abel, Libe, Moises, Joseba Andoni eta Jon. Nagusia, gainera, Euskaltzain urgazlea dugu. Hemen ditugu bada lau bertsolarien belaunaldiak, “Urretxindorren” aita zen Juan Antonio Enbeita “Txotxo Jeuri”gandik hasita.

Zurgin edo ebanista ikasketak egin zituen Balendinek eta 20 urte zituelarik ogibide hau zeukala joan zen Logroñora, gaztelera hizkuntza berandu bertan ikasi zuelarik. Gero Imanol anaiarekin garraio lanetan hasi zen 1934an, aitak erositako kamioi batekin. Txirrindularia ere izan zen gaztaroan, Sardui eta Barruetabeñaren garaian.

Eta Areatzako Ormaetxe baserrian bizi zen Klara Ealorekin, 1935.eko Azaroaren 30ean ezkondu zen. Gerra denboran, Bizkargiko frentean egon ondoren espetxeratua izan zen Laredon, Dueson eta Puerto de Santa Marian. 1937.eko Abenduaren leian, hamabi urteko zigorra eman zioten Gerra Epaiketa batetan, baina 1941an etxeratzea lortu zuen. Zigor horren ziorik astunena, agirian agertzen denez, “por componer versos alusivos al separatismo vasco” izan zen. Gero, Ormaetxe baserrian bizi izan zen gure Balendin nekazaritza ogibide zuelarik. 1948tik gauregunarte, berak eraikitako baserri etxe berri batetan bizi izan da Balendin Ormaetxe auzunean.

Bost urterekin bota zuen Balendinek bere lehen bertsoa. Baina 18 urte bete arte ez zen bertsolari gisa plazaratu, Eibarren 1924an. 1929an, 23 urte zituelarik, irabazi zuen bere lehen txapela Mungian. Eta geroko bertsoak badakigu zer leporatu zioten gerraldiko une tristeetan. Ez dira bertso asko izango hamabi urteko gartzela balio izan dutenak. Gerra ostean, jakina, isiltasuna baina ez euskal arima eta abertzaletasunaren itotasuna.

1955ean, Bergaran Uztapide eta Basarriren saio bat entzun ondoren hasi zen berriz Balendin bertsotan. Hurrengo urtean, Arantzazun, azaldu zen Euskaltzaindiaren bilera batetan eta urte berean, Bilbon, Azkueri egin zitzaion omenaldian. 1958an, Nazario Oleaga eta Alfonso Irigoien jaunen eraginez antolatu zen Bilbo-ko Arenalean Bizkaiko lehen txapelketa eta Balendinek irabazi zuen txapela, Ormaetxe meñakarra bigarren lotuz. Orduan sortu zuen "Garriko" izeneko bertsolari eskola, Euskal Herrian, behar bada, lehena izan dena. 1959ko txapelketan ere Balendin Enbeita izan zen txapeldun, Azpillaga bigarren tokian utziz. Gero, hurrengo urteetan, Mugartegi, Azpillaga eta Lopategi izango ziren txapeldunak Bizkai mailan.



Azken hogeitahamar urteotan ez da bertso saio eta herriko jai askorik antolatu, Bizkai aldean behintzat, Balendinen partaidetzarik gabe. Honen bertso erraza, doinuz ondo hornitua, sarritan entzuteko aukera izan dugu honen inguruan bizi izan garenok. Euskara, herria, Euskal Herria izan dira gure txoriaren gaiak, libre bizi izan den txoriaren gaiak, noski. Eta herriak eskertu dio lana, orain azken agurra ematerakoan eta bere ohorez antolatuak izan diren omenaldietan: 1975.eko Otsailaren 3an Donostiako Astoria antzokian eskaini zioten

bertsolariek beraien omena, eta orduan kaleratu zuen Balendinek bere lehen bertso liburua, Auspoaren babesean: *Nere apurra*. Gero, 1983.ko Maiatzaren 29an, Bilboko Buenos Aires antzokian eratu zuen beste omenaldi bat Bizkaiko Bertsolari Elkarateak. Eta Euskaltzaindiak, euskararen alde egindako lanagatik, Ohorezko Euskaltzaina izendatu zuen Balendin Enbeita Goiria 1984.eko Azaroaren 30ean.

